

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Energia-jarduketa Plana 2030erako

Martxoak 2023

AURKIBIDEA

1	Sarrera	4
1.1	Aurrekariak.....	4
1.2	Aplikazio-eremua	4
2	Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea	6
2.1	Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea	6
2.1.1	Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen osaera	6
2.1.2	Batzordearen eginkizun edo funtzioak	7
2.1.3	Lantalde teknikoa.....	8
2.2	Energia-jarduketarako unitateak zehaztea	9
3	Eraikinen eta instalazioen diagnostikoa	10
3.1	Eraikinen eta instalazioen inbentarioa.....	10
3.1.1	Definizioak.....	10
3.1.2	Inbentarioaren irismena	10
3.1.3	Inbentarioaren metodologia.....	11
3.1.4	Inbentarioa.....	12
3.2	Energia-jarduketarako unitateen deskribapena	15
3.3	Kudeaketa energetikoa	15
3.4	Auditoria energetikoa.....	19
3.5	Ziurtagiri energetikoa.....	19
3.6	Energiaren gutzizko kontsumoaren erreferentziako oinarritzko maila	20
4	Ibilgailu-parkearen ezaugarriak	21
5	Gutzizko energia-kontsumoa	23
5.1	Energia-kontsumoa eraikin eta instalazioetan.....	23
5.1.1	Gutzizko kontsumoa eraikin eta instalazioetan	23
5.1.2	Energia-kontsumoa	26
	Energia berriztagarriak erabili eta sortzea.....	27
	Fotovoltaikoa	28
	Geotermia eta hidrotermia.....	28
	Aerotermia.....	29
	Biomasa.....	29
	Eguzki-energia termikoa	29
5.1.3	Kontsumoa, erabileren arabera	30
5.1.4	Eraikin eta instalazioetako kontsumoaren bilakaera.....	30
5.2	Energia-kontsumoarekin lotutako sortutako CO ₂ emisioak.....	32
5.3	Eraikin publikoetako energia-kontsumoaren kostua	33
6	2030erako eta 2050erako helburuak	34
6.1	Kontsumo-murrizketarekin eta energia berriztagarriekin lotutako helburuak 2030ari eta 2050ari begira	34
6.2	Kalifikazio energetikoaren hobekuntza-helburua	35
7	Jarduketa-plana	36
7.1	Eraikinetako eta instalazioetako efizientzia energetikoaren arloko jarduketak	37
7.2	Berriztagarriak ezartzearen eta erregai fosilak ordeztearen arloko jarduketak	51
7.3	Mugikortasun jasangarriaren arloko jarduketak.....	61

7.4 Prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren arloko jarduketak	65
7.5 Inbertsioen laburpena eta epeak	68
8 Planaren jarraipena	69
1. eranskina. Eraikinen, instalazioen eta ibilgailu-parkearen inbentarioa.....	70
2. eranskina. Energia-jarduketarako unitateen deskribapena	197
Osakidetza	197
Hezkuntza.....	200
Segurtasuna	203
Baliabide Orokorrak	205
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	206
EITB	207
Itelazpi.....	208
Parke teknologikoak.....	209
Euskal Trenbide Sarea (ETS).....	211
EJIE	212
Nekazaritza.....	213
Arkautiko Akademia.....	215
Lanbide.....	216
Osasuna.....	217
Euskotren	219
Kultura.....	220
Lehendakaritza.....	222
EKP	223
Osalan	225
Etxebizitza	226
SPRILUR	228
Ogasuna eta Ekonomia	229
Ingurumena.....	230
Portuak.....	232
Euskadiko Orkestra	233
BIC Araba.....	234
Uraren Euskal Agentzia (URA).....	235
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	236
IVAP.....	236
Industria	237
Alokabide	239
3. eranskina. Alokairuko etxebizitzaren parkeko hobekuntza konbinatuen deskribapena	241
4. eranskina. Laburdurak	243
5. eranskina. Bihurketa-faktoreak	244

1 Sarrera

1.1 Aurrekariak

2018ko urriaren 30ean, Gobernu Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren Jasangarritasun Energetikorako 2025erako Jarduketa Plan Orokorra onartu zuen. Plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraikiz landu zen, eta energia-aurrezpena eta -efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera arautzen ditu.

Onespen horren ondoren, 2019ko otsailaren 28an, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea (aurrerantzean, JEL) argitaratu zen; lege horren xedea da energia-politikaren joera orokorra kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan eta sektore pribatuan jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak ezartzea, eta batzuek eta besteek zer eginbehar eta betebehar dituzten antolatzea. Batez ere, energia-aurrezpeneko eta efizientzia energetikoa izateko neurriak bultzatzera bideratuko dira eginbehar eta betebehar horiek, bai eta energia berriztagarriak sustatzera eta ezartzera ere.

JELek ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztiek energia-jarduketan hainbat urtetarako planak egin beharko dituzte; plan horietan, beren jardueraren eremuan zer egoera dagoen jakiteko diagnostikoak egin behar dituzte, eta plana indarrean dagoen bitartean gauzatu beharreko estrategiak zehaztu.

Ildo beretik, JELek eskatutako erregelamendu-garapenaren zati bat jorratzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuak (aurrerantzean, JED) eta, horrenbestez, onartu zenetik denbora gutxi igaro den arren, ezinbestekoa da, eraginkorra izan dadin lortzeko, Eusko Jaurlaritzaren Jasangarritasun Energetikorako 2025erako Jarduketa Plan Orokorra arau-esparru berrira egokitzea.

1.2 Aplikazio-eremua

Jarduketa Plan hau Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari (aurrerantzean, EAEko sektore publikoa) zaio aplikatzekoa; Eusko Jaurlaritzako sailek, horren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, sozietate publikoek, EAEko sektore publikoko fundazioek eta nortasun juridikoa duten partzuergoek osatzen dute EAEko sektore publikoa, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen II. tituluan xedatzen den bezala.

JELen aplikazio-eremu objektiboan, Jarduketa Plan honetara ekarrita, barne hartzen dira EAEko sektore publikoaren titulartasuneko eraikinak, instalazioak eta ibilgailu-parkea, hirugarrenei errentan emanda egon arren, eta JELen 3. artikuluko 2. apartatuan jasotako salbuespenekin, hots, honako hauekin:

- a) Alokairuan hartutakoak.
- b) Atzerrian kokatuta daudenak.
- c) Behin-behinean erabiltzekoak, aurreikusitako erabilera-epea bost urtekoa edo gutxiagokoa bada.

d) Hirigintzako, historia- eta arte-ondarea babesteko edo antzeko beste arrazoi batzuk egoteagatik, JELe ezartzen dituen neurriak aplikatu ezin zaizkien eraikinak.

2 Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea

JELek Eusko Jaurlaritzaren barnean energia-alorrean eskumena duen sailari esleitzen dio EAEko sektore publikoko eraikinen, instalazioen eta ibilgailu-parkearen inbentarioa egiteko eta mantentzeko erantzukizuna, bai eta inbentario horretan ezarritako obligazioak betetzen direla zaintzekoa ere.

Horretarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, egungo Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari dagokio erantzukizun hori, energiarekin lotutako egitekoak baititu esleituta, besteak beste.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak lagundu egingo dio Energiaren Euskal Erakundeari, hari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den aldetik, JELek ezarritako zereginetan aholku emateari dagokionez.

Aurrekoaz gain, JELek zera ere ezartzen du, bere jomugak lortzeko zereginak koordinatzeko, ezinbestekoa dela Jasangarritasun Energetikoaren Batzorde bat eratzea edo, gutxienez, antzeko ezaugarriak eta funtzioak dituen erakunderen baten laguntza izatea.

Ildo horretan, EAEko sektore publikoak 2015eko abenduan jada eratu zuen Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea, garai hartan indarrean zegoen irailaren 22ko 178/2015 Dekretuaren esparruan. Harrez geroztik, EAEko sektore publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea deritzo Batzorde horri, eta EAEko sektore publikoaren jasangarritasun energetikoarekin lotutako edozein arazorekin koordinatzeko organo gisa eratu zen.

Bestalde, Batzordearen funtzionamendu egokia bermatzeko, JEDek Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen Lantalde Teknikoa aurreikusi eta arautzen du, laguntza- eta babes-organoa gisa.

2.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea

2.1.1 Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen osaera

JEDen ezarritakoaren arabera, EAEko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea (aurrerantzean, Batzordea) honako hauek osatuko dute:

a) Batzordeburua: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria. Ez badago edo gaixorik badago, batzordeburuordea izango da haren ordezkoa.

Batzordeburua kide kualifikatutzat joko da, eta kalitatezko botoa izango du.

b) Batzordeburuordea: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua. Ez badago edo gaixorik badago, Industriako sailburuordea izango da haren ordezkoa.

c) Batzordekideak:

- Industriako sailburuordea.
- Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia.
- Jarduketa-unitate bakoitzeko pertsona bat, erabakitze eta jarduteko gaitasuna duena, JELe ezarritako betebeharren betetze tekniko, legezko eta ekonomikoaren esparruan.

Energia-jarduketarako unitatea Eusko Jaurlaritzaren sail jakin bati dagokionean, dagokion sailak bere sailburuordeen edo zerbitzu-zuzendarien artean izendatutako pertsona bat izango da batzordekide.

Energia-jarduketarako unitatea Eusko Jaurlaritzako sailburuordetza jakin bati badagokio, sailburuordetza horretako titularrak edo Zerbitzu Zuzendaritzako titularrak beteko du batzordekidearen postua, dagokion sailak izendatu ondoren.

Energia-jarduketarako unitatea erakunde autonomo, entitate edo sozietate publiko bati badagokio, horren zuzendari nagusiak edo antzeko organoko titularrak beteko du batzordekidearen postua.

d) Idazkaria: Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria.

Batzordea osatuko duten pertsonak izendatu eta hautatzean, ahaleginak egingo dira gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak xedatutakoa betetzeko.

2.1.2 Batzordearen eginkizun edo funtzioak

Batzordeak eginkizun hauek izango ditu bere eskumen-esparruaren barruan:

- a) Eraikinen eta eraikin zatien, instalazioen eta ibilgailu-parkearen inbentarioa onartzea.
- b) Energia-kontsumo osoaren erreferentziako oinarritzko maila onartzea.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikora banakatuta dagoen energia-jarduketako unitateen definizioa onartzea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketaren plan orokorrari alde zuzeneko adostasuna ematea, planaren garapena gainbegiratzea eta urtero Gobernu Kontseiluari plan horren garapenaren berri ematea.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketako unitateek aurrezpen eta eraginkortasun energetikorako garatutako jarduketa guztiei dagozkien jarraipen-lanen eta txostenen berri jasotzea.
- f) Energia-jarduketarako unitate bakoitzaren energia-jarduketaren berriazko planak onartzea.
- g) Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren ehuneko osoa banatzeko proposamenari adostasuna ematea Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak egingo du proposamena, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onetsi dezan.

Banatzeko proposamenarekin ados egon ezean, horren berri emango zaio Gobernu Kontseiluari, hark ebatz dezan.

h) Ekonomia eta Ogasun Sailari urtero proposatzea Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak jasagarritasun energetikoaren arloan bideratzea aurreikusten duen aurrekontuaren ehunekoak, JELEN ezarritako helburuak lortzeko.

i) Ekonomiaren Garapen, Jasagarritasun eta Ingurumen Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-kontsumoaren urteko jarraipen-txostena onartzea.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzupeko langileen gaikuntza eta sentsibilizatorako planen eta lantokietarako garraio-planen garapena gainbegiratzea.

k) Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren inguruko gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publikoekiko elkarlanean eta lankidetzan aritzeko irizpideak ezartzea, betiere garapen, Jasagarritasun eta Ingurumen Sailaren eta, hala badagokio, Gobernu Kontseiluaren eskumenei kalterik egin gabe.

2.1.3 Lantalde teknikoa

Batzordearen lantalde teknikoa sortzen da, batzordeari laguntza eta babesa emateko, eta energia-jarduketako unitateak koordinatzen dituzten pertsonak osatuko dute lantaldea.

Lantalde teknikoak honako eginkizun hauek ditu:

a) Batzordeari aholkularitza teknikoa ematea.

b) Azken aurrerapen teknikoak aplikatzeko aukerez eta garapen-mailaz taldean hitz egiteko eta eztabaidatzeko esparrua izatea, JELEN ezarritako betebeharrak bete ahal izateko.

2.2 Energia-jarduketarako unitateak zehaztea

1. taula EAeko sektore publikoko energia-jarduketako unitateak

Saila/erakundea/sozietatea	Energia-jarduketarako unitatearen izena
Lehendakaritza	Lehendakaritza
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Baliabide orokorrak
	EJIE
	Itelazpi
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumena	Nekazaritza
	Ingurumena
	Uraren Euskal Agentzia (URA)
	Portuak
	Euskadiko Kirol Portuak (EKP)
	Parke teknologikoak
	SPRILUR
	Industria
	BIC Araba
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak	Euskal Trenbide Sarea (ETS)
	Euskotren
	Etxebizitza
	Alokabide
Ekonomia eta Ogasuna	Ogasuna
Hezkuntza	Hezkuntza
Osasuna	Osasuna
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa
Kultura eta Hizkuntza Politika	Kultura
	Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
	EITB
Segurtasuna	Segurtasuna
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak
	Espetxeak
Osakidetza	Osakidetza
Lanbide	Lanbide
Osalan	Osalan
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Arkautiko Akademia
Administrazio Publikoaren Euskal Institutua	IVAP

3 Eraikinen eta instalazioen diagnostikoa

3.1 Eraikinen eta instalazioen inbentarioa

JELek eraikinen eta instalazioen inbentarioa egin behar dela ezartzen du, horien energia-kontsumoak barne hartuta; jarraipen-txostenak egin beharko direla ere xedatzen du, ezarritako helburuak lortzeko bidean aurrera egite aldera.

3.1.1 Definizioak

Dokumentu honen ondorioetarako, honako definizio hauek dituzten eraikinez, zentroez eta instalazioez hitz egingo da:

- Eraikina. JELen jasotako definizioaren arabera: sabaia eta hormak dituen eraikuntza, non energia erabiltzen den barruko giroa egokitzeko; bizitegi-erabileretarako nahiz zerbitzuak emateko erabil daiteke, eta eraikin oso bat edo eraikin baten zatiak izan daitezke, baldin eta zati horiek bereizita erabiltzeko diseinatu edo moldatu badira.
- Zentroa. Eraikin zati bat, eraikin oso bat edo eraikin multzo bat, normalki elektrizitate-hornidurako hargune bakarra duena.
- Instalazioa. JELen jasotako definizioaren arabera: abian dela energia kontsumitzen duen edozer ekipamendu edo sistema, edo, bestela, edozer energia-iturri erabilia, *in situ* energia sortu edo transformatzen duena.

3.1.2 Inbentarioaren irismena

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak du, JELek 11. artikuluan jasotzen duenez, EAEko sektore publikoko eraikinen, instalazioen eta ibilgailu-parkearen inbentarioa egin eta eguneratzeko eskumena, eta, horretarako, energia-jarduketarako unitate guztietako koordinatzaileen lankidetzatza du.

Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretuaren indarraldia hasi zenez geroztik, EAEko sektore publikoaren titulartasuneko zentro eta instalazio guztiak identifikatu dira, baita horien urteko energia-kontsumoak ere; horri gagozkiola, honako informazio hau bildu da datu-base batean:

- Zentro eta instalazioen helbideak eta koordinatu geografikoak.
- 2015az geroztik erabilitako energia guztien urteko energia-kontsumoak.
- Energia elektrikoaren, gas naturalaren eta PGL kanalizatuaren hornikuntza puntuko kode bateratua (HPKB)¹, kontsumoei jarraipena egin ahal izateko.
- Efizientzia energetikoaren ziurtagiriaren inskripzio-zenbakia, Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiriaren Erregistroan, eta lortutako kalifikazio energetikoa.

JEDen 3.3 artikuluan jasota dagoen bezala, ez dira kontuan hartzen EAEko sektore publikoak kudeatutako etxebizitza edo lokaletako energia-kontsumoak, baldin eta eremu pribatuan pertsona fisiko edo juridikoek errentamendu-araubidean eta biztantze- edo gozamen-eskubidean erabiltzen badituzte.

¹ HPKB: hornikuntza puntuko kode bateratua.

JELen 3.2 artikuluan jasotakoaren arabera, ez dira kontuan hartu honako egoera hauetakoren batean dauden eraikinak:

- a) Alokairuan hartutakoak, betiere titularra, JELen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege hori aplikatu ezin zaion hirugarren pertsona bat bada.
- b) Atzerrian kokatuta daudenak.
- c) Behin-behinean erabiltzekoak, aurreikusitako erabilera-epea bost urtekoa edo gutxiagokoa bada.
- d) Hirigintzako, historia- eta arte-ondarea babesteko edo antzeko beste arrazoi batzuk egoteagatik, JELe ezartzen dituen neurriak aplikatu ezin zaizkien eraikinak.

3.1.3 Inbentarioaren metodologia

JEDen 17. artikuluan jasota dagoen bezala, ekitaldi bakoitzaren lehen hiruhilekoan, EAEko sektore publikoko energia-jarduketarako unitateek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari emango diote aurreko ekitaldian eginiko energia mota bakoitzaren kontsumoen berri, bakoitzak kudeatutako eraikin, eraikin zati, instalazio eta ibilgailuei dagokienez. Hala badagokio, bereizita banakatuko dira autokontsumo bidez estalitako kontsumoak.

Aurrekoaz gain, informazioa biltzeko beste bide batzuetara ere jotzen da, hala nola energia banatzen duten enpresei zuzenean eskatuta.

- Eusko Jaurlaritzak eta haren mendeko erakundeek kudeatutako zentro eta instalazio guztietako energia-kontsumo guztiak hartu dira kontuan, baita alokairu-erregimenean okupatuta daudenak ere, nahiz eta horiei ez zaizkien aplikatzen JELen ondoriozko zenbait betebeharrak.
- Konparazioetan ez dadin egon inkoherentziarik, bat-batean gertatutako inguruabar zehatzengatik urte jakin bateko kontsumo-daturen bat ez bada ezaguna, gertueneko urteko datu ezaguna biltzen da estimazio gisa. Estimaziopeko datuen guztizkoa % 2tik beherakoa da eta, honenbestez, errore-marjina zifra hori baino askoz ere txikiagoa da.
- JELen arabera, JELen eraginpeko administrazio publiko bakoitzak bere energia-kontsumoaren erreferentziako oinarrizko maila onartu behar du; oinarrizko maila hori abiapuntu izango da aurrezpen eta efizientzia energetikoa hobetzeko helburuak ezartzeko. Ildo horretan, irailaren 22ko 178/2015 Dekretuaren esparruan, Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak 2015eko energia-kontsumoa onartu zuen erreferentziako oinarrizko maila gisa 2016ko urriaren 14an egindako bileran (2015erako egin zen kontsumoen lehen inbentario ofiziala eta globala, eta 2015ari buruzko informazio osoa dago).
- Klimatologiak nabarmen eragiten duenez eraikinetako energia-kontsumoan, jarduketa-unitate bakoitzean kontuan izan behar da helburuetarantz egiten den aurrerapena baloratzeko. Beraz, erreferentziako urtearekiko kontsumo-bilakaera erkatzeko, temperaturaren araberako zuzenketa bat egingo da. Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak 2016ko urriaren 14ko bileran onartu zuen zuzentzeko prozedura. Helburuetarantzko aurrerapen-maila erreferentziako oinarri-mailaren arabera neurtuko da temperaturen araberako zuzenketarekin eta gabe. Printzipioz, zuzenketa-prozedurak kontuan izango ditu eguneko berokuntza-graduak neguko hilabeteetarako eta eguneko hozketa-graduak udako hilabeteetarako.

- Taulak azken energia gisa adierazten dira (kWh), 5. eranskinean zehaztutako irizpideak eta honako hauek kontuan hartuta:
 - Energia elektrikorako, transformatu gabeko kontsumo-balioak erabiltzen dira, fakturretan agertzen diren moduan.
 - Gas naturalerako, zenbatekoak goiko berotze-ahalmen gisa (GBA) adierazten dira, fakturretan agertzen diren bezala.
 - Beste erregai batzuen kasuan, beheko berotze-ahalmen (BBA) gisa adierazten dira.
- Kogenerazio-instalazioak dituzten eraikinetan, ez da kontuan hartuko elektrizitatea sortzeko erabilitako erregaia. Honako kontsumo hauek zenbatuko dira:
 - Eraikinaren kontsumo elektrikoa (kogenerazioa kanpoan utzita).
 - Eraikineko kogenerazioarekin hornitutako bero-kontsumoa (ur bero edo lurrin moduan).
 - Eraikineko kogenerazioarekin hornitutako hotz-kontsumoa (ur hotz moduan), kogenerazioak xurgapen-makinak dituenean.
 - Guztizko kontsumoak kalkulatzeko, bero-kontsumoa eta hotz-kontsumoa gas naturalaren eta energia elektrikoaren kontsumoekin parekatzen dira, hurrenez hurren, honela:
 - Bero-kontsumoa: gas natural baliokidearen kontsumo gisa kontabilizatzen da, BBAREN gaineko % 90eko errendimenduarekin.
 - Hotz-kontsumoa: 3,5eko errendimendu-koefiziente batekin ekoizteko elektrizitate-kontsumo baliokide gisa zenbatzen da.

3.1.4 Inbentarioa

Zentro operatibo inbentariatuen guztizko kopurua 704 da. Jada azaldu dugun bezala, halako zentroak nola eraikin osoei hala eraikin multzoei dagozkie, baita lonjei edo eraikin zatiei ere. Zifra horretan ez dira barne hartu alokairu sozialeko etxebizitzak, horiek bereiz aztertzen baitira aurrerago aipatutako *Zero Planean*.

Gainera, EAeko sektore publikoak energia kontsumitzen duten hainbat motatako azpiegiturak ditu, hala nola tailerrak, biltegiak, komunikazio-antenak, airearen kalitateko kabinak, trafiko-panelak, portu-azpiegiturak, argiteria publikoa, tren-geltokiak, ur-emaria neurtzeko estazioak, etab.; 509 kontsumo-puntu biltzen dituzte horiek guztira.

1. eranskinean jasotzen da EAeko sektore publikoaren zentro eta instalazioen inbentario osoa.

2. taula. 2022ko ekitaldia ixtean zeuden zentro eta instalazioen inbentarioaren laburpena.


Saila/erakundea/sozietatea	Energia-jarduketarako unitatearen izena	Zentro kopurua	Beste instalazio batzuk
Lehendakaritza	Lehendakaritza	3	0
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Baliabide Orokorrak	14	4
	EJIE	1	0
	Itelazpi	1	194
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumena	Nekazaritza	3	2
	Ingurumena	9	13
	Uraren Euskal Agentzia (URA)	4	2
	Portuak	3	9
	Euskadiko Kirol Portuak (EKP)	9	10
	Parke teknologikoak	42	57
	SPRILUR	19	3
	Industria	1	7
	BIC Araba	1	0
	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak	Euskal Trenbide Sarea (ETS)	4
Euskotren		4	7
Etxebizitza		5	0
Alokabide		237	0
Ekonomia eta Ogasuna	Ogasuna	3	0
Hezkuntza	Hezkuntza	221	0
Osasuna	Osasuna	8	0
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	3	0
Kultura eta Hizkuntza Politika	Kultura	6	0
	Euskadiko Orkestra Sinfonikoa	1	0
	EITB	4	0
Segurtasuna	Segurtasuna	46	81
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	21	1
	Espetxeak	3	0
Osakidetza	Osakidetza	242	0
Lanbide	Lanbide	48	0
Osalan	Osalan	2	0
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Arkautiko Akademia	1	0
Administrazio Publikoaren Euskal Institutua	IVAP	1	0
GUZTIZKOA		941	509
GUZTIZKOA Alokabide gabe		704	509

3. taula 2022ko itxieran inbentariatutako eraikin eta instalazioetan dauden energia-kontsumorako puntuen guztizko kopurua.

Energia	Puntuen kopurua
Energia elektrikoa	1.381
Gas naturala	423
Gasolioa	101
PGL	23
Geotrukea	19
Biomasa	10
Fotovoltaikoa	211

Energia-kontsumo handieneko zentroak Osakidetzaren energia-jarduketarako unitatearen mendeko ospitaleak dira gehienbat, hurrengo irudian ikusten den bezala. Ospitale nagusien atzetik, kontsumo handieneko zentroak Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitza, Ertzaintzaren Erandioko zentrala eta EJIEn Gasteizko eraikina dira.


1. irudia. EAEko sektore publikoko energia-kontsumo handieneko zentroak.



3.2 Energia-jarduketarako unitateen deskribapena

2. eranskinean, energia-jarduketarako unitate bakoitzak kudeatzen dituen zentro eta instalazioen ezaugarrien laburpena jasotzen da. Unitate horiek energia-kontsumoan duten garrantziaren arabera antolatu dira.

2. irudia. Energia-kontsumoaren banaketa, energia-jarduketarako unitateen arabera.



3.3 Kudeaketa energetikoa


EAEko sektore publikoak hainbat plataforma ditu eraikin eta instalazioetako energia-kontsumoei jarraipena egiteko.

1. EAEko sektore publiko osorako plataforma orokorrak.
 - Eusko Jaurlaritzaren teleneurri-sarea, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Baliabide Orokorraren Zuzendaritzak kudeatua. Baliabide Orokorraren Zuzendaritzak kudeatutako sistemak honako apartatu hauek ditu:
 - Hornidura-puntuak. Hornidura-puntu monitorizatuak identifikatzea.
 - Hornidura-puntu bakoitzerako kontsumoa: kontsumoaren urteko alderaketa, hilabeteka; kontsumoaren bilakaera, tarifa-denboraldiaren eta hilabeteen arabera, hornidura-puntu bakoitzerako; eguneko potentzia-faktorearen bilakaera, denbora-tarte jakin baterako; hileko potentzia-faktorearen bilakaera, tarifa-denboraldien arabera; denbora-tarte jakin baterako karga-kurba; energia aktiboa eta erreaktiboa; hileko gehieneko potentzia, tarifa-aldien arabera; eta kontratatutako potentziarekin alderatzea.
 - Sail bakoitzerako edo kontsumo-puntuen multzo bakoitzerako: kontsumoaren urteko alderaketa, hornidura-puntu guztietarako, hilabeteka; eraikin bakoitzaren kontsumoari buruzko txostena, hilabeteen eta tarifa-aldiaren arabera.
 - Kontratututako tarifa optimizatzeko tresna.

- Energiaren Euskal Erakundeak kudeatutako eraikin eta instalazioen kontsumoen inbentarioa.
2. Energia-jarduketarako unitateak kudeatzeko eta kontrolatzeko plataformak: Euskotren, Neiker, Seguridad, Alokabide, Etxebizitza, Baliabide Orokorrak eta Osakidetza. Zentro handienek –ospitaleek, kudeaketa zentralizatuko eraikinek eta beste batzuek– kontrol-eta kudeaketa-sistema zentralizatuak dituzte, airea girotzeko instalazioen funtzionamendu-parametroei eta energia-kontsumo banakatuei buruzko informazio zehatza denbora errealean ematen dutenak.

3. irudia. Eusko Jaurlaritzaren teleneurri-sarearen deskribapena.

Eusko Jaurlaritzako teleneurri-sarea	
Esteka:	
Kudeaketa:	Baliabide Orokorren Zuzendaritza. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.
Informazio eskuragarria:	<ul style="list-style-type: none"> EAEko sektore publikoko energia elektrikoaren hornikuntza-puntu bakoitzaren (HPKB kontuan izanik) energia aktibo eta erreaktiboaren kontagailuaren irakurketak. Maximetroaren irakurketak, denbora-tartearen arabera. Kontratu elektrikoari buruzko informazioa, kontratatutako potentziak barne.
Aplikazioak:	<ul style="list-style-type: none"> Kontsumo-analisirako eta kudeaketa energetikorako ordukako kontsumoaren kurbak denbora-tartearen arabera. Ordukako kontsumoaren –denbora-tartearen arabera– datuen deskarga. Kontratatutako potentziaren optimizazioa.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

[Manual de usuario](#)


- [Suministros](#)
- [Gráficas](#)
- [Tarifas](#)
- [Herramientas](#)
- [Solicitudes](#)
- [Facturas](#)
- [Mis datos](#)
- [Salir](#)

GRÁFICAS

Curva de carga

Suministro: Plaza Bizkaia, 1, Bajo BILBAO Periodo: Día Mes Año

Desde: Hasta: Telemedida: Telemedida propia Telemedida distribuidora Acciones: [Gráfica](#) [CSV](#) [Limpiar](#)



Activa Reactiva Capacitiva

Fecha	Hora	Activa	Reactiva	Capacitiva	Periodo
26/07/2022	00:00	42	0	5	6
26/07/2022	01:00	41	0	6	6
26/07/2022	02:00	41	0	6	6
26/07/2022	03:00	41	0	6	6

4. irudia. EAEko sektore publikoaren eraikin eta instalazioetako energia-kontsumoen inbentarioaren deskribapena.

Eraikin eta instalazioen kontsumoen inbentarioa	
Esteka:	
Kudeaketa:	Energiaren Euskal Erakundea.
Informazio eskuragarria:	<ul style="list-style-type: none"> EAEko sektore publikoko zentro edo instalazio bakoitzaren urteko kontsumoa, 2015etik, energiaren arabera (elektrikoa, gas naturala, biomasa, gasolioa, PGL, geotermia eta fotovoltaikoa). EAEko sektore publikoaren eraikin bakoitzaren efizientzia energetikoaren ziurtagiriak. Guztira, EAEko sektore publiko osorako, sail bakoitzerako eta energia-jarduketarako unitate bakoitzerako.
Aplikazioak:	<ul style="list-style-type: none"> Kontsumo-alderaketak eraikinaren arabera. Denboran zeharreko kontsumoen bilakaeraren analisia EAEko sektore publikoan, sailetan eta energia-jarduketarako unitateetan. Energia berriztagarrien erabileraren analisia.

Eusko Jaurlaritzaren energia kontsumoa
Consumo de energía en el Gobierno Vasco

Mapa
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Sailak Departamentos
Eraikinen kontsumoa Consumo en edif./instal.
Ziurtagiriak Certificados
Berriztagarriak Renovables
Zerrendak Listados

Eraikin eta instalazioetako energia kontsumoa

Consumo de energía en edificios e instalaciones

Saila / Departamento

Todas

Jarduketako unitatea / Unidad de actuación

Todas

Udalerrria / Municipio

Todas

Urtea / Año

2021

Energia

Todas

Kontsumoa / Consumo, kWh

Kontsumoa / Consumo, kWh/m2

Eraikinen kontsumoa / Consumo en edificios e instalaciones, kWh

Nombre Centro	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
2 Viviendas de Eibar	55.649	54.452	52.249	49.346	47.445	50.712	45.079
Electricidad	55.649	54.452	52.249	49.346	47.445	50.712	45.079
Academia Vasca de Policía y Emergencias	5.547.635	5.861.027	5.424.416	6.003.093	5.937.818	5.086.567	5.096.594
Electricidad	1.875.741	1.974.773	1.843.022	1.920.468	1.855.193	1.430.198	1.396.681
Fotovoltaica						140.000	207.277
GLP	280.784	280.784	280.784	354.875	354.875	204.799	194.166
Gasóleo	3.391.110	3.605.470	3.300.610	3.727.750	3.727.750	3.311.570	3.298.470
Ajuria Enea	436.061	370.508	307.263	365.721	327.034	326.987	380.592
Gas Natural	436.061	370.508	307.263	365.721	327.034	326.987	380.592
Almacén C/Mons	532	202	207	299	240	153	144
Electricidad	532	202	207	299	240	153	144
Almacén Etxebarri	26	26	26	26	26	26	32
Electricidad	26	26	26	26	26	26	32
Almacén Hospital Mendara	18.315	14.438	15.711	16.930	15.348	17.312	15.367
Electricidad	18.315	14.438	15.711	16.930	15.348	17.312	15.367
Total	449.850.697	443.243.344	442.272.191	458.411.899	453.791.172	440.540.440	472.720.872

Zentro edo instalazio zenbaki / Número de centros o instalaciones Energjiaren arabera / por energías

1179

Electricidad	48.0%
Gas Natural	25.2%
Calor de c.	19.1%
GLP	0.3%
Geointerca...	
Frió de co...	
Biomasa	
Gasóleo	

CUPS-eko zerrenda / Lista de CUPS

Ref_EVE	Zentroa	Energia	CUPS	Tarifa	Udala	Helbidea	Portala
2156	Centro de Salud Mariena	Electricidad			Abadiño	Avenida Trañabarren	13
21040	ESTACION TRAÑA	Electricidad		3.0A	Abadiño	Avenida Trañabarren	S/N

3.4 Auditoria energetikoak

Aurreko apartatueta jasotako informazioa –energia-jarduketarako unitateen egungo egoera deskribatzen duena– EAEko sektore publikoaren titulartasuneko zentro eta instalazioen gainean egindako energia-auditorien bidez sortu da.

Auditoriek eraikinen eta instalazioen ezaugarrien analisia, eta horien energia-kontsumoen azterketa jasotzen dute, bai eta horien efizientzia energetikoa eta horietan energia berriztagarrien erabilera hobetzeko neurrien proposamena ere. Analisi hori eta neurri horiek honako hauetan oinarritzen dira, besteak beste: inguratzailea (itxitura opakoak eta gardenak), berokuntzarako eta/edo airea girotzeko sistemak, argiztapena eta energia berriztagarrien (fotovoltaikoa, etab.) ezarpena. Aurrezpen-neurriek beharrezko diren inbertsioen eta sortutako energia-aurrezpenen estimazio bat jasotzen dute; gainera, nola eraikinen jasangarritasun energetikoan aurrera egiteko jarduketak zehazteko hala jarduketa-plan hau ezartzeko oinarria dira aurrezpen-neurriok, baita energia-jarduketarako unitate bakoitzaren jarduera-plan espezifikokoak finkatzeko ere.

JELek jasotzen duen bezala, EAEko sektore publikoak bere zentro eta instalazioen energia-auditoriak egiten jarraitzen du, kasu jakin batzuetan haren balio-epea amaitzear dagoelako (4 urteko baliozkotasuna), eta beste batzuetan, berriz, eraikin eta instalazioen inbentarioan sartu berriak direlako.

3.5 Ziurtagiri energetikoa


EAEko sektore publikoko 565 zentrok efizientzia energetikoaren ziurtagiria dute (etxebizitza sozialak ez dira zenbatzen). Zentro batek eraikin baterako baino gehiagorako hainbat ziurtagiri izan dezakeenez, guztira 778 ziurtagiri daude.

Hurrengo irudian, kalifikazio energetikoaren arabera sailkatutako ziurtagirien kopurua ageri da, alokairu sozialeko eraikinak alde batera utzita. Gehien irudikatzen den kategoria D da; horren ondoren, E eta, azkenik, C.

Kalifikazio energetikoa lotuta dago eraikitzean eraikinari aplikatu behar zitzaion eraikuntza-araudiarekin, eraikinak kontsumitzen dituen energia-iturriekin eta berokuntzako, klimatizazioko, UBSaren ekoizpenerako eta argiztapeneko ekipoen efizientzia energetikoarekin.

Ziurtagiria duten eraikinen % 7,3k A edo B kalifikazio energetikoa du energia primario berriztaezinaren kontsumoagatik.

5. irudia. Energia primario berriztaezinaren kontsumoaren araberako kalifikazio energetikoari jarraikiz sailkatutako ziurtagiriak.



3.6 Energiaren guztizko kontsumoaren erreferentziazko oinarritzko maila


EAEko sektore publikoaren erreferentziazko oinarritzko maila 2015a da, 2016ko urriaren 14ko bileran onartutako Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen erabakiz. Erabaki hori hartu zen kontsumoen lehen inbentario ofiziala eta globala urte hartan egin zelako, eta horretarako informazio osoa dagoelako Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretuaren esparruan.

4 Ibilgailu-parkearen ezaugarriak

Eusko Jaurlaritzaren ibilgailu-parkea 4.511 ibilgailuz osatuta dago guztira. Ibilgailu horien % 75 inguru energia-jarduketarako unitateen jarduera espezifikorako erabiltzen dira; gainerakoak, berriz, lantokien arteko joan-etorrietarako.

Erregai motari dagokionez, hurrengo grafikoan ikusten da gasolioaren erabilera nagusi dela oraindik ere, nahiz eta erregai alternatiboko ibilgailuak gero eta ugariagoak izan.


6. irudia. Ibilgailu-parkearen ezaugarriak, erregai motaren arabera.



Duela urte batzuek geroztik hona, flota partzialki berritzen ari da, ibilgailuak kontratatzekeo ardura duten unitateek kudeatutako lizitazioen bidez.

Segurtasuna energia-jarduketarako unitateak ditu ibilgailu gehien: zehazki, guztizkoaren % 59; horren ondoren, Arkautiko Akademia dago (% 18), eta hirugarrenik, Baliabide Orokorrak (% 11).

7. irudia. Ibilgailu-parkearen ezaugarriak, energia-jarduketarako unitate bakoitzeko.



Hurrengo taulan, EAEko sektore publikoak erabilitako ibilgailu-parkearen inbentario eguneratua jaso da. Inbentarioan hala jabetzako ibilgailuak nola alokairuan, *rentingean* edo bestelako kontratazio-modalitateetan erabiltzen direnak jasotzen dira.

Ibilgailuak horiek kudeatzeko ardura duen energia-jarduketarako unitatean dute erreferentzia; lurreko, itsasoko eta aireko ibilgailuak barne hartzen dituzte. Hurrengo taulan inbentario horren laburpena ageri da:

4. taula Ibilgailu-parkearen ezaugarriak, energia-jarduketarako unitate bakoitzeko.

Energia-jarduketarako unitatea	Ibilgailuen kopurua	Diesela	Gasolina	% 100 Elektrikoa	Hibrido entxufagarria	PGL edo gas naturalezko bifuela
Lehendakaritza	0(*)					
Baliabide Orokorrak	493	345	49	0	15	84
EJIE	4	0	0	0	4	0
Itelazpi	12	12	0	0	0	0
Nekazaritza	58	18	0	8	4	28
Ingurumena	3	0	0	1	2	0
Uraren Euskal Agentzia (URA)	55	39	5	0	1	10
Portuak	8	7	0	0	0	1
Euskadiko Kirol Portuak (EKP)	7	3	1	1	0	2
Parke teknologikoak	5	2	2	1	0	0
SPRILUR	2	1	1	0	0	0
Industria	7	1	0	1	3	2
BIC Araba	0	0	0	0	0	0
Euskal Trenbide Sarea (ETS)	80	39	0	1	0	40
Euskotren	39	15	0	16	1	7
Etxebizitza	28	8	0	2	6	12
Alokabide	0	0	0	0	0	0
Ogasuna	(*)					
Hezkuntza	(*)					
Osasuna	(*)					
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	9	8	0	0	0	1
Kultura	(*)					
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa	3	3	0	0	0	0
EITB	ED	ED	ED	ED	ED	ED
Segurtasuna	2.648	2.064	568	0	16	0
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak	(*)					
Espetxeak	(**)					
Osakidetza	230	79	5	114	14	18
Lanbide	7	4	0	0	0	3
Osalan	6	6	0	0	0	0
Arkautiko Akademia	805	334	471	0	0	0
IVAP	2	2	0	0	0	0
GUZTIZKOA	4.511	2.990	1.102	145	66	208

(*) Administrazio-unitate zehatzei esleitzeko ibilgailuak dituzte, eta Baliabide Orokorrak energia-jarduketarako unitateak emandako datuetan jasota daude ibilgailu horiek.

(**) Espetxeen arloko eskumenak duela gutxi hartu direnez, oraindik ez dago informazio hori eskuragarri.


5 Guztizko energia-kontsumoa

5.1 Energia-kontsumoa eraikin eta instalazioetan

5.1.1 Guztizko kontsumoa eraikin eta instalazioetan

EAEko sektore publikoko eraikin eta instalazioetan energia-kontsumoa 485,2 GWh-koa izan zen 2021ean. Energia-kontsumo handieneko energia-jarduketarako unitatea Osakidetza da, EAEko sektore publikoaren guztizko energia-kontsumoaren % 58 Osakidetzari baitagokio. Horren ondoren, «Hezkuntza» (% 14) eta «Segurtasuna» (% 7) daude.

8. irudia. Energia-kontsumoen banaketa energia-jarduketarako unitateen arabera.



5. taula. 2021ean 3 GWh-tik gorako kontsumoa izan duten eraikinak, kontsumoaren arabera zerrendatuak.

Zentroa	Jarduketa-unitatea	Udalerria
Donostia Ospitalea	Osakidetza	Donostia
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	Osakidetza	Barakaldo
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Osakidetza	Bilbo
Galdakaoko Ospitalea	Osakidetza	Galdakao
Eusko Jauriaritzaren Lakuako egoitza	Baliabide Orokorrak	Gasteiz
Arabako Unibertsitate Ospitalea (Txagorritxu)	Osakidetza	Gasteiz
Urdulizko Ospitalea	Osakidetza	Urduliz
Erandioko zentrala	Segurtasuna	Erandio
Arabako Unibertsitate Ospitalea (Santiago)	Osakidetza	Gasteiz
EITBren egoitza Bilbon	EITB	Bilbo
Debagoieneko Ospitalea	Osakidetza	Arrasate
Zumarragako ospitalea	Osakidetza	Zumarraga
EJIEn egoitza	EJIE	Gasteiz
Arabako Unibertsitate Ospitalea (Kanpo Kontsulten Eraikina)	Osakidetza	Gasteiz
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Gasteiz
Mendaroko Ospitalea	Osakidetza	Mendaro
San Eloy Ospitalea	Osakidetza	Barakaldo
Iurretako Basea	Segurtasuna	Iurreta
Gorlizko Ospitalea	Osakidetza	Gorliz
Eibarko Ospitalea	Osakidetza	Eibar
Arabako Ospitale Psikiatrikoa	Osakidetza	Gasteiz
NEIKERren eta HAZIren Arkautiko egoitza	Nekazaritza	Gasteiz
Gernika-Lumoko Ospitalea	Osakidetza	Gernika-Lumo
Berroziko Basea	Segurtasuna	Bernedo
Bidasoko Ospitalea	Osakidetza	Hondarribia
Programen Ekoizpen Zentroa	EITB	Donostia

Hurrengo taulak 2021erako energia-jarduketarako unitateen araberako kontsumoak eta oinarri-urtearekiko (2015a) bilakaera jasotzen ditu.

Taulatik kanpo geratzen dira bi energia-jarduketarako unitate:

- Alokabide. Alokabidek kudeatutako etxebizitza sozialetako kontsumoak jabeen erkidegoei edo etxebizitza berberei lotuta daude, eta, beraz, ez dira EAEko sektore publikoko kontsumotzat hartzen.
- Espetxeak. Eusko Jauriaritzari horien eskumenak duela gutxi transferitu zaizkionez, ez dago energia-kontsumoei buruzko informaziorik.


6. taula. Azken energia-kontsumoa energia-jarduketarako unitateen arabera

Saila/erakundea/sozietatea	Jarduketa-unitatea	2015eko kontsumoa (MWh)	2021eko kontsumoa (MWh)	Aldakuntza Ehuneko	
Lehendakaritza	Lehendakaritza	1.831	1.823	−% 0,4	
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Baliabide Orokorrak	19.508	17.880	−% 8,3	
	EJIE	5.331	6.135	% 15,1	
	Itelazpi	10.544	10.353	−% 1,8	
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumena	Nekazaritza	5.495	5.810	% 5,7	
	Ingurumena	581	704	% 21,3	
	Uraren Euskal Agentzia (URA)	351	253	−% 27,7	
	Portuak	705	672	−% 4,8	
	Euskadiko Kirol Portuak (EKP)	1.102	1.210	% 9,8	
	Parke teknologikoak	8.074	8.697	% 7,7	
	SPRILUR	497	736	% 48,2	
	Industria	7	2	−% 63,2	
	BIC Araba	449	258	−% 42,5	
	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak	Euskal Trenbide Sarea (ETS)	936	793	−% 15,3
		Euskotren	7.873	6.637	−% 15,7
Etxebizitza		2.540	2.158	−% 15,1	
Ekonomia eta Ogasuna	Ogasuna	980	723	−% 26,2	
Hezkuntza	Hezkuntza	61.273	65.570	% 7,0	
Osasuna	Osasuna	2.660	2.951	% 10,9	
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	95	54	−% 42,9	
Kultura eta Hizkuntza Politika	Kultura	1.766	1.829	% 3,5	
	Euskadiko Orkestra Sinfonikoa	10.741	11.331	+% 5,5	
	EITB	281	370	% 31,7	
Segurtasuna	Segurtasuna	36.852	34.059	−% 7,6	
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	12.758	13.400	% 5,0	
	Espetxeak				
Osakidetza	Osakidetza	259.316	281.131	% 8,4	
Lanbide	Lanbide	3.456	3.570	% 3,3	
Osalan	Osalan	967	839	−% 13,2	
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Arkautiko Akademia	5.548	5.206	−% 6,2	
Administrazio Publikoaren Euskal Institutua	IVAP	24	28	% 18,8	
Gutzizkoa		462.540	485.184	+% 4,9	

5.1.2 Energia-kontsumoa


EAEko sektore publikoko energia-kontsumoaren % 48,4 energia elektrikoari dagokio. Gas naturala % 44,3 da, petroliotik eratorritakoak % 5,6 eta energia berriztagarriak % 1,7.

9. irudia. EAEko sektore publikoaren kontsumoaren banaketa, energien arabera




EAEko sektore publikoko 101 zentrok kontsumitzen zuten gasolioa 2021ean, eta 23k, berriz, gas propanoa edo PGLa. Adibide gisa, hurrengo irudiek EAEko sektore publikoko gasolioaren eta gas naturalaren kontsumo-puntuen kokapena jasotzen dute.


10. irudia. EAEko sektore publikoko zentrozen artean gas naturala erabiltzen dutenak.



11. irudia. EAEko sektore publikoko zentrozen artean gasolioa erabiltzen dutenak.



12. irudia. EAEko sektore publikoko zentrozen artean energia berriztagarriak erabiltzen dituztenak.



Energia berriztagarriak erabili eta sortzea


2021ean, energia berriztagarriaren guztizko kontsumoa (autokontsumorako energia fotovoltaikoa, biomasa, aerotermia eta geotermia barne hartuta) 14.961 MWh-koa izan zen, hau da, EAEko sektore publikoko eraikin eta instalazioetako energia-eskari osoaren % 3,1.

Bestalde, eraikinetan autokontsumoekin lotuta ez dagoen ekoizpen berriztagarria gehitzen bada, kopurua 19.270 MWh da, hau da, guztizko energia-kontsumoaren % 4.

Bestalde, EAEko sektore publikoko erosketa-zentralean erositako energia elektrikoaren % 100 jatorri berriztagarrikoa dela bermatuta dago. Energia hori ez da kontuan hartu EAEko sektore publikoan zenbat energia berriztagarri kontsumitzen den kontabilizatzeko.

13. irudia. Eraikinetako kontsumo berriztagarriak.

■ Biomasa ■ Geotermia ■ Aerotermia ■ Autoconsumo



EAEko sektore publikoko eraikinetan aprobetxatutako energia berriztagarrien % 46 aerotermiari dagokio; % 41, berriz, biomassari; % 5, ordea, autokontsumoko energia fotovoltaikoari; eta % 8, azkenik, geotermiari.

Fotovoltaikoa

EAEko sektore publikoko instalazio fotovoltaiko hauek bereizten dira:

- Sarera saltzeko 190 instalazio, 3.052 kW guztira, gehienak Energiaren Euskal Erakundearenak eta EAEko sektore publikoaren mendeko zentroekin lotuak. Instalazio horiek 3.000 MWh inguruko ekoizpena dute urtean.
- Autokontsumorako 20 instalazio (2021aren amaieran 805 kWp guztira), urtean 800 MWh inguru ekoizten dutenak. Instalazio horiek duela gutxi jarri dira martxan, eraikinetako autokontsumo berriztagarriari buruzko araudi berriari jarraikiz, eta honako energia-jarduketarako unitate hauen zentroetan daude:
 - Itelazpi (6)
 - Parke teknologikoak (5)
 - Baliabide Orokorren kudeaketa zentralizatuko eraikinak (2)
 - Segurtasun Saila (2)
 - Kultura (1)
 - Ingurumena (1)
 - EJIE (1)
 - Arkautiko Akademia (1)
 - ETS (1)

Geotermia eta hidrotermia

Apurka-apurka, bero-ponpa erabiltzeko modu oso efiziente gisa ari da ezartzen geotermia eraikinetan; halaber, energia berriztagarriak ari dira sartzen eraikin horietan.

Guztira 19 eraikinek erabiltzen dute teknologia hori, honako energia-jarduketarako unitate hauetan:

- Alokabide (5)
- Osakidetza (3)
- Ingurumena (3)
- SPRILUR (2)
- Lehendakaritza (1)
- Segurtasuna (1)
- Nekazaritza (1)
- Industriak (1)
- Osasuna (1)
- Parke teknologikoak (1)

Gainera, Donostiako EKPre portaaviones eraikinak hidrotermia-instalazio bat du, itsasoko ura energia-foku gisa erabiltzen duena.

Aerotermitia

EAEko sektore publikoan aerotermitia bidez sortzen den beroaren estimazioa egin da. Aplikatu beharreko araudiaren arabera, bero-ekoizpenaren zati bat berriztagarritzat jotzekoa litzateke urtaroko errendimendu-koefizientea 2,5etik gorakoan denean.

Beroa sortzeko sistema aerotermikoak daude 170 eraikinetan; horietan, energia berriztagarrien urteko ekoizpena 6.889 MWh izango dela aurreikusten da.

Biomasa

Biomasa-galdarak dituzte energia-jarduketarako unitate hauetako 10 eraikinek:

- Segurtasuna: Berroziko Basea.
- Osakidetza: Gorlizko, Galdakaoko, Santa Marinako eta Txagorritxuko ospitaleak. San Martingo Osasun Zentroa
- Euskotren: Zumaiako autobus-tailerra.
- Nekazaritza: Neikerren egoitzak Arkautin eta Derion.
- Hezkuntza: Bigarren Hezkuntzako institutuak Abadiñon eta Arkautin.

Eguzki-energia termikoa


Eguzki-energia termikoa ez da oso garrantzitsua, ur bero sanitarioa sortzeko erabili ohi delako. Alokairu sozialeko 62 eraikinek (Etxebizitza eta Alokabide) halako instalazioak dituzte. Eguzki-energia termikoko instalazioak alokairu babestuko 12 sustapenetan jarri dira 2016az geroztik. Gainera, Alokabidek Zabalgan, Arrasaten eta Muskizen dituen instalazioak ordeztu edo berritu egin dira.

Halaber, Segurtasun Saileko 2 zentrok eguzki-energia termikoa dute.

5.1.3 Kontsumoa, erabileren arabera

Egindako energia-auditorien ondorioz, energia-kontsumoaren erabileraren arabera banaketaren estimazioak egin dira ikuskatutako eraikin bakoitzean.

14. irudia. Energia-kontsumoaren banaketa, erabileren arabera, EAEko sektore publiko osorako.




5.1.4 Eraikin eta instalazioetako kontsumoaren bilakaera

EAEko sektore publiko osoan, azken energia-kontsumoa % 4,9 igo da 2015etik 2021era (ezarritako helburuak betetzeko oinarri-urte gisa ezarri zen 2015a).

Kontuan hartuta JELeK 2030erako kontsumoa % 35 murrizteko helburua ezartzen duela —horrek % 2,3ko murrizketa esan nahi du 2015-2030 aldirako—, ikusten da joera urrun dagoela helburu hori betetzeko bidetik.


Alabaina, kontuan hartu behar da 2020a 2021a ez direla oso urte adierazgarriak izan, COVID-19aren pandemiaren ondorioz energia-kontsumoaren egoera ez baitzen normala izan. Alde batetik, 2020an kontsumo txikiagoak izan ziren sektore askotan, martxotik maiatzera bitartean zentro asko itxita egon zirelako. Bestetik, 2021ean hotz-hilabeteetako berokuntza-kontsumoak normalak baino handiagoak izan ziren, aireztapen-premiak handiagoak izan baitziren (kutsatzeak saihestu behar ziren).

15. irudia. Kontsumoaren bilakaera eta 4/2019 Legean ezarritako helburuak betetzeko bidea



Nahiz eta energia-jarduketarako unitate askotan zifrek agerian uzten duten kontsumoa helburuen arabera dela, kontsumo handieneko unitateetan oraindik ez da ikusten joera-aldaketa argirik. Hurrengo irudian, energia-jarduketarako unitate garrantzitsuenen kontsumoaren bilakaera jaso da.

16. irudia. Kontsumoaren bilakaera kontsumo handieneko energia-jarduketarako unitateetarako (2015 = 100 indizea)



Kontuan izan behar da, halaber, kontsumoaren igoera eskaintako zerbitzuen hazkundeagatik izan dela hein batean, zentro berriak ireki baitira eta, horrenbestez, energia-kontsumoa handiagoa delako. Horri dagokionez, Osakidetza Urdulizko eta Eibarko ospitaleak jarri ditu martxan, eta horrek erakundearen kontsumoa % 4,8 handitzea ekarri du.

EAEko sektore publikoaren eskumenen esparruan, herritarrei eman beharreko hainbat zerbitzurekin lotutako premia tekniko eta materialen ondorioz, eraikinen eta instalazioen parkeak aldatetak izaten ditu zentro eta instalazio jakin batzuk irekitzean edo ixtean.

Jardueraren adierazle erabilgarri bat da zentroetan aire-girogailuek hartzen duten guztizko azalera (% 4,9 handitu da 2015-2021 aldian).

Lortutako aurrezpen energetikoei balioa emate aldera, eta zentro berriak irekitzeak edo daudenak handitzeak eraginik izan ez dezaten, energia-kontsumoaren kWh-ak hartuko dira adierazle erlatibo gisa, aire-girogailuek hartzen duten azalera m² bakoitzeko eta urte bakoitzeko.

7. taula. EAEko sektore publikoaren kontsumo orokorra, aire girotua duen azaleraren metro karratuko.

Urtea	Kontsumoa eraikinetan (GWh)	Aire girotua duen azalera (m ²)	Azalera-unitate bakoitzeko kontsumoa (kWh/m ²)
2015	462,5	2.737.476	168,9
2021	485,2	2.884.054	168,2

Ikusten denez, 2015-2021 aldian guztizko kontsumoak gora egin duen arren, metro karratu bakoitzeko kontsumoa ia konstante mantendu da.

5.2 Energia-kontsumoarekin lotutako sortutako CO₂ emisioak


EAEko sektore publikoak 2021ean 137.908 tona CO₂ aireratu zituen eraikin eta instalazioetako energia-kontsumoarekin lotuta. Hau da, 2015ean baino % 2,9 gehiago.

5.3 Eraikin publikoetako energia-kontsumoaren kostua

EAEko sektore publikoko eraikin eta instalazioetako energia-kontsumoaren kostu osoa 62,7 milioi eurokoa izan zen 2021ean. Zifra hori zehazteko, ikusitako kontsumoak eta EAEko sektore publiko osorako zenbatetsitako batez besteko kostuak hartu dira kontuan.

Hurrengo grafikoak energia-kostuaren banaketa jasotzen du, energia motaren arabera. Energia elektrikoaren kostua guztizkoaren % 77 da.

17. irudia. Energia-kostuen banaketa, energia moten arabera



6 2030erako eta 2050erako helburuak

6.1 Kontsumo-murrizketarekin eta energia berriztagarriekin lotutako helburuak 2030ari eta 2050ari begira

EAEko sektore publikoak energia aurrezteko finkatutako helburuak, JELen zehazten den bezala, honako hauek dira: energia-kontsumoa % 60 murriztea 2050erako; eta horren aurretik, 2030erako, % 35 murriztea.

Gainera, EAEko sektore publikoak bere eraikinetatik hurbileko instalazioak eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak izan behar ditu 2030erako, dela zuzenean dela energia ekoizten duten erakundeetan parte hartzeagatik, urteko kontsumoaren % 32ren baliokidea den energia ekoizteko.

EAEko sektore publikoaren jarduketan honetan jasagarritasun energetikorako ezarritako helburuak honako hauek dira:

8. taula. EAEko sektore publikoaren jasagarritasun energetikorako helburuak

	2015	2021	2030erako helburua	2050erako helburua
Energia-kontsumoa (GWh)	462,4	483,0	300,7	184,9
Energia-kontsumoa murriztea	--	–% 4,9	% 35	% 60
Energia berriztagarriak (GWh)	11,8	19,3	96,2	Klima-neutraltasuna
Energia berriztagarriak guztizko eskariaren barnean	% 2,5	% 3,9	% 32,0	

Eraikinetan energia berriztagarrien potentziala aztertu ondoren, berriztagarrien ekoizpena banakatu egin da (izan ere, hori beharrezkoa da 2030ean % 32ko helburua betetzeko); jarraian zehazten da banakapen hori.

9. taula. Energia berriztagarrien 2030erako helburuen banakapena (MWh)

	2015	2021	2030erako helburua
Biomasa	1.821	6.148	15.081
Fotovoltaikoa, autokontsumorako	8	795	26.500
Besteei fotovoltaikoa eta berriztagarriak saltzea	2.937	4.019	28.500
Aerotermita	6.889	6.889	16.071
Geotermita	696	1.104	10.286
Berriztagarriak guztira	12.351	18.955	96.438

6.2 Kalifikazio energetikoaren hobekuntza-helburua

JELen 19. artikulua araberan, EAEko sektore publikoak B mailara iritsi arte hobetu behar du kalifikazio energetikoa 2030erako, kalifikazio hori ez duten eraikinen % 40rentzat gutxienez.

Helburua lortzeko, B letraraino hobetu beharko da eraikinen % 37ren kalifikazioa 2030era arte; bestela esanda, azalaren banaketa proportzionala eginez, urtean azalera osoaren % 4. Helburu hori lorgarritzat jotzen da, plan honetan jasotako argiztapenaren, galdaren eta ingurutzailen aldaketetan eta ezarpen fotovoltaikoan aurreikusitako jarduketak kontuan hartuta.

7 Jarduketa-plana

Arestian adierazitako helburuak lortzeko, EAeko sektore publikoak jarduketa multzo bat landuko du, lau kategoriatan eta 14 jarduketa-lerrotan banatuta. Irizpide orokor gisa, inbertsioa berreskuratzeko energia- eta ekonomia-ratio onenak lortzeko jarduketak lehenetsiko dira.

Berriztagarrien helburua betetzeko jomugan aurrera egiteko, energia fotovoltaikoaren, eguzki-energia termikoaren, biomasaren, aerotermiaren, geotermiaren eta hidrotzermiaren erabilera hartuko da kontuan, kontuan izanik zein egokitzen den hobekien dagokion zentro- edo instalazio motara. Oraingoz, ez da aurreikusten bestelako energia berriztagarririk erabiltzeko aukera (minieolikoa, olatuen energia, hidrogeno berriztagarria...), ezta energia-biltegitzerik ere, heldu gabe dagoelako eta/edo garestia delako.

JARDUKETA-PLANAREN LERROAK

Eraikinetako eta instalazioetako efizientzia energetikoaren arloko jarduketak

- L1. Eraikinen inguratzailak birgaitzea
- L2. Argiteria eta argiztapena hobetzea
- L3. Banaketa termikorako eta aireztapenerako sistemetan hobekuntzak txertatzea
- L4. Kudeaketa energetikoa
- L5. Etxebizitza publikoan jarduketak gauzatzea
- L6. Telekomunikazio-zentroetako hobekuntzak

Berriztagarriak ezartzearen eta erregai fosilak ordeztearen arloko jarduketak

- L7. Erregai fosilak ordeztea
- L8. Bero-ponpak ezartzea eta klima-sistemak hobetzea
- L9. Biomasa bidezko sorkuntza termikoa
- L10. Energia fotovoltaikoa ezartzea
- L11. Eguzki-energia termikoa ezartzea
- L12. Kogenerazio-instalazioak kudeatzea

Mugikortasun jasagarriaren arloko jarduketak

- L13. Ibilgailuak eta mugikortasun-zerbitzuak

Prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren arloko jarduketak.

- L14. Prestakuntza eta sentsibilizazioa

7.1 Eraikinetako eta instalazioetako efizientzia energetikoaren arloko jarduketak

1. Ierroa. Eraikinen ingurutzailak birgaitzea

JELen energia-kontsumoa murriztearekin eta eraikinen kalifikazio energetikoa hobetzearekin lotuta jasotako helburuak erdiesteko, erabakigarria da existitzen diren eraikinen ingurutzailak termikoa hobetzea. EAEko sektore publikoko eraikin askoren antzintasuna dela-eta, haien ingurutzailak termikoak gaur egun transmitantzia termikorako eskatzen diren baldintzak baino askoz estandar txikiagoekin eraiki ziren.

Birgaitzeak Eraikuntzako Kode Teknikoaren (EKT) betekizunen arabera egin behar dira. Indarrean jarri zenetik (2006an) azken aldiz berrikusi den arte (2022an), kode horrek nabarmen handitu ditu eraikinek (lehendik daudenek zein berriek) bete beharreko eskakizun termikoak. Ezarri egin da m² bakoitzeko zenbat kontsumituko ahalko den gehienez, eta itxituren (fatxadak, estalkiak, zoruak, leihoak, etab.) transmitantzia termikoak ere mugatu egin dira. Horri esker, eraikinek nabarmen berokuntza gutxiago behar du. Baliteke horren ondorioz hozkuntza gehiago behar izatea, bereziki, barne-karga altuko hirugarren sektoreko eraikinetan. Hori dela-eta, EKTk, azken bertsioetan, eguzkia kontrolatzeko sistemen –hala nola toldo edo biseren– azterketa ere barne hartzen du.

Barne-karga altua duten eta hozkuntza asko behar duten eraikinetan –ospitaleetan, adibidez–, instalazio termikoak berritzeko jarduketak lehenetsiko dira ingurutzailak termikoa hobetzeko jarduketan aurretik.

Jeneralean, eraikinen ingurutzailak hobetzeko jarduketak honako hauek izango dira:

- Isolamendu termikoa jartzea ingurutzailak termikoa osatzen duten itxitura opakoetan (fatxadak, estalkiak, lurzoruak eta esparru bizigarriak eta ez-bizigarriak bereizten dituzten itxiturak). Fatxadetan isolamendua txertatzeko, isolamendu-sistemak erabili ahalko dira nola kanpotik (KITS, fatxada aireztatua edo antzekoa) hala barrutik, estradosatuen bidez. Kasuren batean, isolamendu-injekzioak ere planteatu litezke aire-ganberetan, baldin eta egitura-egoera onean badaude. Estalkietan, isolamendua nola kanpotik hala barrutik sartu ahalko da, sabai aizunen medioz.
- Beirak, kanpoko arotzeriak eta pertsiana-kutxak efizienteagoak eta estankoagoak diren beste batzuekin ordeztzea.
- Hozkuntza-premiak murrizteko beste neurri pasibo batzuk sartzea, bereziki eguzki-irabazkiak mugatzeko ingurutzailak hobetu ondoren (adibidez, toldo, bisera, beirak babesteko xafla, zuhaitz hostoerorkor eta abarren medioz) premia horiek handitu egingo direla aurreikusten denean.

Teknikoki eta ekonomikoki posible den guztietan, EAEko sektore publikoko eraikinetan gauzaturiko eraberritze eta birgaitzeetan, EKTk eraikin berrietarako eskatutako mugak beteko dira ahal den heinean (hots, eraberritze eta birgaitzeetarako eskatzen diren mugez haraindi joango da). Bete beharreko jarraibide orokor gisa, jarduteko irizpide hauek ezartzen dira aire girotua duten eraikinetarako:

- Estalkietan jarduten denean, isolamendu termikoa jarriko da, dela teila berriak ipiniz, dela xafla iragazgaitza ordezkaturak, dela konponketa handi bat eginez.

- Fatxada edo patioen itxituretan aldamiaoa instalatzea eskatzen duten jarduketak egitea aurreikusten denean (adibidez, pitzadurak, hutsuneak edo mortero-altzatzeak konpontzea), horien birgaitze energetikoa egiteko aprobeztatuko da aukera.
- Kanpoko arotzeriak hobetzen direnean, ordezkapen osoak lehenetsi beharko dira (profilak + beira). Ahal dela, ez da beira ordezkatu, salbu eta existitzen diren profilak kontserbazio-egoera onean badaude eta ZTH badu beirak. Pertsiana tradizionalak izanez gero, pertsiana *monoblockekin* ordezkatu dira ahal dela.
- Inguratzaile termikoa hobetzeko jarduketan barruan, lehentasuna emango zaio arotzeriak berritzeari eta estalki, fatxada eta itxituretan isolamendua sartzeari, lurra ukitzen duten lurzoruen isolamendu termikoaren aurretik. Berokuntzarik gabeko beheko gunek ukitzen dituzten lurzoruetan, beheko gunearen sabaian isolamendua jartzea lehenetsiko da, gehienetan bideragarritasun tekniko eta ekonomiko handiagoa izaten duelako aukera horrek.

Inguratzaile termikoak osatzen dituzten itxituren gainean jardutean energia-aurrezpen hauek lortzen direla kalkulatu da²:

- Leihoak ordezteak: % 10eraino.
- Hobekuntzak inguratzailean, zubi termikoak kendu gabe (injekzioak aire-ganberan): % 10-15.
- Hobekuntzak inguratzailean, zubi termikoak kendu gabe (KITS, fatxada aireztatua, etab.): % 20-30.

2030 eta 2050erako helburu energetikoak ezartze aldera, kalkulatu da EAEko sektore publikoko eraikinen parkearen % 10 inguru 2006ko edo geroagoko EKTren bati jarraikiz eraikitako eraikinez osatuta dagoela; horregatik, ez da aurreikusten horien inguratzailean jarduketarik gauzatzea 2050a baino lehen. Era berean, 1979ko EOaren eta 2006ko EKTaren artean edo 1979ko EOaren aurretik eraikitako EAEko sektore publikoko eraikinen parketik, eraikinen % 20k noizbait birgaitze partzialak egin izan ditu inguratzaileetan edo horietako batzuetan.

EAEko sektore publikoko eraikinen multzoak baliteke 3.780.000 m²-ko itxituren (fatxadak, estalkiak eta lurzoruek) azalera opakua eta 450.000 m²-ko kristalezko azalera izatea³.

² Existitzen diren eraikinetan ziurtagiri energetikorako programen bidez egindako simulazioen arabera dira. Kalkuluetan ez da kontuan hartu lurzoruetan isolamendu termikoa sartu izana. Aurrezpen horiek oso hotz gutxi (edo batere hotzik ez) behar duten eraikinei dagozkie.

³ Ez dira kontuan hartu Alokabideren inguratzaile-azalerak, hark bere azterlan propioa baitu.

1. lerroa. Eraikinen inguratzaileak birgaitzea

<p>Helburuak</p>	<p>2030a baino lehen:</p> <ul style="list-style-type: none"> Baldintza txarrenetan dauden kanpoko azalera beiradunak ordeztea, baita beira monolitikoak edo zubi termikoaren hausturarik gabeko arotzeriak dituztenak ere, baldin eta bero-galera handiak eragiten badituzte. Zenbatetsi da 120.000 m² azalera kristaldun ordeztuko dela, hau da, parke osoaren % 26. Baldintza txarrenetan dauden itxitura opakuztuen % 10 birgaitzea, hau da, 376.000 m² inguru. <p>2030etik 2050era</p> <ul style="list-style-type: none"> 2006ko EKTaren aurreko gainerako kristalezko azaleren artean ordeztu ez zirenak birgaitzea. Kalkuluen arabera, 124.000 m² inguru izango lirateke, hau da, guztizkoaren % 28. EAEko sektore publikoko itxitura opakuztuen % 67 birgaitzea. Kalkuluen arabera, 2.500.000 m² inguru izango lirateke.
<p>Jarduketa</p>	<p>Deskribapena</p>
<p>1.1 Inguratzaile termikoaren kanpoko arotzeriak birgaitzea.</p>	<p>Eraikinetako kanpoko arotzeriak osorik edo partzialki birgaitzea, EKTra egokitzeko, eta profilak, beirak eta pertsiana-kutzak erabat ordeztea.</p>
<p>1.2 Inguratzailearen itxitura opakuztuen birgaitzea.</p>	<p>Eraikinen inguratzailea osorik edo partzialki birgaitzea, EKTra egokitzeko, fatxadak, estalkiak eta lurzoruak barne hartuta. Lehenetsia emango zaie eraikin zaharrenetan, galera termiko handieneko eraikinetan eta kontserbazio kaxkarreneko egoeran dauden eraikinetan egiteko jarduketeki; halaber, lehenetsia emango zaie eraikin osoen gaineko jarduketeki.</p>

Inbertsioak eta plangintza			
Jarduketa	Inbertsioak (milioi euro)	Urteko aurrezpena (MWh)	Epeak
1.1 Inguratzalearen kanpoko arotzeriak birgaitzea. I. fasea.	53,7	12.833	2023-2030
1.1 Inguratzalearen kanpoko arotzeriak birgaitzea. II. fasea.	55,9	13.357	2030-2050
1.2 Inguratzalearen itxitura opakua birgaitzea. I. fasea.	56,4	9.647	2023-2030
1.2 Inguratzalearen itxitura opakua birgaitzea. II. fasea.	382,1	65.300	2030-2050
Gutzizkoa	548,1	101.137	

2. Ierroa. Argiteria eta argiztapena hobetzea

Azken urteotan, LED lanparen teknologia nagusitu da argiztapen-aplikazio orokorretan. Horrenbestez, pixkanaka-pixkanaka, EAEko sektore publikoko eremu guztietan, eraikinen barne- eta kanpo-argiteria guztia –argiteria publikoa– teknologia horretara transformatzen ari da. Hori da, nolabait, jasangarritasun energetikoaren neurri eraginkorrena, ezartzen erraza delako eta bizkor amortizatzen delako ekonomikoki. Existitzen diren lanparak eta luminariak LED teknologiarekin ordezkatzeak honako onura hauek dakartza, besteak beste:

- Kontsumoa eta kontratatutako potentzia murrizten da, LED teknologiaren bidez posible baita behar den argi guztia ematea energia gutxiago gastatuz.
- Luminarien balio-bizitza eta mantentze-gastuak handitzen dira.
- Argitasun-maila handiagoa ekartzen da.
- Argiztapen-ekipoetan bero-emisioa murrizten da.
- Ekoizpen kromatikoaren indize ona ahalbidetzen du.

Barne-argiteria EAEko sektore publikoko eraikinen energia-kontsumoaren % 13 inguru da. LED teknologia ezarri gero, asko aurrezten da; hala, kontsumoa % 50eraino murrizten da fluoreszente batekin alderatuta; gainera, 7ko faktorea lortzen da halogeno batekin alderatuta edo 8ko faktorea goritasun-lanpara batekin konparatuta.

Efizientzia energetikorako neurrien artean, lehenetsi egin behar da luminaria zaharrenen eta efizientzia txikienekoen ordez luminaria berriak edo LED teknologikoak instalatzea. Kasu bakoitzean, aztertu egingo da komenigarria ote den lanparak edo luminariak osorik ordeztea, eta, hala badagokio, presentzia-sentsoreak eta erregulazio-sistema automatikoak instalatzea, argi naturala gehiago aprobetxatzeko eta batere erabiltzen ez diren edo soilik noizean behin erabiltzen diren areto eta eremuetan argiztapenik ez dadin erabili.

EAEko sektore publikoak kanpo-argiteria publikoko instalazioak kudeatzen ditu, batik bat portuetan eta parke teknologikoetan. «Portuak eta Parke Teknologikoak» energia-jarduketarako unitateek beren argiteria publikoko sistemen auditoriak egin dituzte, eta

hobekuntza-jarduketak ezartzeko moduan daude. Jarduketa horiek luminariak ordezkatzean dautza, besteak beste, LED bihurtzeko, bai eta erregulazio- eta kontrol-sistemak instalatzea ere, erabiltzaileen –eta, oro har, herritarren– segurtasuna bermatze aldera, araudian jasotako gutxieneko argiztapen-estandarrak betez betiere.

2. Ierroa. Argiteria eta argiztapena hobetzea			
Helburuak	Eraikinen eta instalazioen barneko eta kanpoko argiteria guztia LED motako argiekin ordezteko 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen, salbu eta efizientzia handiko luminaria fluoreszenteak, horien ordezkapena 2030eko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango baita. Argiteria publikoa 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen LED motako argiekin ordezteko.		
Jarduketa	Deskribapena		
2.1 Eraikin eta instalazioetako argiztapenaren ordezkapena LED jartzea eta argiztapenaren kudeaketan hobekuntzak egitea.	EAEko sektore publikoko zentroetako eta instalazioetako barruko eta kanpoko argiztapen guztia LED sistemekin ordezteko. Efizientzia energetikorako irizpideei jarraituz, kontserbazio-egoera onean dauden eta T5 motako (16 mm) lanpara fluoreszenteak erabiltzen dituzten luminarien ordezkapena luzatu ahal izango da. Presentzia-sentsoreak eta erregulazio-sistema automatikoak instalatzea, erabiltzen ez diren edo argiztapen naturala duten eremuetan argiztapenik ez erabiltzeko.		
2.2 Kanpoko argiteria publikoa LED argiekin ordezteko.	EAEko sektore publikoak kudeatutako kanpoko argiteria publiko guztia LED argiarekin ordezteko.		
Inbertsioak eta plangintza			
Jarduketa	Inbertsioak (milioi euro)	Urteko aurrezpena (MWh)	Epeak
2.1 Eraikin eta instalazioetako argiztapenaren ordezkapena LED jartzea eta argiztapenaren kudeaketan hobekuntzak egitea.	22,5	17.441	2023-2030
2.2 Kanpoko argiteria publikoa LED argiekin ordezteko.	1,3	779	2023-2030
Guztizkoa	23,8	18.220	

Oharra. Taula honetan ez dira sartu telekomunikazio-zentroetako hobekuntzak.

3. Ierroa. Banaketa termikorako eta aireztapenerako sistemetan hobekuntzak txertatzea

Batzuetan, eraikinetan berokuntzarako eta/edo airea girotzeko instalaturiko sistemek ez dute behar bezala funtzionatzen, hainbat arrazoiengatik; esate baterako, hasieran aurreikusitakoaz bestelako erabilera bat ematen zaiolako, egungoez bestelako estandarretan funtsatutako diseinu batengatik edo eraikina handitu egin dutelako. Hona hemen sistema horietan egin daitezkeen zenbait hobekuntza:

- CO₂-zunden bidez, efizientzia handiagoz erregula dezakegu aire-girogailuen funtzionamendua, eta, gainera, denbora errealean gure instalazioetan mantendutako airearen kalitatea adierazten digun parametro bat izan dezakegu.
- Airea girotzeko instalazioetako zirkuitu primarioetako ponpek ez dute energia gutxi kontsumitzen; horrenbestez, halakoak zaharkituta geratu direlako efizientzia handiagoko beste ekipo batzuekin –zenbait kasutan, gainera, abiadura-erregulagailuak dituztenekin– ordeztuz gero, aurrezpen nabarmena izango dugu. Kasu batzuetan, beharrezkoa da zirkulazio-ponpak efizientzia handiagoko ekipoekin ordezte, abiadura-erregulagailuak izanik ere.
- Eraikin batzuek bulkada-haizagailuak dituzte aireztapen-premiak betetzeko, erauzketa-airearen beroa edo hotza berreskuratu gabe. Horregatik, erauzketa-airea garraiatzeko energia aprobetxatzen duten berreskuratzaileak instalatzeko aukera kontuan hartu behar da bulkada-airea leuntzeko.
- Hodiak, andel metatzaileak, ponpa zirkulatzaileak, trukagailuak eta gainerako elementuak isolatzea edo hobetzea.

Bestalde, tenperatura baxuko bero-sareak garatuz hurbileko zentroen artean sinergiak sortzeko aukera dago, eraikinen deskarbonizazioan aurrera egite eta bero-ponparen ezarpena sustatze aldera. Sare horiek lotzen dituzten eraikinetako aerotermia, geotermia, eguzki-energia termikoa edo biomasa instalazioez elika daitezke eta foku hotza edo beroa ekar dezakete, kasuan-kasuan, nola berokuntzarako hala hozkuntzarako. Horregatik, EAEko sektore publikoa ahalegindu egingo da lankidetzak aukerak detektatzen eta bultzatzen, barruan ez ezik, energia-jarduketarako unitateen artean eta kanpoan ere (hots, EAEko beste administrazio publiko batzuekin, sektore pribatuko enprekin edo etxebizitza-jabeen erkidegoekin, besteak beste), halako sareak garatze aldera.

3. lerroa. Banaketa termikorako eta aireztapenerako sistemetan hobekuntzak txertatzea

Helburuak	Banaketa-sistematan etengabeko hobekuntzak txertatzea, garapen teknologikora eta sorkuntza-ekipo berrietara egokitzeko. Administrazio publikoetako zentrozen sinergia posibleak aprobetxatzea.
Jarduketa	Deskribapena
3.1 Banaketa termikorako eta aireztapenerako sistemetan hobekuntzak txertatzea.	Hobekuntzak sistemen efizientzia sustatzeko hainbat alderditan: <ul style="list-style-type: none"> • Aireztapen-sistematan bero-berreskuratzaileak instalatzea. • Zirkulazio-ponpak kendu eta ekipo efizienteagoak eta abiadura-erregulagailuak instalatzea. • Hodien eta aire-hodien isolamendua hobetzea. • Banaketa-zirkuituen sektorizazioa. • Aireztapen-premiak kontrolatzeko CO₂-zundak ezartzea.
3.2 Temperatura baxuko bero-sareak sustatzea.	Eraikin publikoak temperatura baxuko bero-sareen bidez konektatzeko potentzialak aztertzea, airea girotzeko sistemen arteko sinergiak aprobetxatzeko.

Inbertsioak eta plangintza

Jarduketa	Inbertsioak (milioi euro)	Urteko aurrezpenak (MWh)	Epeak
3.1 Banaketa termikorako eta aireztapenerako sistemetan hobekuntzak txertatzea.	10	8.000	2023-2030
3.2 Temperatura baxuko bero-sareak sustatzea.	5	2.000	2030-2050
Gutzikoa	15	10.000	

4. lerroa. Kudeaketa energetikoa

Kudeaketa energetikoari dagokionez, honako helburu hauek izan behar ditu: batetik, abian jarri diren kudeaketa energetikorako tresnen –3.3 apartatuan deskribatu direnen– erabilera garatzea eta zabaltzea; eta bestetik, kudeaketa energetikorako sistemak (KES) ezartzea.

Kudeaketa energetikorako plataformek energia-kontsumoei buruzko informazioa biltzeko balioko dute, teleneurketa-sistemen medioz. Baliabide Orokorren Zuzendaritzak kudeatutako sistemak EAEko sektore publikoaren elektrizitate-kontsumoko gunen nagusiei buruzko informazio espezifiko du. Baliabide Orokorren Zuzendaritzak kudeatutako sistemak honako apartatu hauek ditu:

- Hornidura-puntuak. Hornidura-puntu monitorizatuak identifikatzea.
- Hornidura-puntu bakoitzerako kontsumoa: konparazioak hilabeteka eta tarifa-denboraldiaren arabera, eguneko edo hileko potentzia-faktorearen bilakaera, denboratarte jakin baterako karga-kurbak, energia aktiboa eta erreaktiboa, hileko gehieneko potentzia tarifa-denboraldiaren arabera eta kontratatutako potentziarekiko alderaketa.
- Sail bakoitzerako edo kontsumo-puntuen multzo bakoitzerako: kontsumoaren urteko alderaketa, hornidura-puntu guztietarako, hilabeteka; eraikin bakoitzaren kontsumoari buruzko txostena, hilabeteen eta tarifa-aldiaren arabera.
- Kontratutako tarifa optimizatzeko tresna.

Energiaren Euskal Erakundeak, gainera, EAEko sektore publikoko eraikin eta instalazio guztietarako urteko kontsumoak (energia moten arabera) biltzen dituen plataforma bat ere badu.

Bestalde, Kudeaketa Energetikorako Sistema (KES) erakunde batean energia-politika eta helburuak garatu eta ezartzeko tresna bat da, energiaren erabilerarekin elkarreraginean diharduten jarduera, produktu edo zerbitzuetako elementu guztietako hobekuntza posibleak kudeatzeko eta detektatzeko ere balio duena. KESek aurrezpen energetikoak ahalbidetzen dituzte, eta, kasu batzuetan, kudeaketan oinarritutako hobekuntzei esker gertatzen dira, baina ez dute zertan aurrekonturik behar. Adibidez, efizientziarik ezak eragindako alferrikako kontsumoak detektatzea, kontsumoak kontrolatuz eta kontsumoei jarraipena eginez.

Jasangarritasun energetikoak eta ingurumenekoak administrazio publikorako azaleraren hazkunde mugatzea dakar berekin. Izan ere, herritarrari emandako zerbitzuak hobetzeko, batzuetan ezinbestekoa da egoitza berriak irekitzea, baina egoitza berriak irekitzeak kontsumo handitzea dakarrenean, premia hori behar bezala justifikatu behar da.

Bestalde, helburua EAEko sektore publiko osoaren energia-kontsumoa murriztea denean, egoitzak egoera hobean diren eraikinetara lekualdatzea izan liteke eraikinen birgaikuntzaren alternatiba bat.

4. lerroa. Kudeaketa energetikoa

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio-sistemak eta kudeaketa-plataformak garatzea eta zabaltzea, baliagarriak izan daitezen hobekuntza-aukerak identifikatzeko eta jarduketan emaitzak neurtzeko. • Eraikinen eta instalazioen kudeaketa osoan, jasangarritasun-irizpideak oro har aplikatzea.
-----------	--

Jarduketa	Deskribapena
4.1 Kudeaketa-plataformak handitzea eta hobetzea.	EAEko sektore publiko osorako kudeaketa-plataforma orokorrak mantentzea eta etengabe hobetzea: Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren teleneurketa-plataforma eta Energiaren Euskal Erakundearen energia-kontsumoen inbentarioa.
4.2 Instalazio termikoak kudeatzeko sistemak handitzea eta hobetzea.	Instalazioen kudeaketa zentralizaturako eta zentroetako zirkuitu elektriko nagusien denbora errealeko energia-kontsumoen monitorizaziorako sistemak ezartzea eta hobetzea.
4.3 Kontratututako potentzien etengabeko berrikuspena.	Baliabide Orokorren Zuzendaritzak –energia elektrikoaren erosketa zentralizatuaren arduradunak– EAEko sektore publikoaren kontratu guztietarako kontratatutako potentzia elektrikoak 2 urtean behin berrikustea.
4.4. Energia-auditoriak eta ziurtagiriak eguneratuta mantentzea.	Lau urtean behin eraikinen energia-auditoriak egitea, eta energia-ziurtagiriak 10 urtean behin berritzea ⁴ .
4.5 Jarduketa-protokoloak zehaztea.	EAEko sektore publikoko eraikinak kudeatzeko nahitaez bete beharreko irizpideak edo gomendioak ezarriko dira. Egoitza berriak irekitzeko, halaber, jasangarritasun energetikorako irizpideak ezarriko dira.

⁴ Berrikuntza edo zabalkunderen bat egiten den bakoitzean ziurtagiri energetikoa eguneratu beharra otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan jasotzen da (25/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa). Betebehar hori izango dute honako kasu hauetakoren bat betetzen duten eraberritze eta zabalkuntzek:

- Instalazio termikoak ordeztzea, instalatzea edo berritzea, baldin eta instalazio termikoen proiektu bat egin edo aldatu behar bada, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretu bidez onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Gainera, eraikinaren azken ingurutzailer termikoaren azalera osoaren % 25ean baino gehiagotan esku hartzea.
- Esku-hartzearen xede den erabilera-unitatearen edo unitateen azalera edo bolumen eraikia % 10etik gora handitzea dakarren zabalkundea, handitutako guztizko azalera erabilgarria 50 m²-tik gorakoa denean.
- Eraikinaren alderdi jakin batzuetan aldaketak gertatzea, baldin eta kalifikazio energetiko desberdina ezartzen dutelako Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiria aldatzeko arriskua badakar horrek.
- Egiten den jardueraren erabilera edo intentsitatea aldatu eta horrek efizientzia energetikoaren kalifikazioaren mailan eragina duenean.

Inbertsioak eta plangintza			
Jarduketa	Inbertsioak (milioi euro)	Urteko aurrezpena (MWh)	Epeak
4.1 Kudeaketa-plataformak handitzea eta hobetzea.	0,3	4.800	2023-2030
4.2 Instalazio termikoak kudeatzeko sistemak handitzea eta hobetzea.	1,5	1.125	2023-2030
4.3 Kontrataturako potentzien etengabeko berrikuspena.	0,1	--	2023-2030
4.4. Energia-auditoriak eta ziurtagiriak eguneratuta mantentzea.	2,1	4.800	2023-2030
4.5 Jarduketa-protokoloak zehaztea.	--	--	2023-2030
Guztizkoa	4,0	10.725	

5. lerroa. Etxebizitza publikoan jarduketak gauzatzea

2020an, *ZERO Plana*⁵ onartu zen; EAEko sektore publikoko alokairuko etxebizitza publikoen parkea analizatu zen plan horretan.

Etxebizitza publikoan jarduteko plana honako gogoeta hauetan oinarritzen da:

Energia berriztagarriei dagokienez, hau proposatzen da:

- Dauden eguzki-sistemak optimizatzea eta, instalatzeko aukera fisikoak eskaintzen dituzten kasuetan, zabaltzea.
- Galdara indibidualen parkea masiboki berritzea, arotermia indibidualeko sistemak edo kondentsazio-galdara efizienteak lehenetsita.
- Eremu komunetan eta/edo indibidualetan energia aprobetxatzeko sistema fotovoltaikoak ezartzeko hausnarketa estrategikoa egitea.

Kostaldetik gertu egonik berogailua eta UBS indibiduala duten etxebizitzetan honako hau proposatzen da:

- UBSrako eta berokuntzarako arotermia indibiduala.
- Eskaria asko jaitsi bada, erradiadoreak Joule efektuagatik elektrikoak izatea ere planteatu liteke, eta arotermia UBSrako soilik erabiltzea.

⁵ Zero Planari buruzko informazio gehiago: <https://www.alokabide.euskadi.eus/aa10-eje501/es/>

Kostaldetik gertu egonik eguzki-kolektore termikorik ez baina berogailua eta UBS zentralizatua duten etxebizitzetan, alternatiba hauek aztertzea proposatzen da:

- Eguzki-kolektoreak instalatzea, estalki laua badago eta gela teknikoetan lekua dagoelako egingarria bada.
- UBSari laguntzeko aeroterminia (ekoizpen zentralizatua) eta berokuntzarako gas-galdaren ordez kondentsazio-galdarak baliatzea. Berokuntzarako ura tenperatura baxuagoan banatuz, eskaria murrizten baita.
- UBSrako eta berokuntzarako aeroterminia, instalazio zentralizatuan; berokuntzarako ura banatzeko, haren tenperatura murrizten da.
- UBSrako aeroterminia indibiduala. Berokuntza zentrala, errendimendu handiagoa duten edo CO₂ gutxiago aireratzen duten galdarekin (kondentsazioa), berokuntzarako ura tenperatura baxuagoan banatuz, eskaria murrizten baita, eta udan berokuntza-zirkuitua geldituz.

Kostaldetik gertu egonik eguzki-kolektore termikorik ez baina berogailua eta UBS zentralizatua duten etxebizitzetan:

- Dauden galdarak errendimendu handiagoa duten edo CO₂ gutxiago aireratzen duten beste batzuekin ordezkatzea (kondentsazioa, biomasa, etab.), berokuntzako ura tenperatura baxuagoan zirkulatzea, eskaria murrizten baita.
- Berokuntzarako, galdarak aeroterminiarekin ordezkatzea, instalazio zentrolean. Kolektoreen estaldura txikia bada, gainera, UBSaren laguntza gisa.

Barruan egonik berogailua eta UBS indibiduala duten etxebizitzetan, honako hauek aztertzea proposatzen da:

- Eguzki-energia termikoa UBSa ekoizteko, metaketa indibidualarekin. Galdaren ordez, metaketa indibiduala duten kondentsazio-galdarak instalatzea.
- UBSrako eta berokuntzarako aeroterminia indibiduala, nola erradiadore elektrikoduna hala horrelakorik gabea.

Barnean egonik eguzki-kolektore termikorik ez baina berogailua eta UBS zentralizaturik ez duten etxebizitzetan.

- UBSaren laguntzaile gisako eguzki-kolektore termikoak instalatzea, estalki lauarekin. Ezinezkoa bada, UBSrako aeroterminia.
- Berokuntzarako eta UBSrako galdaren ordez efizientzia handiagoko edo CO₂ gutxiago aireratzen duten galdarak jartzea (kondentsazioa). Nolanahi ere, berokuntzarako uraren birzirkulazio-tenperatura jaitea, eskariaren gainean jardun delako.
- UBSrako aeroterminia indibiduala eta berokuntza zentralizatua mantentzea, galdarak ordezkatuz. Nolanahi ere, berokuntzarako uraren birzirkulazio-tenperatura jaitea, eskariaren gainean jardun delako. Soluzio horri esker, udan berokuntza-sistema itzali dezakegu.

Barnealdean egonik berokuntza eta UBS zentralizatua eta eguzki-kolektore termikoak dituzten etxebizitzak:

- Galdaren ordez efikazia handiagoko edo emisio gutxiagoko (kondentsazioa) beste galdara batzuk jartzea. Nolanahi ere, berokuntzarako uraren birzirkulazio-tenperatura jaiste, eskariaren gainean jardun delako.

10. taula. Etxebizitza publikoan ezar daitezkeen hobekuntza-neurrien konbinazioak.

26 Medidas mejora 10 AISLADAS 16 COMBINACIONES		MEJORAS COMBINADAS															
		PASIVAS			ACTIVAS				REHABILITACIÓN INTEGRAL			DESCARBONIZACIÓN (DEEP RENOVATION)					
		C01	C02	C03	C04	C05	C06	C07	C08	C09	C010	C011	C012	C013	C014	C015	C016
		Envolvente térmica Base	Envolvente térmica Completa	Envolvente térmica Completa + Ventilación	Instalaciones + Renovables Solar térmica	Instalaciones + Renovables BC	Ventilación + Instalaciones + Solar térmica	Ventilación + Instalaciones + BC + FV	E.t. Base + Instalaciones	E.t. Completa + Instalaciones	E.t. Completa + Ventilación + Instalaciones	E.t. Completa + Instalaciones + Renovables Solar térmica	E.t. Completa + Instalaciones + Renovables Bomba de calor	E.t. Completa + Instalaciones + Renovables Bomba de calor + FV	E.t. Completa + Ventilación + Renovables Solar térmica	E.t. Completa + Ventilación + Renovables Bomba de calor	E.t. Completa + Ventilación + Renovables Bomba de calor + FV
MEJORAS AISLADAS	1	Insuflado de cámara															
	2	SATE															
	3	Aislamiento de cubierta															
	4	Aislamiento de forjado inferior															
	5	Huecos															
	6	Ventilación															
	7	Renovación instalaciones															
	8	EERR - paneles solares térmicos															
	9	EERR - BC aerotermia															
	10	EERR - paneles fotovoltaicos															

Etxebizitza publikoko eraikinak motaren arabera multzokatu dira; halaber, tipologia-familia bakoitzari kostu hoberenaren analisi baten ondoren neurri bat edo beste zehaztu da. Honako hau lortzea da jomuga: eraikinak birgaitzeko efizientzia energetikorako soluzioak bizi-ziklo erabilgarrian kostu txikiagoa ahalbidetzen dutenak izan daitezzen 30 urtean. Halaber, erosotasuna maximizatzea da helburua, ustiapen-fasean kostua eta kudeaketak murriztuko dituzten elementu aktiboen premia minimizatuz.

Energia berriztagarriei dagokienez, honako hauek aurreikusten dira: existitzen diren eguzki-sistema termikoen berandutza- eta egokitzapen-neurriak, aerotermiako sistema zentralizatuak eta individualizatuak ezartzea, eta sistema fotovoltaikoak ezartzea azalera erabilgarria duten eraikinetan.

5. lerroa. Etxebizitza publikoan jarduketak gauzatzea

Helburuak	Ondo mantenduta dagoen alokairu aurreratu eta efizienteko etxebizitza publikoko parkea lortzea, herritarrei zerbitzu hobea emateko, eta, hartara, epe luzeko jasangarritasunean aurrera egitea eta erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea.
-----------	--

Jarduketa	Deskribapena
-----------	--------------

5.1 Zero Plana, etxebizitza publikoa hobetzeko: parke publiko efizientea.	<ul style="list-style-type: none"> Eraikin jasangarriak, efizienteagoak eta errentagarriagoak bermatzea, irisgarritasunerako eta birgaitze energetikorako jarduketak eginez (ganbera intsuflatzea, KITS, estalkiaren isolamendua, barne-forjaren isolamendua, baoak, aireztapena eta instalazioen berrikuntza). Eraikinetan energia berriztagarrien erabilera sustatzea (eguzki-panel termikoak, fotovoltaikoa eta bero-ponpa arotermikoak) eta autokontsumoa bultzatzea, lortzen diren onura ekonomikoak maizterrengana bideratzeko. Eraikinen balio-bizitza maximizatzea eta instalazioak egoera ezin hobean erabilgarri daudela ziurtatzea.
---	---

Inbertsioak eta plangintza

Jarduketa	Inbertsioak		
	2020-2025	2025-2030	2030-2050
5.1 Zero Plana, etxebizitza publikoa hobetzeko: parke publiko efizientea.	31.370.713 €	30.457.066 €	113.946.988 €

6. lerroa. Telekomunikazio-zentroetako hobekuntzak

Itelazpi energia-jarduketarako unitateak kudeatzen dituen telekomunikazio-zentroek, etengabe kontsumitzen dute energia elektrikoa, zentroen beraien izaera dela-eta. Instalazio gehienek energia berriztagarria –hala nola energia fotovoltaikoa edo, kasu askotan, energia minieolika– sortzeko instalazioak dituzte batzuetan, antenak gainaldeetan daudenez. Sistema elektronikoen argiztapenaren eta hozketaren apartatuan ere aurrezteko aukerak dituzte; izan ere, halakoak martxan jarri behar dira.

Itelazpiren telekomunikazio-zentroetarako (ez da Zamudioko egoitza nagusia zenbaketa honetan barne hartzen) aurreikusitako jarduketak honako hauek dira:

6. lerroa. Telekomunikazio-zentroetako hobekuntzak

Helburuak	390 kW-eko sorkuntza-ahalmena duten 40 instalazio berriztagarri abian jartzea, eta antenetako hozte- eta argiztapen-sistemak hobetzea, energia-kontsumoa murriztu dadin.
Jarduketa	Deskribapena
6.1 Airea girotzeko sistemak hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> Airea girotzeko tenperaturen kontsigna-balioak berrikustea eta zentro bakoitzean kokatutako ekipoen ezaugarrietara egokitzea. Airea girotzeko ekipoen programazioa berrikustea, funtzionamendu-erregimena horietako bakoitzaren premietara egokitzeko. Airea girotzeko instalazioen funtzionamendu eta errendimendu egokia ziurtatzeko, horien mantentze-prozedurak berrikustea. Egungo klimatizazio-ekipoak efizientzia energetiko handiagoko ekipoekin ordezkatzeko.
6.2 Argiztapen-sistemak hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> Intentsitatea erregulatzeko eta presentzia detektatzeko sistemak instalatzea pertsona-zirkulazio handia erregistratu ohi duten zentroetan. Argiztapen-zirkuituen sektorizazioa Betiko argien ordeztasun LED teknologia darabiltenak instalatzea apurka-apurka.
6.3 Energia berriztagarriak instalatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Autokontsumorako eguzki-panel fotovoltaikoak instalatzea. Autokontsumorako minisorgailu eolikoak instalatzea.

Inbertsioak eta plangintza

Jarduketa	Inbertsioak (milioi euro)	Urteko aurrezpena (MWh)	Energia berriztagarria (MWh)	Epeak
6.1 Airea girotzeko sistemak hobetzea.	0,3	225	--	2023-2030
6.2 Argiztapen-sistemak hobetzea.	0,1	75	--	2023-2030
6.3 Energia berriztagarriak instalatzea.	0,6	--	600	2023-2030
Guztizkoa	1,0	300	600	

7.2 Berriztagarriak ezartzearen eta erregai fosilak ordeztearen arloko jarduketak

7. Ierroa. Erregai fosilak ordeztea

Gizartearen deskarbonizazioa erregai fosilak erabiltzeari uztean datza, eta EAEko sektore publikoak aitzindari izan behar du horretan. Hala, 2050erako zero karbono-emisioekin lotutako helburuak bete nahi baira, existitzen diren eraikinetan erregai fosilen erabilera pixkanaka ezabatu behar da.

Eraikinetako airea girotzeko erregai fosilak honako hauek dira: gas naturala, gasolioa eta gas propanoa (PGL).

EAEko sektore publikoak honako hauek ditu bere zentroetan:

- Gas naturalaren 395 hornidura-puntu, gehienak berokuntza eta/edo UBSa ekoizteko galdarekin lotuak; nolahi ere, sukaldeei lotutako hornidurak ere badaude.
- 101 zentrotan erabiltzen da gasolioa berokuntza eta/edo UBSa ekoizteko.
- PGLa darabilten 23 zentro, gehienak berokuntza eta/edo UBSa ekoizteko galdarekin lotuak; nolahi ere, badira sukaldeei lotutako hornidurak ere.

Hidrokarburo likidoen ordezkari ingurumena gehiago errespetatzen duten bestelako energien erabilera jasotzen du JELe helburu gisa. EAEko sektore publikoak bere gain hartzen du 2030a baino lehen bere zentroetan berokuntza eta/edo UBSa ekoizteko gasolioaren erabilera ezabatzeko helburua; horrenbestez, galdara horiek ordezkatzeko da lehentasuneko jarduketa-eremua.

Bestalde, Europak 2050erako neutraltasun klimatikoaren inguruan hartutako konpromisoak zera eskatzen du, administrazio publikoei eskatzen zaien izaera eredugarria kontuan hartuta, gas naturalaren erabilera urte horretarako erabat ezabatzeko helburua ere ezartzea. Ildo horretan, EAEko sektore publikoaren beste helburuetako bat zera da, gas naturalaren eta petrolioaren gas likidotuak gas berriztagarriekin (biomasa, aerotermia eta geotermia, batez ere) ordezkatzeko, eta elektrizitatearekin, berriz, sukaldeetan, berokuntza eta/edo UBSa ekoiztea izanik horren jomuga, fosilen zero kontsumoa lortze aldera 2050erako.

Gasolio-kontsumoa ordeztzeari dagokionez, energia berriztagarriak erabiltzen dituzten UBSak ekoizteko eta airea girotzeko sistemak ezarri behar dira lehentasunez. Soluziorik egokiena erabakitzeko, arauzko arrazoiak, arrazoi tekniko-ekonomikoak eta ingurumenekoak hartuko dira kontuan, Jarduketa Plan honetan energia berriztagarriak ezartzeko jasotako irizpideak kontuan izanik.

Aurreko paragrafoan jasotako premisa orokorretik abiatuta, kasu jakin batzuetan, gasolioaren ordezkari gas naturala erabiltzea justifikatu ahalko da, honako hauek kontuan hartuta betiere:

- Gas naturalak aurrezpen ekonomiko eta energetikoak sortzen eta CO₂ emisioak murrizten ditu.
- Gaur egun gas naturalaren gertuko sare bat badago, gasoliozko galdara baten ordezkari gas naturalezko galdara bat instalatzeko behar den inbertsioa eta epea energia berriztagarriak instalatzeko behar direnak baino askoz txikiagoak dira.

Ikuspuntu ekonomikotik, zentzuzkoa da gas naturaleko galdarak instalazio berriztagarriekin konbinatzea, berriztagarriak oinarritzko eskariari erantzuteko balia daitezzen eta gas naturala, berriz, eskariaren gainerakoa betetzeko erabil dadin.

Beraz, gasolio-galdaren ordeztu efizientzia energetiko handiko gas naturaleko galdarak erabili ahalko dira, baldin eta gas naturalaren sare irisgarri bat badago, horretarako justifikazio tekniko ekonomiko bat existitzen bada (beti 2030a baino lehen), eta EKT HE2 eta HE4⁶ delakoaren betarazpena kontuan izanik betiere, UBSaren sorkuntza berriztagarriari dagokionez.

Bero-ponpan oinarritutako sistemek beroa errekuntza-galdaretan funtsatutakoek baino tenperatura baxuagoetan banatzera jotzen dute. Hala eta guztiz ere, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua, azken bertsiotetan, gehieneko banaketa-tenperatura murrizten ari da pixkanaka; hala, tenperatura baxuko sareak instalatzeko joera ezartzea da xedea. Gainera, bero-ponpak oso bizkor ari dira garatzen; izan ere, tenperatura altuan eta errendimendua gutxitu gabe ura ekoiztea lortzen duten ekipoak existitzen dira gaur egun. Horregatik, gasoliozko, PGLzko edo gas naturalezko galdaren ordeztu bero-ponpak jartzea planteatzean, existitzen diren banaketa- eta emisio-sistemak hartu beharko dira kontuan, horien gainean jardun behar ote den baloratzeko.

Lehen adierazitakoa laburbilduz:

1. 2030a amaitu aurretik, berokuntza eta UBSa ekoizteko gasolioa darabilten galdara guztiak ordeztuko dira.
2. Berokuntza eta UBSa ekoizteko gasolioa kontsumitzen duten galdaren ordeztu, gas naturala edo PGL erabiltzen duten efizientzia energetiko handiko galdarak erabili ahalko dira 2030a amaitu baino lehen, baldin eta gas-sare irisgarri bat badago, horretarako justifikazio tekniko ekonomiko bat existitzen bada eta EKT HE2 eta HE4 delakoaren betarazpena kontuan izanik betiere, UBSaren sorkuntza berriztagarriari dagokionez.
3. Errendimendua hobetzearekin edo mantentzearekin lotutako arazoak badaude, berokuntza eta UBSa ekoizteko gas naturala edo PGL kontsumitzen duten galdaren ordeztu efizientzia energetiko handiko galdarak erabili ahalko dira, baldin eta horretarako justifikazio tekniko ekonomiko bat existitzen bada eta EKT HE2 eta HE4 delakoaren betarazpena kontuan izanik betiere, UBSaren sorkuntza berriztagarriari dagokionez.
4. 2050a amaitu baino lehen, gas naturalaren eta PGLaren erabilera kendu beharko da, nola berokuntza eta UBSa ekoizteko, hala sukaldeetan erabiltzeko.

⁶ EKT HE4 delakoak UBSaren ehuneko bat berriztagarria izatea eskatzen du kasu honetan: b) UBSari dagokionez, egunean 100 litro baino gehiago behar duten eraikinak (F eranskinaren arabera kalkulatu da kantitate hori), baldin eta eraikina bera edo sorkuntza termikorako instalazioa osorik zaharberritzen bada, edo haren berezko erabilera aldatzen bada.

Era berean, EITek ezartzen duenez, berrikuntzak behar dituzten eraikinen kasuan, efizientzia handiko instalazio berriak proposatu behar dira, hala badagokio, energia berriztagarriak erabiltzea. Ikusi:

- IT 1.2 Efizientzia energetikoaren eta energia berriztagarri eta hondar-energien eskakizuna.
- IT 1.2.4.6.1 Energia berriztagarriaren edo hondar-energiaren ekarpena eraikinaren ekoizpen termikorako.
- Ikusi, halaber, *erreforma* terminoaren definizioa EITeren aplikazio-eremuko 2. artikuluan.

7. Ierroa. Erregai fosilak ordeztea			
Helburuak	2031ko urtarrilaren 1a baino lehen, berokuntzaren eta UBSaren ekoizpenean gasolio-erabilera ezabatzea. Sukaldeetan eta berokuntzaren eta UBSaren ekoizpenean gas naturalaren eta PGLaren kontsumoa ezabatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan 2050ean CO ₂ emisiorik izan ez dadin.		
Jarduketa	Deskribapena		
7.1 Energia fosilen galdaren ordeza energia berriztagarriak jartzea.	Erregai fosilezko (gasolioa, gas naturala eta PGL) galdaren ordeza, biomasa-galdarak eta/edo bero-ponpa aerotermikoak eta/edo geotermikoak erabiltzea, batez ere. Sukaldeetako gasaren ordeza elektrizitate berriztagarria ipintzea.		
7.2 Gasolio-galdaren ordeza errendimendu handiko gas naturaleko galdarak jartzea.	44 gasolio-galdararen ordeza, errendimendu handiko gas naturalezko edo propanozko galdarak erabiltzea aldi baterako, baldin eta banaketa-sare irisgarri bat badago eta horretarako justifikazio tekniko eta ekonomikoa existitzen bada, eta betiere 2030a baino lehen.		
7.3 Gas naturaleko eta PGLko galdarak berritzea.	83 gas-galdara zahar eta errendimendu kaskarrekoak errendimendu handiko gas-galdarekin ordeztea, baldin eta justifikazio tekniko ekonomikoa badago instalazioak energia berriztagarri bihurtzeko eraldaketa atzeratzeko.		
Inbertsioak eta plangintza			
Jarduketa	Inbertsioak (milioi euro)	Urteko aurrezpena (MWh)	Epeak
7.1 Energia fosilen galdaren ordeza energia berriztagarriak jartzea.	(Berriztagarrien apartatua ebaluatutako jarduketa)		
7.2 Gasolio-galdaren ordeza errendimendu handiko gas naturaleko galdarak jartzea.	7,5	2.304	2023-2030
7.3 Gas naturaleko eta PGLko galdarak berritzea.	7,6	3.091	2023-2030
Guztizkoa	15,1	5.395	

8. Ierroa. Bero-ponpak ezartzea eta klima-sistemak hobetzea

Bero-ponpen instalazioak bultzada handia ematen dio energia berriztagarrien erabilerari, eraikinak girotzeari eta horien UBSa ekoizteari dagokienez; izan ere, bero berriztagarri ponpatzen ditu eraikinaren barnealdera (eraikinaren kanpoaldean daude bero berriztagarri horiek eta hainbat jatorritakoak izaten dira), eta, bestetik, elektrizitatea kontsumitzen du (halaber, baliteke jatorri berriztagarria izatea elektrizitate horrek, partzialki behinik behin).

Bero berriztagarriaren jatorriaren arabera, bero-ponpen funtzionamendu-teknologia honela sailkatu dezakegu:

- Aerotermita. Kanpoko airearen giro-energia termikoa aprobetxatzen da eraikinen kanpoaldean jarritako ekipoen bidez (estalkiak, fatxadak, kanpoko lurzorua, etab.).
- Geotrukea. Lurrazpiarekin truke termiko bat gertatzen da, uraren zirkulaziorako lurpeko putzu edo eroanbideen medioz. Bero-ponpa eta zirkulazio-ponpak eraikinaren barruan egon daitezke.
- Hidrotermia. Aztergai dugun kasuan, foku termiko berriztagarria ur-masa bat da, adibidez, itsasoa edo ibaia.

Truke geotermikoa duen bero-ponpak errendimendu (SCOP) hobea du, eta horrek energia-kontsumoa, kontratatutako potentzia elektrikoa eta eragiketa-kostuak murrizten baditu ere, lurpeko putzuak edo eroanbideak kokatzeko espazioa behar da; horregatik, inbertsio gehiago egin behar da hasieran; alabaina, inbertsio horiek amortizatu egiten dira epe luzera.

Beroa edo hotza honela banatu daiteke: airetik, hodian eta sareten bidez; uretatik, *fan coil* edo erradiadoreen bidez; edo fluido hozgarri batetik, geletan lurrunketa-unitateak ipinita.

Bero-ponpa teknologia heldua da, baina bilakaera teknologiko etengabea du eta hainbat aplikaziotan efizientzia hobetzen jarraitzen du. Administrazio publikoaren eraikinetan energia berriztagarria erabiltzeko modu efizientea da, baldin eta sistemen eta ekipoen errendimendurekin lotutako gutxieneko kondizio jakin batzuk betetzen badira betiere. Bero-ponpen ekipo eta sistema itzulgarriak daude, neguan berokuntza gisa eta udan hozkuntza gisa dihardutenak; are gehiago, beroa eta hotza ere sortu dezakete aldi berean.

Bero-ponpen errendimendua, besteak beste, laneko tenperaturaren arabera da. Horregatik, erregai fosilekin funtzionatzen duten galdaren ordez bero-ponpak instalatzeko, kontuan izan behar da sortutako ur beroak galdarek sortzen dutena baino tenperatura baxuagoan egon behar duela, bero-ponparen errendimendua ez kaltetzeko. Halako ordezkapenak egiteko, banaketa-sistemak aztertu behar dira lehenik eta behin, eta, hala badagokio, egokitu.

Era berean, bero-ponpa UBSa sortzeko erabiltzen bada, kontuan izan behar da talka termikoak gauzatu behar direla legionella saihesteko, horri buruzko araudi espezifikoari jarraikiz.

Bero-ponpa erabiltzen duten sistemen errendimendua bereziki handia da eraikin berean aldi berean beroa eta hotza behar direnean, eta geotermiaren kasuan errendimendu hobekak lortzen dira urtaroaren arabera hotza edo beroa behar duten eraikinetan erabiltzen denean; hala, zorupeko karga termikoak konpentsatzen dira.

EAEko sektore publikoko zentro jakin batzuek berokuntza-sistemeekin zerikusirik ez duten hozte-sistemak dituzte. Hotza honako hauetan sortu daiteke: ura darabilen aire-girogailuetan – nola dorredunetan hala dorregabeetan–; VRV motako edo sistema zatituetako kanpo-unitateetan (konpresoreak eta kondentsadoreak); truke geotermikoan; edo xurgapen-sistemetan.

Beroa eta hotza behar duten eraikinetan, gaur egun dauden hozte-sistemetan apurka-apurka berokuntza-sistemak txertatu behar dira epe luzera, erregai fosilezko galdarak kenduz, modulagarriak izan, eta eraikinen birgaitze-erritmora egokituta egongo diren epe luzerako soluzioak bilatuz.

Airea girotzeko sistemak epe luzera efizientzia handiagoz kudeatzeko, hobe dira uretiko banaketa duten sistemak.

VRV motako aeroterminia-sistemek efizientzia handiak lortzen dituzte eta energia-kontsumoa murrizten dute, unean-unean egokitzen baitira instalazioen premietara. Tenperatura modu independentean kontrola daiteke aire girotua behar duen eremu bakoitzean; are gehiago, zona batzuk hoztu eta beste batzuk berotu daitezke aldi berean. Errendimenduak txikiagoak dira uraren bitartez hozten duten sistemekin baino.

Sistema indibidual zatituak (*split*) edo *multisplit* sistemak ez dira hozgarri-bolumen aldagarrien sistemak (*VRV systems*) bezain efizienteak, baina instalazio txikietarako, ordea, soluzio egokienak dira zenbait kasutan. Berotze globala eragiten duten eta, horrenbestez, kaltegarriak diren hozgarrien erabilera murriztea eta halako produktuak baliatzen dituzten ekipoak beste batzuekin ordezkatzeta; horren adibide litzateke R22 hozgarria: 2010ean debekatu zen.

Beroa geratzen bada soberan (ospitaleetako kogenerazioen kasuan jazotzen den bezalaxe), hotza sortzeko baliu daiteke, zenbait ospitaleetan erabiltzen direnen antzeko xurgatze-sistemen bidez. Kogenerazio-sistema horiek martxan dauden bitartean, xurgapen-ekipoak efizientetzat jotzen dira, hondakin-beroak aprobetxatzen dituztelako, baina kogenerazioek funtzionatzeari uzten badiote, komenigarria izango da hotzaren ekoizpenaren ordeztarako bero-ponpak erabiltzea, edo kasu bakoitzean egokiena den soluzioa.

Azkenik, garrantzitsutzat jotzen da eraikinetako aireztapen naturalaren aprobetxamendu adimendunerako sistemak ezartzeko aukera planteatzea; kontsumoa murriztuko litzateke kanpoko airearen zuzeneko erabileran oinarritutako sistemai eta bero-berreskuragailuak eta *free coolinga* duten aireberritze beharturako sistemai esker, behar den berokuntza eta hozketa murrizteko lagungarriak izango bailirateke eta, halaber, leihoak kontrolik gabeko bero-galerekin irekitzea saihestuko bailukete.

8. Ierroa. Bero-ponpak ezartzea eta klima-sistemak hobetzea	
Helburuak	2030a baino lehen, 65 eraikinetan bero-ponpak ezartzea eta erregai fosilak ordeztzea. 2030-2050 artean, 370 eraikinetan bero-ponpak ezartzea eta erregai fosilak ordeztzea.
Jarduketa	Deskribapena
8.1 Lehendik dauden eraikinetan aeroterminia ezartzea.	Gasolioko eta gas naturaleko galdak aeroterminiarekin ordezkatzeta halakoak dituzten eraikinetan, eta, hala badagokio, hozte-sistemak txertatzea.
8.2 Lehendik dauden eraikinetan geoterminia ezartzea.	Gasolioko eta gas naturaleko galdak geoterminiarekin –edo hidroterminiarekin– ordezkatzeta halakoak dituzten eraikinetan, eta, hala badagokio, hozte-sistemak txertatzea.
8.3 Hozte-sistematan hobekuntzak txertatzea.	R22 ordezkatzeta eta errendimendua hobetzea jada existitzen diren airea girotzeko ekipoetan eta sistemetan.

Inbertsioak eta plangintza				
Jarduketa	Inbertsioak (milioi euro)	Urteko aurrezpena (MWh)	Energia berriztagarriak (MWh)	Epeak
8.1 Lehendik dauden eraikinetan aeroterミア ezartzea. I. fasea.	13,6	8.901	7.118	2023-2030
8.1 Lehendik dauden eraikinetan aeroterミア ezartzea. II. fasea.	90,1	56.557	48.333	2030-2050
8.2 Lehendik dauden eraikinetan geoterミア ezartzea. I. fasea.	24,5	10.103	8.599	2023-2030
8.2 Lehendik dauden eraikinetan geoterミア ezartzea. II. fasea.	131,5	53.801	47.629	2030-2050
8.3 Hozte-sistemetan hobekuntzak txertatzea.	20,0	13.045	--	2023-2030
Gutzizkoa	279,8	142.406	111.679	

9. Ierroa. Biomasa bidezko sorkuntza termikoa

EAEEn badugu marjina landatutako baso-biomasaren aprobetxamendu energetiko jasangarriago baterako.

Biomasa-galdarek ur beroa ematen dute berokuntzarako eta UBSrako eta, halaber, eraikinen premietara egokitzeko gaitasuna ere badute, eraikinetan existitzen diren eta erregai fosilak kontsumitzen dituzten galdarak ordezkatzearaz gain, betiere biomasa biltegitartzeko eta deskargatzeko guneak badaude.

Gaur egun, biomasa-galdarek hainbat onura dituzte: partikulen emisioak minimizatzeaz gain, landa-inguruneke edo hiri-inguruneke eraikinetan txerta daitezke, pelletak nahiz ezpalak erabiliz; nolahi ere, nola instalazioetarako hala erregaietarako eskatzen diren kalitate-estandarrek bete behar dituzte.

Biomasa erregai fosilak baino merkeagoa da, baina inbertsioak eta mantentze-kostuak, ordea, garestiagoak. Biomasa gomendagarriagoa da bero asko behar duten instalazioetarako; halakoetan, oinarriko eskaria estaltzeko erabiltzen da biomasa normalean eta, eskariaren gainerakoa betetzeko, berriz, beste energiaren bat baliatzen da osagarri gisa.

Bai eraikin berrietan, bai erregai fosilak erabiltzen dituzten berokuntza-sistemen birgaitzean, proiektu posible bakoitzean soluzio egokiena zein den baloratu behar da, alderdi teknikoak, ekonomikoak eta ingurumenekoak kontuan hartuta.

Ospitaleen tamaina oso aldakorra da, 7.000-120.000 m²-koa, eta normalean hainbat eraikin izaten dituzte. Osasun-zentroak eta anbulatorioak ere askotarikoak dira tamainari dagokionez, txikiak 300 m²-koak izanik eta handienak, berriz, 8.000 m²-koak. Osasun Mentaleko Sareko eguneko zentro eta ospitaleek 100-1.000 m²-ko azalerak dituzte.

18. irudia. Osakidetzaren barnean kontsumo handiena duten eraikinak.



Zentro horietatik guztietatik, ehuneko handi bat antzinako eraikinei dagokie, gaur egun ETK ezartzen dituenak baino energia-estandar ez hain zorrotzei jarraikiz eraikiak. Osakidetzaren 54 zentro baino ez dira 2000tik aurrerakoak.

Nabarmentzekoa da Osakidetzako bederatzi ospitaleek kogenerazio-instalazioak dituztela, eta horien kudeaketa energetikoa, eroapena eta mantentze-lanak energia-zerbitzuetako enpresa espezializatuek egiten dituztela.


Instalazio zaharrenak, balio-bizitza laster amaituko zaienez, epe laburrean itxiko dira. Ospitaleek, hala, ekoizpen termikoko ekipo konbentzionalekin soilik funtzionatuko dute.

14. taula. Osakidetzako kogenerazio-instalazioen ezaugarriak.

Ospitalea	Ekipamendua	Abian jarri/Funtsezko aldaketa txertatu zen urtea
Basurtu	Bi Jenbacher JSM 612 GS-NL motor. 2.002 kWe bakoitzak	Funtsezko aldaketa txertatu zen urtea: 2011
Bidasoa	222 kWe-ko Guascor FGLD motor bat	Abian jarri zen urtea: 1998
Gurutzeta	Jenbacher JSM 612 GS-NL motor bat. 1.492 kWe Jenbacher JSM 616 GS-NL motor bat. 2.062 kWe	Funtsezko aldaketa txertatu zen urtea: 2007
Donostia	Jenbacher JSM 616 GS-NL motor bat. 2.428 kWe Jenbacher JSM 616 GS-NL motor bat. 2.428 kWe	Funtsezko aldaketa txertatu zen urtea: 2007
Galdakao	Jenbacher JSM 616 GS-NL motor bat. 2.188 kWe Jenbacher JSM 612 GS-NL motor bat. 2.002 kWe	Abian jarri zen urtea: 1999
San Eloy	Waukesha VGF824 GLD motor bat. 348 kWe	Abian jarri zen urtea: 1999
Santa Marina	Waukesha VGF824 GLD motor bat. 701 kWe	Abian jarri zen urtea: 1999
Santiago	MWM PCG2020 V16 motor bat. 1.100 kWe	Abian jarri zen urtea: 1999
Txagorritxu	250 kWe-ko Guascor FGLD bi motor, bakoitza 250 kWe-koa	Abian jarri zen urtea: 1998

Energiaren araberako kontsumoaren banaketari dagokionez, kontsumoaren % 43 hartzen duen elektrizitateaz gain, kogenerazio bidez sortutako beroa nabarmentzen da: % 33. Osakidetzak 5 biomasa-instalazio ditu.


19. irudia. Osakidetzako kontsumoaren banaketa, energia motaren arabera.



Hurrengo irudian, Osakidetzako energia-kontsumoaren bilakaera bildu da. Kontsumoak nabarmen egin du gora 2021ean, pandemia ospitale eta osasun-zentroetan kudeatzeko moduak bultzatuta.


20. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	8.297.216	8.300.605	8.849.586	8.789.690	8.777.194
Electricidad	119.806.517	121.571.826	124.666.014	121.808.010	122.562.596
Gas Natural	130.663.878	120.991.482	130.932.357	130.947.320	147.425.354
Renovables	548.638	3.177.850	3.623.756	2.481.675	2.366.023
Total	259.316.249	254.041.763	268.071.713	264.026.695	281.131.167



Osakidetzako eraikinen ziurtagiri energetikoari dagokionez, % 7k A edo B kalifikazioa dute, energia primario berriztaezinaren kontsumoaren arabera.

21. irudia. Osakidetza unitateko kalifikazio energetikoen banaketa, energia berriztaezinaren kontsumoaren arabera.



Hezkuntza

Hezkuntza Sailak 227 ikastetxe kudeatzen ditu gaur egun EAEn, bigarren hezkuntzakoak, lanbide-heziketakoak eta hizkuntza-eskola ofizialak barne hartuta. Lehen hezkuntzako ikastetxeak udal-kudeaketakoak dira, eta, beraz, horiek ez dira inbentarioan sartu.


Produktuak honela banatzen dira:

- Bigarren hezkuntzako 148 institutu
- Lanbide-heziketako 28 ikastetxe
- 14 hizkuntza-eskola ofizial
- 10 ikastetxe publiko integratu
- Bestelako 30 ikastetxe: berritzeguneak, barnetegiak, urrutiko hezkuntzako institutuak, musika-zentroak, hezkuntza bereziko eskolak, ikusmen-desgaitasuna duten ikasleentzako ikastetxeak, arte- eta diseinu-eskolak eta administrazio-zentroak.

Zentroen % 60-62 inguru 1981a baino lehen eraiki ziren, eta horrek esan nahi du ez dutela isolamendu termikorik. Adierazpen hori eraiki ziren urtean indarrean zeuden eraikuntza-araudietan oinarrituta egin da. Isolamendu termikoa 1979ko EOArekin batera hasi zen eskatzen. % 35 1981-2007 aldian eraiki zen, 1979ko EOArekin batera, eta zenbait itxituratan baliteke isolamendua egotea. Eta % 3-5 baino ez ziren eraiki 2008an edo geroago, ziurrenik EKT Eraikuntzako Kode Teknikoa betez.

Halaber, ikastetxeen % 35 inguruk ZTHrik gabeko leihoak eta beira simple/monolitikoak izaten jarraitzen dute.

22. irudia. Energia-jarduketarako unitatearen barnean kontsumo handiena duten eraikinak.



Hezkuntza Sailak ingurutzailerearen birgaitze garrantzitsuak egin ditu zenbait ikastetxetan, hala nola Usandizaga BHIan (Donostia), Beasaingo Institutu Publikoan (Txindoki Egoitza) eta Errenteriako Koldo Mitxelena BHIan, estalki-konponketak aprobetxatuta.

Zentro gehienek berokuntza eta UBSa sortzeko galdarak dituzte, baina zentro batzuetan UBSaren zerbitzua termo elektrikoaren edo berogailu/galdara txiki independente baten bidez erregulatzen da. Emisio-sistema gisa, zentro gehienek erradiadoreak dituzte.


Makineria espezifikoak duten lanbide-heziketako ikastetxeetan izan ezik, ikastetxe gehienetan argiztapenari eta bulegotikari guztizko kontsumo elektrikoaren ehuneko handi bat dagokie. Zehazki, argiztapenari dagokio energia elektrikoaren kontsumoaren % 38 (sailaren guztizko kontsumoaren % 12), eta lanpara fluoreszenteak dira gehien erabiltzen den teknologia. LED teknologiarako aldaketa pixkanaka egiten ari den arren, argiztapen-potentzia osoaren % 10 baino ez dagokio gaur egun teknologia horri.

Hezkuntza Sailak 5 kWp-ko instalazio fotovoltaikoak dituzten 152 zentro ditu, eta sortutako energia guztia sarean sartzen dute instalazio horiek. 2003-2006 aldian instalatu ziren, eta Energiaren Euskal Erakundeak kudeatzen ditu. Instalazio horiek autokontsumorako izango dira sorkuntza berriztagarriko primak kobratzeko epea amaitzen denean.

Zentro gehienek ez dute aireztapen behartuko sistemarik. Alderdi hori aztertzea garrantzitsua izango da, beroaren zati handi bat aireztapen-premien eraginez galtzen baita, eta galera garrantzitsuak eragin baititu COVID-19agatiko prebentzio-neurrien ondoriozko betebeharrengatik.

23. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	15.863.099	14.845.032	14.881.750	14.881.750	13.387.040
Electricidad	21.294.458	20.391.578	20.836.569	18.013.157	19.458.296
Gas Natural	24.115.419	26.005.161	27.760.623	23.008.398	32.202.667
Renovables			521.932	521.932	521.932
Total	61.272.976	61.241.771	64.000.874	56.425.237	65.569.935




Hezkuntza unitatearen energia-kontsumoak gora egin du azken urteotan, baina kontuan izan behar da 2020an behera egin zuela pandemiaren eraginez ikastetxeak itxi zirelako; hala, 2021ean berriz ere egin zuen gora energia-kontsumoak, ikasgelak aireztatzeko politika abiarazi baitzen, kutsadura-arriskua murrizteko.

Hezkuntza da gehien kontsumitzen duten EAEko sektore publikoko energia-jarduketarako unitateen arteko bigarrena, guztizkoaren % 12,1ekin. Gehien eskatzen den energia-iturria gas naturala da (guztizkoaren % 45), eta horren ondoren, berriz, energia elektrikoa (% 32).


Gasolio-kontsumoa da nabarmentzekoa, guztizkoaren % 21 izaki. Guztira 77 zentrok kontsumitzen dute gasolioa. Era berean, 6 zentrok PGLak erabiltzen dituzte berokuntzarako erregai gisa, eta 2 zentrok, berriz, biomasa baliatzen dute.

24. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen banaketa.



Ziurtagiria duten eraikinen % 66ri D kalifikazio energetikoa dagokio, eta % 4k soilik dute A edo B kalifikazioa.

25. irudia. Hezkuntza unitateko kalifikazio energetikoen banaketa, energia berriztaezinaren kontsumoaren arabera.




Segurtasuna

Segurtasuna unitateak 46 zentro ditu honako hauetan: zentralak (2), baseak(2), ertzain-etxeak (25) eta herritarren arretarako bulegoak (13). Segurtasun Sailaren mende daude, halaber, Txurdinagako Trafikoa Kontrolatzeko Zentroa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren instalazioetan kokatutako Iradier eraikina, Bizkaiko Trafiko Ordezkaritza eta Kale Nagusiko 81 zenbakiko bulegoak.

Aipatutako zentroz gain, eguraldia neurtzeko 81 azpiegitura eta trafiko-instalazio ere baditu.

26. irudia. Energia-jarduketarako unitatearen barnean energia-kontsumo handiena duten zentroak.



Eraikin guztiak EOA-KT-79 eraikuntza-araudia aplikatuta eraiki ziren; beraz, neurri handiagoan edo txikiagoan, eraikinek isolamendua dute itxituretan. Gainera, eraikinen % 10 2006ko EKT araudiaren arabera eraiki dira (araudi horrek isolamenduen lodiera handiagora behartzen du). Zentro gehienek aluminiozko arotzeriak –zubi termikoaren haustura dutenak– eta beira bikoitz aire-ganberadunak dituzten arren, zurezko edo aluminiozko arotzeriak eta beira monolitikoak dituzten eraikin ZTHrik gabe bat edo beste geratzen da oraindik.

Berokuntza-sistamarako gasolioa erabiltzen duten 2 zentro daude (Beasaingo polizia-etxea eta Arkautiko Iradier eraikina) eta propanoa erabiltzen duten beste bi (Berrozi eta Iurretako basea).

Instalazio berriztagarriei dagokienez, Berroziko basean biomasako 2 galdara daude, barruti-berokuntzaren bidez zazpi eraikin elikatzen dituztenak. Halaber, hiru ertzain-etxek (Eibar, Muskiz eta Deustu) eguzki-panel termikoak dituzte, eta beste 3 zentrok –zehazki, Iurretako, Berroziko eta Erandioko zentralak–, berriz, instalazio fotovoltaikoak; guztira 112 kWp-ko


potentzia dute instalatuta. Eraikin gehienetan bero-ponpak –aerotermiak– erabiltzen dira berokuntzarako eta hozketarako, aire-girogailuen eta *fan coilen* bidezko banaketa-sistemekin. Instalazio geotermikoa du, halaber, Getxoko ertzain-etxeak (duela gutxi zaharberitu zen).

Kasu batzuetan termo elektrikoak erabiltzen dira UBSa ekoizteko. Gainera, 13 zentrok gas-galdarak erabiltzen dituzte berokuntzarako, hozte-makinekin edota hozkuntzarako bero-ponpekin konbinatuta.

Argiztapenari dagokionez, energia-jarduketarako unitateak luminariak ordezkatzeko plan bat du ezarrita, fasetan banatua; 2021era arte horietako lehen hirurak gauzatu dira 13 ertzain-etxetan.

27. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	3.091.605	1.136.748	576.121	472.097	375.442
Electricidad	23.694.574	21.835.394	19.476.293	19.752.029	20.933.110
Gas Natural	10.065.704	10.584.788	9.212.455	9.346.983	10.565.193
Renovables		1.812.680	1.947.846	2.099.836	2.184.946
Total	36.851.883	35.369.610	31.212.715	31.670.945	34.058.691



Segurtasuna unitateari dagokio EAEko sektore publikoaren guztizko kontsumoaren % 7; honenbestez, horixe da kontsumo handieneko energia-jarduketarako unitateen artean hirugarrena. Kontsumoaren % 61 elektriko da; gas naturalari dagokio % 31; petrolioaren eratorriak % 1 baino ez dira; berriztagarriak, azkenik, kontsumitutako guztizkoaren % 6,4 dira.

Segurtasuna energia-jarduketarako unitateak energetikoki ziurtatutako eraikinen % 55ek D edo E kalifikazioak dituzte energia-kontsumoan. % 27k C kalifikazio energetikoa du, eta % 8k, berriz, A edo B kalifikazioa.

Baliabide Orokorrak

Eusko Jaurlearitzako Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren mende daude kudeaketa bateraturako eraikinak. Halakoa da, adibidez, Lakuako egoitza, energia-jarduketarako unitate honen guztizko energia-kontsumoaren bi heren hartzen dituen, 100.000 m²-ko azalera izanik. Gainerakoetatik, nabarmentzekoak dira Kale Nagusiko 85eko lurralde-ordezkaritza eta Bizkaia plazako eraikina, 10.000 m² ingurukoa. Txikiagoak dira egoitza hauek: Andia, Mirakruz, Samaniego, Okendoko Eustat, Concha Jenerala eta Easo. Baliabide Orokorrak Zuzenean zerbitzuaren egoitzak kudeatzen ditu Gasteizen, baita HABEK Donostian dituen egoitzak ere.

Lakuako egoitzaren eraikinak 1976tik (Lakua I) 2000ra bitartean (O Eraikina) artean eraiki ziren, eraiki zireneko estandar desberdinekin. Lakua I eraikinak aluminiozko arotzeriako itxiturak ditu, zubi termikoaren hausturarikgabeak eta beira sinpledunak; Lakua II eraikinaren kasuan, aitzitik, arotzeriak zubi termikoaren haustura du, baina beirak bikoitzak dira.

Baliabide Orokorrak kudeatutako eraikin guzti-guztiek gas naturaleko galdarak dituzte berokuntza sortzeko. Antzinako galdarak tenperatura altukoak dira, baina kasuren batean instalazioa modernizatu egin da kondentsazio-galdarekin.

Eraikin nagusietan (Lakua, Bizkaia Plaza, Kale Nagusia, etab.) kokaturiko hozte-sistemen kasuan, airea girotzeko amoniakoa baliatzen da; errendimendu egokia dute sistema horiek. Instalazio horietako batzuk modernizatu egin ziren 2005ean.


Argiztapenari dagokionez, eraikinek T8 eta T5 fluoreszenteak eta kalitate hobeko lanpara trinkoak –LED bidez hobetu daitezkeenak– dituzte, eta pixkanaka LED sistemara aldatzen hasi dira.

Eraikinek kontrol-sistemak dituzte airea girotzeko instalazioak kudeatzeko.

Lakuako eta Andiako eraikinek 140 kW fotovoltaiko dituzte instalatuta autokontsumorako. Energia-jarduketarako unitate horrek kontsumitzen duen energiaren % 1 baino zertxobait gutxiago sortzen dute instalazio horiek.

28. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	10.997.042	10.630.215	9.128.502	7.861.692	8.276.428
Gas Natural	8.510.874	7.403.842	7.964.370	7.553.730	9.463.323
Renovables				140.000	140.000
Total	19.507.916	18.034.057	17.092.872	15.555.422	17.879.751




Baliabide Orokorren energia-kontsumoa EAEko sektore publikoaren gutzitza % 7,7 da; hala, % 20ko murrizketa izan du 2015etik 2020ra bitartean, baina pandemiaren eraginez, 2021ean gora egin zuen; beraz, aurtun 2015ean baino % 8,4 gutxiago kontsumitzen da.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

Justizia energia-jarduketarako unitatea 17 justizia-jauregiz eta askotariko 5 zentroz osatuta dago: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua, artxibo-zentro bat, Emakunderen eta Gazteen Euskal Behatokiaren egoitza eta Zumarragako Ibaiondo Adingabeen Zentroa. Azken zentro hori izan ezik, gainerakoak hiriguneetan daude.

Justizia-jauregiak, bestalde, 1.000 m²-tik 21.000 m²-ra bitarteko azalera erabilgarriak dituzten eraikinak dira.

29. irudia. Energia-jarduketarako unitatearen barnean energia-kontsumo handiena duten eraikinak.



Eraikin judizialtako giroitze-instalazio gehienak VRV motako (hozgarri bolumen aldagarria) zuzeneko espantsioko sistemez osatuta daude. Instalazio horietako asko zaharrak dira, eta R22 hozgarriak –berotegi-efektua duten hidroklorofluorokarburoak– dituzte; berriro egin beharko lirateke halakoak. Gas naturaleko galdaren kasu batzuk ere badaude. Zumarragako Adingabeen Zentroak PGL ere erabiltzen du galdaretan.

Zentro gehienetan, UBSa 50-150 litroko edukiera duten hainbat termo elektrikoren bidez ekoizten da. Argiztapenari dagokionez, eraikin gehienetan lanpara fluoreszenteak dira nagusi.


Durangoko Justizia Jauregiak 10 kWp-ko instalazio fotovoltaiko bat du.

Azken urteotan inbertsio handiak egin dira Albia, Durango, Gasteiz, Atotxa, Getxo eta Gernikako justizia-jauregietan argiterian eta airea girotzeko sistemetan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 19.000 m²-ko eraikin bat erosi berri du Ibañez de Bilbao kalean, Bilbon. Zaharberritu ondoren, justizia-jauregi gisa baliatuko da.

30. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	389.210	389.210	290.234	202.640	202.640
Electricidad	11.581.807	11.096.455	11.141.350	11.332.331	12.097.316
Gas Natural	787.223	875.019	894.985	847.279	1.099.800
Total	12.758.240	12.360.684	12.326.569	12.382.250	13.399.756



Justizia energia-jarduketarako unitateari Jaurlaritzaren guztizko kontsumoaren % 5,4 dagokio. Energia-jarduketarako unitate horretan baliatutako energiaren % 90 elektrikoa da.

Ziurtagiri energetikoa duten eraikinetatik, % 50ek D, E edo F. kalifikazioak dituzte. % 40k, bestalde, C kalifikazioa. % 10ek, azkenik, B kalifikazioa energia-kontsumoan.

EITB

EITB (Euskal Irrati Telebista) Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikus-entzunezkoen taldea da.

4 eraikin ditu, eta horien artean nabarmentzekoak dira Bilboko egoitza (energia-kontsumoaren bi heren) eta programak ekoizteko Miramongo zentroa. Zentro horiek 37.000 m²-ko eta 11.500 m²-ko azalera aire-girogailudunak dituzte, hurrenez hurren. Bi eraikinek kristalezko azalera handiak dituzte fatxadetan, eta gortina-hormak daude, bestalde, Bilboko egoitzan.

Bi eraikinek gas naturaleko galdarak dituzte berokuntzarako eta hozte-makinak eta bero-ponpak, berriz, hozketarako, airetiko banaketa termikorako sistema batekin, aire-girogailuen, fan coilen eta roof topen edo zuzeneko emisiorako ekipo trinkoen bitartez. Komun eta sukaldetarako UBSa ekoizteko, termo elektrikoak dituzte. Kontsumoaren % 90 elektrikoa da, eta horren zati handi bat EITBren jarduera propioa egiteko behar den ekipamenduari dagokio, esaterako, telekomunikazio-, informatika- edo ekoizpen-ekipoei.


Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi, baina LED lanparak dituzten eremuak ere badaude. Erregulazio- eta kontrol-sistemak dituzte argi naturala aprobetxatzeko.

Gasteizko egoitza etxebizitza-erakin baten beheko solairuan dago. Egoitza 2001ean eraberritu zen, eta 1.007 m²-ko azalera erabilgarri aire-girogailuduna du. 4 bero-ponpa eta hozte-makina bat ditu, behar duen berokuntzaz eta hozketaz hornitzeko.

Iruñeko egoitza bulego-erakin baten bigarren solairuan dago. Egoitza 2022an eraberritu zen, eta 400 m²-ko azalera erabilgarri aire-girogailuduna du. *Fan coil*ak ditu eta hotza/beroa egoitza-erakineko hozkailuek eta galdarek ematen dituzte, behar den berokuntza eta hozketa sortzeko.

31. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	9.606.687	9.454.814	9.647.783	9.409.615	9.282.820
Gas Natural	1.134.137	939.788	1.255.784	1.055.197	1.993.844
Renovables					54.000
Total	10.740.824	10.394.602	10.903.567	10.464.812	11.330.664



EITB energia-jarduketarako unitateari EAEko sektore publikoaren guztizko kontsumoaren % 4,5 dagokio.

Itelazpi

Itelazpi SA EAEko sektore publikoko telekomunikazio-sare eta -azpiegitura publikoak kudeatzen dituen sozietate publikoa da.


186 telekomunikazio-zentro ditu, telekomunikazio-dorrez eta ekipamenduak hartzeko etxolez osatuak. Argiztapen-ekipo fluoreszenteak, aire estratifikatua ateratzeko haizagailuak eta airea girotzeko ekiporen bat dute horietako gehienek. Energia-kontsumoaren % 100 elektrikoa da.

Langileen etengabeko jarduera duen zentro bakarra erakundearen egoitza da, Zamudion kokatua. Hotza zein beroa emateko airea girotzeko sistema *split* eta VRV motako bero-ponpen bidez gauzatzen da. Argiztapenari dagokionez, LED luminariak dira nagusi. Berriki hobekuntzak ezarri dira inguratzailean, aireztapenean eta airea girotzeko sisteman. Azken horien kasuan, kontsigna-tenperaturak doitu. Hobekuntza horien guztien ondorioz, eraikinak A kalifikazioa eskuratu du energia primario berriztaezinaren kontsumoan.

Itelazpi EAEko sektore publikoko energia-kontsumoaren % 2,1aren arduraduna da. Kontsumitutako energia elektrikoa sare elektrikitik dator, % 0,5 izan ezik, ehuneko hori berriztagarrietatik baitator. Egoitza zentralak eta Deba, El Mazo, Hirumugeta, Narbaiza eta Olanoko antenek instalazio berriztagarriak dituzte; guztira 96 kWp dituzte instalatuta fotovoltaiakoan eta 18 kW, berriz, minieolikoan.

32. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	10.536.133	9.924.555	9.950.149	10.936.805	10.272.508
Renovables	7.651	12.651	16.532	34.767	80.532
Total	10.543.784	9.937.206	9.966.681	10.971.572	10.353.040



Itelazpin energia-kontsumoa % 1,8 murriztu da⁷ 2015etik 2021era bitartean, 13 zentroko hazkundera egon bada ere denbora-tarte horretan (18 zentro berri lanean eta 5 zentro desaktibatuta). Zehaztasun handiagoko analisi batek agerian uzten du 96 zentrotan energia-kontsumoak gora egin duela aztertutako aldirian. Igoera hori zerbitzu berriak eskatzeagatik gertatu da batik bat.

Parke teknologikoak

Plan honen ondorioetarako, Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea (EPKS) 34 eraikinez osatuta dago, egoitza hauetan banatuta daude eraikinok:

- Araba (7 eraikin). Miñao.
- Gipuzkoa (10 eraikin). Donostia (Miramon) eta Hernani.
- Bizkaia (17 eraikin). Derio, Zamudio eta Leioa. Ortuellan egoitza berri bat dago aurreikusita (Ezkerralde-Meatzaldeko parkea).

Parke horiek salmenta eta alokairurako guneak dituzte; izan ere, parkeek kudeatutako eraikinak hainbat modalitatekoak dira:

- 1. mota (Erabatekoa): EPKSk eraikin osoa kudeatzen du eta bere gain hartzen du faktura energetiko osoa.

⁷ Murrizketa hori EEEren datu-basean agertzen diren zifrekin kalkulatzen da. Itelazpik egindako kalkuluaren arabera, murrizketa % 3,8koa da. Aldeak analizatzeke.

- 2. mota (Ertaina): EPKSk instalazio zentralizatu bat kudeatzen du. Faktura energetikoan banatzen dira EPKSk (eremu komunak eta garajeak) eta enpresa errentariek osatzen dituzten komunitate-gastuak.
- 3. mota (Mugatua): Eraikineko garajeei, eremu komunei eta argiteria publikoari dagozkien airea girotzeko, argiztapenerako eta abarretarako instalazioak kudeatzen ditu EPKSk, eta dagokion faktura energetikoaz ere arduratzen da.
- 4.1 mota. EPKSk % 50eko jabekidetzat minoritarioa du.
- 4.2 mota. EPKSk % 50eko jabekidetzat minoritarioa du, eta jasangarritasun-planari esker, etorkizunean are gehiago murriztuko dela aurreikusten da.


Airea girotzeko zerbitzua erabiltzailearen esku dagoen kasuetan, alderdi komunitateko energia-kontsumoak bakarrik hartu dira kontuan (igogailuak, eskailerak, garajeak, etab.).

Gainera, parkeek argiteria publikoko instalazioak dituzte bideetan, eta parkeek kudeatzen dituzte instalazio horiek. Kasu batzuetan, argiteria publikoko instalazio horiek hornidura-kontratu propioak dituzte; beste batzuetan, berriz, hurbileko eraikinetako hornidura-kontratuekin lotuta daude.

Parke teknologikoen unitatea EAEko sektore publikoaren guztizko kontsumoaren % 3,4 da; kontsumo nagusia elektrikoa da (% 62); horren ondoren, gas naturala dago (% 37) eta azkenik, berriztagarriak daude (% 1,2). Energia-kontsumoa % 7,7 igo da 2015-2021 denbora-tartean. Alabaina, azalera aire-girogailudunak gora egin du: 2015ean 134.098 m² zen; 2021ean, berriz, 140.537 m². Horrenbestez, metro karratu bakoitzeko kontsumoa % 1 murriztu da denbora-tarte horretan.

33. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	5.604.406	5.317.623	5.689.173	5.352.740	5.494.117
Gas Natural	2.469.794	2.502.740	2.879.868	2.441.836	3.101.971
Renovables			87.475	87.475	100.520
Total	8.074.199	7.820.363	8.656.516	7.882.051	8.696.608



EPKSk askotariko ezaugarriak dituzten eraikinak kudeatzen ditu, gehienak 1979ko EOA edo EKT araudiaren arabera eraikiak. Eta azalera aire-girogailuduna 500 eta 13.200 m² bitartekoak dira, gehienak 3.000-4.000 m²-koak.

Inguratzailereen prestazioei dagokienez, gehienek beira bikoitz isolamendu termikodun eta aire-ganberadunak dituzte, eta ohikoa da, gainera, eraikinetan itxituren ehuneko handi bat beirazkoa izatea.

Oro har, airea girotzeko bero-ponpak izaten dituzte, baina berokuntzarako gas-galdarak eta hozte-dorreak edo -makina ere existitzen dira, airetiko banaketa termikorako sistema batekin, aire-girotzailuen eta *fan coil*en bitartez. UBSaren kontsumo eskasa termo elektrikoaren bidez gertatzen da kasu askotan. Bero-ponpak/ekipo zatituak ere badaude, nola berokuntzarako hala hozketarako balio dutenak.

Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi, baina LED lanparak ere badaude.

Parkeek 8 instalazio fotovoltaiko eta geotermia-instalazio bat dituzte; aerotermiakoa Zamudioko 602. eraikinean dago (antzinako BTEK).

EPKSkon eraikinen inbentariotik, 2 eraikinek A edo B kalifikazio energetikoa dute, 23k D edo E kalifikazioa eta 7k, azkenik, F edo G kalifikazioa.

Euskal Trenbide Sarea (ETS)

Euskal Trenbide Sareari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko trenbide-azpiegiturak eraikitzeko, kontserbatzeko, kudeatzeko eta administratzeko ardura. ETSk ez dihardu sare honetan, Euskotrenek baizik.

Euskotrenek eta ETSk EAEko sektore publikoaren mendeko tren, tranbia eta errepideko autobusen azpiegiturak eta zerbitzuak kudeatzen dituzte. Mugikortasun-zerbitzuen ondoriozko kontsumoak bi energia-jarduketarako unitateen guztizko kontsumoaren % 82 inguru dira. Tren-trakzioaren kontsumoak ez dira apartatu honetan sartu, mugikortasun-atalean baizik.


ETSk elektrizitate-hornidurako 32 puntu kudeatzen ditu erdi-tentsioan, eta beste 98, berriz, behe-tentsioan. Erdi-tentsioaren puntuaren artean, 27 tren-trakzioarako hornidurei dagozkie, eta 4 beste, ordea, tailer eta instalazio batzuei: Lebario eta Arasoko tailerrak, Atxuri (eraikina eta tailerrak) eta Lugaritz. Behe-tentsioaren hornidurak Bilboko tren-geltokiei eta bulegoiei dagozkie.

ETSren bulego nagusiak Bilbon daude, duela gutxi fatxada zaharberritu zaion eraikin batean. Gainera, ETSk Atxurin dituen instalazioen barruan Euskotrenen bulego nagusiak daude.

Geltokiak oso askotarikoak dira. Handienek eraikin aire-girotzailudun txiki bat izaten dute, eta hor egon ohi dira, orokorrean, bulegoa, ataria, komunak/aldagelak eta gela/biltegiaren bat. Komun eta dutxetarako UBSa ekoizteko, termo elektrikoak izaten dituzte. Ekipo zatituak ere izaten dituzte bulegoetarako (bero-ponpak), nola hozkuntzarako hala berokuntzarako, bai atarietarako, bai seinaleztapen- eta kontrol-ekipoak dituzten geletarako. Estazio handienetan, gainera, eskailera mekanikoak eta igogailuak ere garrantzitsuak dira.

34. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	5.687.532	5.643.391	5.341.014	5.029.167	5.129.835
Gas Natural	2.185.249	1.465.467	1.434.827	1.192.357	1.455.514
Renovables				52.000	52.000
Total	7.872.781	7.108.858	6.775.841	6.273.524	6.637.349



Tren-trakzioko kontsumoa kontuan hartu gabe, ETSri dagokio EAEko sektore publikoko eraikin eta instalazioetako energia-kontsumoaren % 1,4. Energia elektrikoa kontsumo horren % 77 da. Energia berriztagarriei dagokienez, ETSk 72 kWp-ko instalazio fotovoltaiko bat du Kukullagako geltokian (Etxebarrin); izan ere, ETSren eraikin eta instalazioetako kontsumoaren % 1 baino gutxiago dagokio geltoki horri.

EJIE

EJIE Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen egoitza Gasteizen dago, 1988ko eraikin batean. Lau solairutan banatuta dago eta 6.180 m²-ko azalera erabilgarria du; datuak prozesatzeko zentroaren (DPZ) bulego-eremua da nabarmentzekoa.

DPZk kontsumitzen du EJIEren energia gehien. Datuak prozesatzeko ekipoen kontsumoaz gain, energia gehiago kontsumitu behar da aretotik beroa erazteko eta ekipoa ez berotzeko. Horregatik, Jaurlaritza osoan azalera-unitate bakoitzeko energia-kontsumo handiena duen eraikina da.

Fatxadek ez dute isolamendu termikorik eraikina aspaldi eraiki zelako, baina bai, ordea, aluminiozko arotzeriak, beira bikoitz aire-ganberadunekin.

Datuak prozesatzeko zentroa hainbat sistemaren bidez hozten da. Bulego-moduluan erabiltzen diren bero-ponpez gain, aire-ura motako 2 hozte-makina ditu, 4 aire-girogailu ur hotzez hornitzen dutenak. Bai eta zuzeneko espantsiorako aire-girogailuak ere.


Bestalde, airea girotzeko tratamenduaz arduratzen diren bi haizatze-unitate daude, eta kanpoko airearen kondizio termikoak aprobeztatzen dituzte unitate horiek (*free cooling*).

Eraikinak ez du erregai fosilik usatzen. Bulego-moduluak bi bero-ponpa ditu, berokuntzarako eta hozketarako beroa berreskuratzen dutenak, airtiko banaketa termikorako sistema batekin, aire-girogailuen eta *fan coil*en bitartez. Gainera, zuzeneko espantsiorako sistemak ere baditu, sistema zentralizatu nagusiaren osagarri gisa. Argiztapenari dagokionez, LED luminariak dira nagusi.

Eraikinak 40 kWp-ko instalazio fotovoltaiko bat du autokontsumorako; 2021ean instalatu zen hura, eta energia-kontsumoaren % 1 baino gutxiago ekartzen dio. Gainerako kontsumoa elektrikoa da.

35. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	5.330.683	5.123.745	5.167.673	6.266.689	6.091.348
Renovables				44.000	44.000
Total	5.330.683	5.123.745	5.167.673	6.310.689	6.135.348



EJIEen instalatutako ekipoak gero eta efizienteagoak diren arren, gero eta zerbitzari gehiago daudenez eta geroz eta gehiago usatzen direnez, EJIEko kontsumoak gora egin du azken urteotan. EJIEen urteko energia-kontsumoa 6.135 MWh-koa da, hau da, EAEko sektore publikoaren guztizkoaren % 1,3.

EJIEren eraikinak A kalifikazio energetikoa du energia-kontsumoan.

Nekazaritza

Nekazaritza Saila honako eraikin hauetatik osatuta dago:

- NEIKERren egoitza Derion.
- NEIKER eta HAZIren egoitzak Arkautin (Gasteiz).
- HAZI Fundazioaren egoitza Abadiñon. Marketina eta ziurtagiriak.
- HAZI Fundazioaren egoitza Donostian.

NEIKERrek (Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea) Derion duen egoitza 1979an eraiki eta 1998an birgaitutako 4 eraikinez osatuta dago, Derioko Berreaga kalean. Horietako hiruk laborategia eta bulegoak dituzte, eta bestea jantoki gisa erabiltzen da. Aire girotua duen azalera 5.300 m²-koa da guztira. Aluminiozko arotzeriazko leihoak dituzte, beira bikoitz aire-ganberadunekin. Eraikinetako batek isolamendu termikoa du kartoi-igeltsuzko barne-estradosatuen medioz.

Instalazio termikoei dagokienez, eraikin bakoitzak bere ekipo propioak ditu. Guztira, berokuntza eta UBSrako ur beroa ekoizteko 3 gas-galdara eta lurrun-galdara bat dituzte. Hozketari gagozkiola, halaber, hozte-makinak ere badituzte. Jantoki-eraikinak bero-ponpa bat du bi zerbitzuetarako. Emisio-ekipo gisa, erradiadoreak, fan coilak eta aerotermoak ditu multzoak.

Argiztapenari dagokionez, ekipo fluoreszenteak dira nagusi. Eguzki-instalazio termikoa eta 60 kW-ko instalazio fotovoltaikoa ere baditu, sarera saltzeko.

Neiker eta Hazi multzoa, (Arkauti, Gasteiz), 1950ean eraikitako hainbat eraikinez osatuta dago; bi gunetan biltzen dira eraikin horiek batik bat. *Eremu nagusi* deritzona: Ekialdeko eraikinaz – eraikin nagusiaz–, Mendebaldeko eraikinaz eta Barneko Mendebaldeko eraikinaz osatuta dagoena. Eta laborategi eta berotegien eremu deritzona, hainbat eraikinez osatua.

Arkauti Multzoko eraikinek antzeko eraikuntza-ezaugarriak dituzte. Gehienak isolamendu termikorik gabeko adreiluzko fatxadak dituzten eraikinak dira. Estalkiak bi isurikoak dira, teila arabiarrezkoak, pabiloietan izan ezik (hor metalezkoak dira). Bao gehienak egurrezko profilez eta beira monolitikoz eginak badira ere, PVCzko profilez eta beira bikoitz aire-ganberadunetz egindako baoak ere badaude.

Multzoak honako instalazio hauek ditu premia termikoak asetzeko: biomasa-galdara bat, multzoaren hainbat eremu berokuntzaz hornitzeko; eta instalazio geotermiko bat, energia-zerbitzuetako enpresa banak kudeatutako beste eremu batzuk berokuntzaz eta hozketaz hornitzeko. Gainera, hotza eta beroa sortzeko zuzeneko espantsiorako hainbat bero-ponpa daude, bai eta UBSa ekoizteko hainbat termo elektriko ere.

Bero-banaketa *fan coil*, aire-girogailu eta erradiadoreen bidez egiten da. Argiztapenari dagokionez, ekipo fluoreszenteak dira nagusi.

Multzoak 120 kWp-ko instalazio fotovoltaiko bat du aparkalekuaren estalkian; EEEK kudeatzen du eta elektrizitatea zuzenean sartzen da sarean.

HAZI fundazioak Abadiñon duen egoitza Muntzaratz dorretxean dago; estilo errenazentistako eraikin monumentalak da Muntzaratz, 1590ekoa eta interes kulturalakotzat jotzen da. Eraikina birgaituta dago gaur egun, 750 m²-ko azalera erabilgarri aire-girogailuduna du, 5 altueratan banatuta gutxi gorabehera. Estalkiak eta fatxadek isolamendu termikoa dute, eta beira bikoitzeko, ardatz aldagarriko eta PVCzko leihoz osatuta daude baoak nagusiki.

Berokuntza-premiak asetzeko, eraikinak gasolio-galdara bat du, burdina urtuzko erradiadoreei konektatuta dagoena. Udan giroa hoztu behar denez, aire-girogailu bati eta *fan coilei* konektatutako hozte-makina bat erabiltzen dute. Sortzen den UBS gutxia termo elektriko batez sortzen da.


Argiztapenari dagokionez, halogenuro metalikozko lanparak eta lanpara halogeno dikrioikoak dituzten luminariak dira nagusi. Lanpara fluoreszenteak eta LED lanparak dituzten luminariak ere ikusten dira.

HAZiren Donostiako egoitzak 200 m² baino zertxobait gehiago ditu eta hirugarrenei alokatuta dago; beraz, ez da kontuan hartzen jarduketa-planean.

Nekazaritza energia-jarduketarako unitateari EAEko sektore publikoaren guztizko kontsumoaren % 1,2 dagokio (zehazki, 5.810 MWh). Elektrizitatea kontsumo horren % 45 da, berriztagarriak, berriz, % 34 eta gas naturala, azkenik, % 19.

36. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	154.942	143.176	92.202	89.620	89.620
Electricidad	2.553.543	2.771.942	2.672.352	2.784.995	2.610.437
Gas Natural	1.513.766	1.481.213	1.142.794	1.075.267	1.107.123
Renovables	1.272.698	1.597.961	1.614.647	1.582.083	2.003.140
Total	5.494.949	5.994.292	5.521.995	5.531.965	5.810.320



Nekazaritza energia-jarduketarako unitateak energetikoki ziurtatutako eraikinen % 70ek D, E edo G kalifikazioak dituzte energia-kontsumoan. Gainerako % 30ak C kalifikazio energetikoa du.

Arkautiko Akademia

Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak (Gasteiz) prestakuntzarako 32 eraikin ditu, aire girotua duen zalera 48.000 m² ingurukoa izanik.

Eraikin guztietan instalatutako ekipoek gasolioa, propanoa eta elektrizitatea erabiltzen dituzte berokuntzako, UBSarekin eta hozte-sistemekin lotutako premiak asetzeko. Eraikinetako soluzioak oso desberdinak dira, eta ez dago irizpide uniformerik. Gas propanoa sukalderako erabiltzen da batik bat, baina txaletetako berokuntzan eta UBSan zein ibilgailu-parkearen eraikinean ere bai. Sorgailu termikoen zerrenda hauek osatzen dute: 7 galdara zentral, 5 horma-galdara, aire beroko 4 sorgailu, 7 hozte-makina, 24 hozte-ekipo zatitu, 6 *multisplit*, 15 bero-ponpa eta 1 VRV.

Eraikinetan 5 gasolio-depositu eta 3 propano-depositu daude. Petrolioaren eratorriek osatzen dute Akademiaren energia-kontsumo nagusia: guztizkoaren % 69, hain justu.

Ekipamenduen antzintasuna askotarikoa denez, hozgarri desberdinak ikusten dira hozte-sistemen artean, besteak beste, R22 hozgarria.


Akademiak 202 kWp-ko instalazio fotovoltaiko bat du autokontsumorako, sei estalkiren gainean jarria; 984 m²-ko azalera du instalazioak guztira.

Orain arte, Akademiak ez zuen gas naturalik erabiltzen; alabaina, duela gutxi gas naturalaren sarea Akademiarraino zabaldu da, eta, horrenbestez, erregai hori erabilgarri dago instalazio zaharrituenetan aldaketak egiteko. Hurrengo urteotan instalazioetatik gasolioaren eta gas propanoaren erabilera ezabatzeke jomuga du ezarrita Arkautik. 2022an, Akademia hiru galdara-gela eraberritzeko prozesuan dago; hala, gaur egungo propano- eta gasolio-ekipoen ordez gas naturaleko galdarak eta eguzki-panel termikoak instalatuko dira UBSa ekoizteko. Gaur egungo propano- eta gasolio-ekipoen ordez gas naturaleko galdarak eta eguzki-panel termikoak instalatuko dira UBSa ekoizteko. Beste bi galdara-gelak berritzeko, gimnasioko eta igerilekuko

eraikinari zerbitzua emango dioten biomasa-galdarak instalatzeko aukera aurreikusten da, baita bi sareak konektatzeko ere, oinarriko biomassarekin funtzionatzeko eta puntak gasarekin estaltzeko moduan.

37. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	3.671.894	3.581.394	4.082.625	3.516.369	3.602.434
Electricidad	1.875.741	1.843.022	1.855.193	1.430.198	1.396.681
Renovables				140.000	207.277
Total	5.547.635	5.424.416	5.937.818	5.086.567	5.206.392



Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokio EAEko sektore publikoko eraikin guztien guztizko kontsumoaren % 2,2.

Lanbide


Euskal Enplegu Zerbitzua, Lanbide, EAEko sektore publikoko erakunde autonomoa da, Lan eta Enplegu Sailekoa. Zerbitzu Zentralen eraikin bat, 3 lurralde-bulego eta 42 enplegu-bulego ditu, EAE osoan banatuta. Bertan, bitartekotza- eta orientazio-zerbitzuak ematen dira enplegua bilatzeko prozesuan.

Bulego gehienak bizitegi-eraikinetako beheko solairuetan daude. Lanbideren 46 bulegoetatik, 20 EAEko sektore publikoaren jabetzakoak dira, beste 20, berriz, partikularrei alokatutakoak eta gainerako 6ak, azkenik, udalei alokatutakoak.

Lanbideren energia-kontsumoa EAEko sektore publikoaren guztizko kontsumoaren % 1,4 da. Lanbideren kontsumoaren % 55 elektrikoa da; gas naturala eta petrolioaren eratorriak, berriz, % 41, eta % 3,7 dira, hurrenez hurren.

38. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	110.260	82.670	138.250	132.278	132.278
Electricidad	1.992.367	1.987.590	1.766.834	1.920.689	1.970.898
Gas Natural	1.353.733	1.133.088	1.338.256	1.414.840	1.467.093
Total	3.456.360	3.203.348	3.243.340	3.467.807	3.570.269



Zerbitzu zentralen kasuan, aire girotua duen azalera 5.360 m² da, baina gainerako bulegoen kasuan, aire girotua duen azalera 80 m²-tik 1.000 m²-ra bitartekoa da. Zentroen multzoak 30.000 m²-ko azalera du guztira.

Lanbidek berokuntzarako bero-ponpak dituzten 22 bulego ditu (3k halaber, erradiadore elektriko lagungarriak ere bai), gas naturalezko galdara duten 14 bulego eta gasolio-galdara duten 2 bulego; gainera, 2 egoitza dagokien eraikineko berokuntza zentralari konektatuta daude.

Argiztapenari dagokionez, bulego gehienetan lanpara fluoreszenteak dira nagusi, baina *downlight* lanparak, halogenoak eta dikroikoak ere badaude. 3 bulegotan, orobat, zegoen argiaren ordeztu LED jarri da nagusiki.


Lanbidek erregulariki egokitzen ditu bere bulegoak tokiko premietara, urtean 3 bat egoitza ireki edo lekualdatzen baititu; azken urteotan Mungian, Gasteizen (Salburua, Zabalgana, Zaramaga), Durangon eta Arrasaten ireki ditu egoitzak, eta beste batzuk itxi ditu herri horietan.

Osasuna

Osasuna energia-jarduketarako unitatea hurrengo 8 eraikinez osatuta dago, Osasun Sailaren eta Kontsumobideren lurralde-ordezkaritzen egoitzak, eskualdeko zentroak eta laborategi bat izaki.

Osasuna energia-jarduketarako unitatearen eraikinek 22.100 m²-ko azalera aire-girogailuduna dute gutxi gorabehera. Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako eraikinaren eta Osasun Publikoko Laborategi Arauemailearen kasuetan izan ezik (2010ean eraiki ziren horiek, EKT-2006 araudiaren arabera), gainerako eraikinak 1979an EOA indarrean jarri aurretikoak dira; araudi horren bidez, inguratzailea osatzen duten itxituretan isolamendu termikoa sartzeko betebeharra ezarri zuten. 1979a baino lehenagoko eraikin horietako batzuetan, aluminiozko arotzeriak eta beira monolitikoak izanik, inguratzailea hobetzeko jarduketak egiten ari dira. Zenbait estalki eta fatxadatan isolamendua ari dira sartzeko, bai eta arotzeriak aluminiozko beste batzuekin eta beira bikoitz aire-ganberadun efizienteagoekin ordezkatzeko ere.

39. irudia. Energia-jarduketarako unitatean eraikin bakoitzeko izandako energia-kontsumoak.




Zentroetan girotzeko eta UBSa ekoizteko, Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren eraikinean izan ezik (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Bizkaiko Zuzendariorde), gehienek berokuntzarako eta hozkailuetarako gas-galdarak eta zuzeneko espantsiorako ekipoak (Split sistema) dituzte hozte-premiak betetzeko. Zuzeneko espantsiorako ekipo horietako askok hozgarri hidroklorofluorokarbonoak –adibidez, R22– erabiltzen dituzte; epe ertainean ordeztu egin behar dira halakoak. Emisio-ekipo gisa, erradiadoreak, sabaiko eta hormako *fan coil*ak eta aire-girogailuren bat ditugu. UBSa termo elektrikoen bidez ekoizten da eraikin gehienetan.

Gernikako eraikina duela gutxi eraberritu dute; orain, sistema geotermikoa du berokuntzaren eta UBSarekin lotutako premiak asetzeko. PGLzko galdara bat ere badu laguntza gisa.

Argiztapenari dagokionez, ekipo fluoreszenteak dira nagusi, baina argiztapena pixkanaka ari da ordeztzen LED teknologiarekin. Gernikako eraikinean LED lanparak dira nagusi.

40. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	200.000	200.000	205.214	205.214	5.214
Electricidad	1.832.456	1.874.188	2.018.737	1.926.056	1.976.047
Gas Natural	586.850	584.921	615.735	839.570	929.163
Renovables	40.548		40.548	40.548	40.548
Total	2.659.854	2.659.109	2.880.234	3.011.388	2.950.972



Osasuna energia-jarduketarako unitateari EAEko sektore publikoaren eraikin denen guztizko kontsumoaren % XX dagokio.

Euskotren

Euskotren Eusko Jaurlaritzaren mendeko garraio publikoko operadorea da, eta tren, tranbia, autobus eta salgai-garraioko zerbitzuak eskaintzen ditu. Euskotrenek ETSren azpiegiturak erabiltzen ditu bere eragiketan, bere azpiegiturez gainera:

- 2 kotxe-toki (autobusetarako bat Elgoibarren eta trenetarako beste bat Gernikan)
- 1 funikular (Larreinetakoa)
- Informaziorako eta tranbia-langileentzako 2 lokal
- 1 museo (Burdinbidearen Euskal Museoa)
- Autobusen mantentze-lanetarako 2 tailer (Leioan eta Zumaian)
- Tranbiaren mantentze-lanetarako 2 tailer (Bilbon eta Gasteizen)
- Trenen mantentze-lanetarako 1 tailer (Lutxana)

Euskotrenen kontsumo handienak Arason eta Lebarion kudeatzen dituen tailerretan gertatzen dira (ETSren jabetzakoak dira tailerrok, eta jada mintzatu gara horiei buruz). Plan honetan, Euskotreni esleitzen zaio kontsumoa, hura baita horien kudeatzailea.

Tailerrak nabe edo eraikin industrialagoak dira. Horien tamaina eta airea girotzearen mugak kontuan hartuta, normalean txapazko estalkiak eta igeltserotza- eta xafla-fatxada mistoak izaten dituzte, nahiz eta kasu batzuetan xaflazko sandwich panelak izan, isolamendu termikoarekin. Guztira, 9 tailerren azalera eraikia 63.500 m²-koa da, tailerren, kotxe-tokien eta bulego/zerbitzuen artean banatuta.

Zumaiako autobus-tailerrean gasolio-galdararen ordez biomasa-galdara bat instalatu da duela gutxi, baina gainerakoek (Atxuriko tranbia-tailerrak izan ezik) gas naturalezko galdarak eta erregailuak dituzte behar duten berokuntzaz hornitzeko. Bero-banaketa erradiadoreen eta aerotermoen bidez gauzatzen da. UBSa termo elektrikoaren bidez ekoizten da. Arasoko tailerrak eta Gasteizko tranbia-tailerrak, gainera, eguzki-instalazio termikoak dituzte, lagungarri gisa, UBSa ekoizteko.

Hozteko, gehienek bero-ponpak eta *fan coil*en bidezko banaketa dituzte. Tailerren batean hozte-makinak eta aire-girogailuak ere badaude. Argiztapenari dagokionez, ekipu fluoreszenteak dira nagusi. Orobat, sodio-lurrunezko lanpara eta lanpara halogeno ugari daude.


Gernikako eta Elgoibarko kotxe-tokietako eraikinak, tailerrak bezalaxe, industria-eraikinak dira. Kasu honetan, bi eraikinak ez daude girotuta, baina Elgoibarko kotxe-tokiek bulego txiki batzuk dituzte. UBSa ekoizteko termo elektrikoak baino ez dituzte. Argiztapenari dagokionez, ekipu fluoreszenteak dira nagusi.

Burdinbidearen Euskal Museoa (Azpeitia) 7 eraikinez osatuta dago, guztira 11.300 m²-ko azalera eraikia izanik. Gas naturaleko galdarak dituzte zonaren bateko berokuntzarako, eta termo elektrikoak, berriz, UBSa sortzeko. Argiztapenari dagokionez, museoan lanpara fluorezenteak eta halogenoak dira nagusi.

Euskotrenek beste eraikin batzuk ere baditu, hala nola Gasteizko tranbia-gidarientzako atsedeen-
lokala edo Larreinetako funikularraren muturrak lotzen dituzten bi eraikinak. Azken horiek 1.664 m²-ko azalera eraikia dute, gutxi gorabehera. Bero-ponpen bidez gauzatzen da nola berozko hala hotzeko aire-girotzeta. Argiteriak LED lanpara bezainbeste fluorezente ditu.

41. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	101.937	131.655	46.806	0	
Electricidad	1.326.571	1.149.336	1.179.531	1.187.219	1.051.060
Gas Natural	1.111.440	1.083.126	953.387	887.293	953.944
Renovables				152.529	152.529
Total	2.539.948	2.364.117	2.179.724	2.227.041	2.157.533



Duela gutxi, Euskotrenek gasolio-kontsumoa ezabatu du Zumaiako autobusen mantentze-lanetarako tailerrean, biomasarekin ordezkatu baitu. Euskotren osorako, elektrizitatea energia-kontsumoaren % 59 da, gas naturala % 38 eta biomasa % 2,7. Taulak Euskotrenen instalazioetako energia-kontsumoak jasotzen ditu. Kontsumo horiek ez dituzte barne hartzen Araso eta Lebarioko tailerretakoak, plan honen ondorioetarako ETSri esleitu baitzaizkio horiek.

Kultura

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila honako eraikin hauetaz osatuta dago:

- HABEren egoitza Donostian
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (Bilbo)
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (Gasteiz):
- Iragi, Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa (Oñati).
- Fadura Hobekuntza Teknikorako Zentroa —Basque Team—, Euskadi Kirola Fundazioa, Getxo
- Euskadiko Artxibo Historikoa, Bilbo


Euskadiko Artxibo Historikoa —Bilboko Maria Diaz de Haro kaleko 3an kokatua—, duela gutxi – 2012an— eraiki zen, EKT araudiaren arabera. Horrenbestez, ondo isolatutako eraikina da. Gutxi gorabehera 6.600 m²-ko azalera du eta 12 solairutan banatuta dago (horietako 4 sestrapean). Berokuntzarako gas naturaleko galdara bat du eta, hozkuntzarako, berriz, hozte-makina bat eta

zuzeneko espantsiorako 2 ekipo, airetiko banaketa termikorako sistema batekin, aire-girogailuen eta *fan coil*en bitartez. UBSa sortzeko, bero-ponpa bat du. Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi.

Fadura Hobekuntza Teknikorako Zentroa –Basque Team– Getxon dago. 1994an eraiki zen, EOA araudiaren arabera. 5.300 m² inguruko azalera du, 3 solairutan banatuta dago, eta kiroldegi bat ere badu. Sorkuntza termikoko sistema gisa, bi gas-galdara ditu berokuntzarako eta UBSrako, erradiadore bidezko banaketa termikoko sistema batez gainera. Bero-ponpa du, hozkuntzarako. Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi. Arotzeriak aluminiozkoak eta beira bikoitz aire-ganberadunak dira, baina ez oso estankoak.

HABEk Donostian duen egoitza nagusia Osakidetzako Ondarreta osasun-zentroarekin partekatutako eraikin bateko goiko solairuetan dago kokatuta, eta kudeaketa zentralizatu du. Aipatutako eraikinez gain, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren mende daude Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren bulegoak kokatuta dauden bizitegi-eraikinetako beheko solairuetan dauden 2 lokal txiki.


42. irudia. Energia-jarduketarako unitatean eraikin bakoitzeko izandako energia-kontsumoak.



Energia-jarduketarako unitatearen guztizko kontsumoa 1.829 MWh-koa da; horren erdia baino gehixeago gas naturala da, eta gainerakoa energia elektrikoa.

43. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	862.666	943.747	954.917	910.125	889.361
Gas Natural	903.750	966.734	998.066	890.620	939.381
Total	1.766.416	1.910.481	1.952.983	1.800.745	1.828.742



Lehendakaritza

Lehendakaritza Sailak bi eraikin kudeatzen ditu: Lehendakaritzaren eraikina eta Ajuriaenea (Gasteizen). Energiaren guztizko kontsumoa urtean 1,8 GWh ingurukoa da; horren % 80 Lehendakaritzaren eraikinari dagokio. Kontsumo horren % 72 gas naturalari dagokio; gainerakoa, berriz, energia elektrikoari.

Lehendakaritzako eraikinak oinplano karratu samarra eta erdiko atari handi bat ditu; eraikina 1990ean eraiki zen, EOA-79 araudiari jarraikiz. Horri dagokionez, azalera aire-girogailuduna 7.614 m²-koa da eta 4 solairutan banatuta dago. Fatxadek eta estalki lauek 5 cm-ko isolamendu termikoa dute; horrenbestez, eraiki zen urterako eraikinak jada bazituen transmitantzia termiko aski onak. Alabaina, kristalezko zonak hobetu egin daitezke, 6/8/6ko beira eta ZTHrik gabeko profilak baitituzte.

Berokuntzarako eta UBSrako beroa 4 galdara atmosferikoko bi multzo modularrekin sortzen da (745 kW-ko potentzia dute guztira). Erradiadore bidezko banaketa termikorako sistema bat du. Eraikinak batzar-aretoan baino ez zuen hozte-sistematik hasieran; alabaina, hozte-sistemaren bat duten lekuak ugaritu egin dira pixkanaka; hala, estalkian 37 kanpo-unitate jarri dira, eta horietako 23 VRV motakoak dira (hozgarri bolumen aldagarria). Unitate horietako askok hozgarri hidroklorofluorokarbonoak –adibidez, R22– erabiltzen dituzte; epe ertainean ordeztu egin beharko dira horiek.

Eraikinak aireztapen-ekipoak ere baditu (aire-ekarpina eta -erauzketa) bilera-geletan. Bulegoen aireztapena naturalki gauzatzen da leihoak irekiz.

Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi, baina goritasun-lanpara batzuk eta proiektzio-ekipoak ere badaude.

Energia berriztagarriak ezartzeko prozesuaren barruan, 2022an geotermia-instalazio bat jarri zen martxan Lehendakaritzako eraikinean, eta gas naturalaren kontsumoa nabarmen murriztea espero da. Kanpoko arotzeriak ordeztzea eta estalkian panel fotovoltaikoak instalatzea ere aurreikusten da.

Ajuria Enea hainbat eraikinez osatuta dago, eta Ajuriaenea jauregia bera –1920an eraikia– nabarmentzen da eraikin horien artean. Gainera, zaindarien etxea, jantokia, *office*-eraikina eta galdara-eraikina ere badaude.

Ajuriaenea Jauregiaren kasuan, azalera aire-girogailuduna 1.571 m²-koa da eta 5 solairutan banatuta dago (sotoa, beheko solairua eta 3 solairu). Berokuntza eta UBSa ekoizteko gas-galdara bat du, erradiadoreak izaki emisio-elementuak. Lehen solairuan, gainera, erradiadore elektrikoren bat dago. Bestalde, behar den hotza bero-ponpen bidez sortzen da; gainera, aire


hotza sabai aizunetan ezkutatutako hodian eta sareten bidez banatzen da. Eraiki ziren urtea kontuan hartuta, eraikinak ez du isolamendu termikorik itxituretan.

Argiztapenari dagokionez, lanpara halogenoak, goriak eta fluorezenteak dira nagusi. Hala eta guztiz ere, luminariak eta LED lanparak ere ikusten dira.

Zaindarien etxeke eta jantokiko eraikinek gas-galdara indibidualak dituzte berokuntzarekin eta UBSarekin lotutako premiak betetzeko. Erradiadoreak erabiltzen dituzte emisio-sistema gisa. Ez dute hotz-ekipamendurik, eta lanpara fluorezenteen eta halogenoen bidezko argiztapena da nagusi.

44. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	630.290	597.465	553.278	532.091	517.926
Gas Natural	1.200.212	1.041.569	1.086.711	1.158.319	1.304.971
Total	1.830.502	1.639.034	1.639.989	1.690.410	1.822.897



EKP

Euskadiko Kirol Portuak Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundea da, eta EAEko dartsena eta kirol-portu guztiak kudeatzea du xede.

8 eraikin ditu, EAEko hainbat portutan banatuta.

- 6 kapitaintza Hondarribi, Plentzia, Mutriku, Getaria, Bermeo eta Orioko portuetan
- EKPreko egoitza Gasteizen
- Portaaviones eraikina Donostian

Laster, zerrenda bi hauekin zabalduko dela aurreikusten da: batetik, Lekeitioko portuan eraikiko den kapitaintza bat; bestetik, kofradiaren eraikin berria –Bermeoko portuan– instalatuko den bulego berri bat. 2023an, gainera, Bermeoko egungo kapitaintza Artzako frontoiaren aldameneko lokal batera lekualdatuko dela aurreikusten da (Udalak laga zuen lokal hori).

400 m²-tik beherako azalera erabilgarria duten eraikinak dira. Gehienek erradiadore elektrikoak erabiltzen dituzte behar den beroa sortzeko; horietako bik, ordea, gas-galdarak dituzte. Behar duten hotza sortzeko, 3 eraikinek bero-ponpak dituzte. Eta UBSarekin lotutako eskaria asetzeko, termo elektrikoa erabiltzen dute gehienek.


Bermeo eta Mutrikuko portuetako kapitaintzak izan ezik (horietan, egurrezko eta beira monolitikoak leihu batzuk daude), gainerako eraikinek aluminiozko eta beira bikoitz aire-ganberaduneko arrotzeriak dituzte.

Argiztapenari dagokionez, Getariako Kapitaintzaren eraikinetan, Egoitza Zentralean eta Portaaviones eraikinean (Donostia), zegoen argiztapena LEDez ordezkatu da jada, eta gainerako eraikinetan, berriz, fluoreszenteak dira nagusi.

Eraikinetako kontsumoaz gain, EKPk energia kontsumitzen duten askotariko instalazioak ditu: kanpoko argiztapena, biltegiak, pantalanetarako hornidura, etab.

EKPk energia berriztagarriak ditu Portaaviones eraikinean (geotrukea) eta Orioko portuan, non eguzki-panel termikoen instalazio batek ur bero sanitarioz hornitzen duen.


45. irudia. Energia-jarduketarako unitatean eraikin bakoitzeko izandako energia-kontsumoak.



EKPren guztizko kontsumoa 1.208 MWh da urtean (Jaurlaritzaren guztizkoaren % 0,25 da hori). Kontsumo elektriko hori % 90ekoa da.

46. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	1.035.813	1.072.229	1.027.733	1.099.035	1.092.314
Gas Natural	66.505	66.505	69.585	81.283	103.282
Renovables			14.400	14.400	14.400
Total	1.102.318	1.138.734	1.111.718	1.194.718	1.209.996



EKPk kudeatzen dituen 8 eraikinetatik batek C kalifikazioa du energia-kontsumoan. Gainerakoak, berriz, D-G kalifikazioak dituzte.

Osalan

Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea EAEko sektore publikoko erakunde autonomoa da, Lan eta Enplegu Sailaren mendekoa, eta langileen segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten jarduketak kudeatu, koordinatu eta sustatzeko eginkizuna du.

Hiru egoitza ditu, lurralde historiko bakoitzean bat. Kokatuta dauden eraikinak titulartasun partekatukoak eta/edo hirugarrenen titulartasunekoak dira.

- Zerbitzu Zentralak eta Bizkaiko Lurralde Zentroa (Barakaldo)
- Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza (Donostia)
- Arabako Lurralde Ordezkaritza (Gasteiz)

Osalanen Gipuzkoako Lurralde Zentroak Donostian du egungo egoitza, behin-behinean, Udalaren jabetzako eraikin batean. Gaur egun, mantentze- eta birgaitze-lanak egiten ari dira bertan, inguratzailer, instalazio elektriko eta aire-girogailuetan ez ezik, ibilgailuak kargatzeko puntu elektrikoaren instalazioan ere bai.

Osalanen Arabako Lurralde Zentroak Gasteizen du egungo egoitza, behin-behinean, Lanbideri atxikitako eraikin batean (Lanbide Zerbitzu Zentralak, Jose Atxotegi kalea 1). Dokumentu honetan, eraikin horretan Osalanek gauzatutako kontsumoak Lanbideri dagozkionetan sartu dira. Gasteizko erdigunean kokaturiko eraikin berri batera lekualdatzeko aukera aurreikusi da, eraberritze integral baten zain.


Barakaldoko eraikinean daude erakundearen Zerbitzu Nagusiak eta Bizkaiko Lurralde Zentroaren egoitza. Eraikin hori, Osalani atxikita badago ere, INSST Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin –estatu-erakunde batekin– partekatutako titulartasunekoak da. 1980an eraikitako eraikina da, bi bolumenez osatua (bat 2 solairukoa eta bestea, berriz, 5ekoa), eta Osalanek 6.270 m²-ko azalera erabilgarria okupatzen du guztira.

Berokuntzarako gasoliozko bi galdara eta hozketarako beste bi hozte-makina ditu, airetiko banaketa termikorako sistema batekin, zortzi aire-girogailuren bitartez. Erradiadore elektrikoak eta ekipo autonomo aerotermikoak ere baditu, eremu jakin batzuk berotzeko edo hozteko. Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi.

Energia-jarduketarako unitatearen kontsumoa 839 MWh-koa izan zen 2021ean; kontsumo horren % 60 elektrizitateari dagokio, % 22 petrolioaren eratorriei eta % 18, azkenik, gas naturalari. Azalera aire-girogailuduna 8.500 m²-koa da guztira. Zifra horiek Bizkaiko eta Gipuzkoako egoitzak barne hartzen dituzte, eta Arabako behin-behineko egoitzari dagozkion zifrak, berriz, Lanbideren zenbaketan sartu dira.

47. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	216.148	216.148	378.275	282.785	189.120
Electricidad	633.786	609.006	553.650	479.537	502.406
Gas Natural	117.492	118.390	125.344	117.928	147.925
Total	967.426	943.544	1.057.269	880.250	839.451



Etxebizitza

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren mendeko eraikinak honako hauek dira: Visasaren eta Alokabideren bulego nagusiak, Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategia Gasteizen, eta Visesak Bizkaian eta Gipuzkoan dituen bulegoak bezeroari arreta emateko. Gainera, alokairu babestuko 7.700 etxebizitza publiko daude, EAEko sektore publikoaren jabetzakoak eta, Etxebizitza Zuzendaritzaren eta Alokabideren mendekoak izanik, Alokabidek kudeatzen dituenak.

Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategiak 3 eraikin ditu, guztira 3.679 m²-ko azalera dutenak: eraikin nagusia, non administrazio-eremua, laborategiak, entseguetarako I. eta II. pabiloiak eta konferentzia-aretoa dauden; Laborategi Fisiko-Mekaniko-Kimikoa; eta instalazio-eraikina.

Laborategi Fisiko-Kimiko-Mekanikoa 1975ean eraiki zen. Ez du isolamendu termikorik itxituretan, baina bai, ordea, aluminiozko arotzeriak eta beira monolitikoak. Eraikinak gas naturalezko galdara bat du ur bero sanitarioa eta berokuntza ekoizteko. Bero-banaketa erradiadoreen bidez egiten da. Eta Split motako zuzeneko espantsiorako ekipoa, hotza sortzeko. Batez ere, *cassette* motako barne-unitateak ditu, unitate terminal gisa.

Eraikin nagusia eta instalazio-eraikina 1996tik 2003ra bitartean eraiki ziren. Aluminiozko arotzeriak dituzte, baita beira bikoitz aire-ganberadunak eta isolamendu termikoa ere itxituretan.

Eraikin nagusiak gas naturaleko galdara bat du instalazio-eraikinean, behar den berokuntzaz hornitzeko. Emisioa erradiadore eta *fan coilen* bidez gauzatzen da. UBSa ekoizteko, termo elektriko bat dago I. pabiloian. Hotz-eskaria, berriz, zuzeneko espantsiorako sistemen medioz estaltzen da (Split sistema), baita 2 hozte-makinaren bidez ere laborategietako prozesuei hotza emateko. Gainera, zentroak gas-berogailuak ere baditu, 1. pabiloiko eta akustika-laborategiko berokuntza-tratamendurako elementu gisa.

Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi bi eraikinetan.

Gaur egun, laborategiak eguzki-instalazio fotovoltaiko bat du, 80 kWp-ko potentzia izanik sarerako injekzioaren modalitatean.

Visesak Bizkaian bezeroari arreta emateko bulegoaren kasuan, Alokabidek hartutako lokal batean dago —zehazki, Bilboko etxebizitza-eraikin baten beheko solairuan—; 1.469 m²-koa da azalera aire-girogailuduna. 2019an, lokala eraberritu egin zen, EKTk ezarritakoak betez. Fatxadek isolamendu termikoa dute, eta arotzeriak aluminiozkoak dira, ZTHarekin, emisibitate baxuko beira bikoitzarekin eta aire-kamera argondunarekin.

Girotzeko hotza eta beroa VRV eta Split motako zuzeneko espantsiorako sistemen bidez sortzen da. Zentroak airea tratatzeko lau unitate ditu, bero-berreskuragailuekin. Elementu terminal gisa, hormako *fan coil*ak eta hodi saretadunak baliatzen dituzte.

Argiztapenari dagokionez, luminariak eta LED lanparak ditu lokalak. Horregatik guztiagatik, lokalak efizientzia energetikoaren ziurtagiri bat du, A bikoitzeko gisa sailkatua.

Visesaren egoitza nagusia eta bezeroari arreta emateko Arabako bulegoa 14 solairuko eraikin batean daude. Visesak, Alokabiderek batera, eraikin horretako 7 solairu hartzen ditu, eta azalera aire-girogailuduna 4.926 m²-koa da. Eraikinak isolamendu termikoa du inguratzailean, 2008an eraiki baitzen, 2006ko EKTan ezarritakoa betez.

Zentroak VRV motako zuzeneko espantsiorako ekipoak ditu, batez ere lurreko *fan coil*etara konektatuak, guneak berotzeko eta hozteko. Zentroak airea tratatzeko lau unitate ere baditu, bero-berreskuragailuekin.


Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi (T5, T8 eta trinkoak), baina LED lanparak ere badaude. Eraikinaren kalifikazio energetikoa B bikoitza da.

Villa Ulialde eraikinak gizarte-etxearen erabilera hartzen du; sestra gaineko 3 solairu ditu; azalera aire-girogailuduna 387 m²-koa da. 1913an eraikia, 2016tik 2017ra bitartean eraberritu zen eraikina; zehazki, fatxadak, baoak eta estalkia zaharberritu ziren. Alabaina, isolamendu termikoa baino ez zen erantsi estalkian.

Zentroko berokuntza-premiak 6 butano-berogailuren bidez betetzen dira. Gainera, UBSa ekoizteko gas-berogailu bat ere badu. Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi, eta, ondoren, LEDak, goriak eta halogenoak.

48. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	763.327	756.737	552.616	601.634	609.766
Gas Natural	172.703	176.679	147.700	153.677	183.100
Total	936.030	933.416	700.316	755.311	792.866



SPRILUR


SPRILUR SA sozietatea SPRI taldearen parte da eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikita dago. Bere jarduera nagusia enpresa-poligonoen garapena sustatzea eta kudeatzea da, lurzoru urbanizatua egokituz eta pabiloi modularrak eta bulegoak eraikiz. Zerbitzu hori euren enpresa-jardueretara egokitutako kokapen egokiak behar dituzten enpresei zuzenduta dago.

20 eraikin ditu, eta horietako gehienak 50-300 m²-ko bulegoek —hainbat industrialdetan kokatuek— hartzen dituzte partzialki. Industrialdeak SPRILURren gehiengo partaidetza duten sozietateen bidez kudeatzen dira (beste administrazio publiko batzuek ere parte hartzen dute horietan, nolana ere).

Energia-jarduketarako unitate honetan kontuan hartu diren kontsumoak SPRILURrek kudeatutako eraikin eta instalazioenak eta industrialdeenak dira, eta inola ere ez horietan kokatutako enpresenak (horiek zuzenean kudeatzen dituzte euren kontsumo propioak). Energia-jarduketarako unitate honen energia-kontsumoa 736 MWh-koa izan zen 2021ean. Energia-kontsumoaren % 70 elektrikoa da, % 26 geotrukea eta % 3,7 baino ez dator erregai fosiletatik.

49. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	27.175	27.175	27.175	27.175	27.175
Electricidad	469.498	449.501	528.866	468.912	513.853
Renovables				124.661	195.146
Total	496.673	476.676	556.041	620.748	736.174



Bizkaia Sortaldeko Industrialdean kokatutako bulegoak izan ezik (propano gasezko galdara bat dute hor behar duten beroa ekoizteko), SPRILURren eraikin eta bulego guztietako gainerako kontsumoak elektrikoak dira.

Berokuntza eta hozketa bero-ponpa aerotermikoen eta aire girotua jariatzen duten *fan coil* motako barne-unitateen bidez sortzen da gehienbat. Kasu batzuetan, UBSaren ekoizpena ere badago. Oro har, instalazioak indibidualak dira, baina eraikin handienek instalazio zentralizatuak izan ohi dituzte, eraikineko bulegoei zerbitzua emateko.

Bulegoak dituzten eraikin gehienek isolamendu termikoa dute inguratzailean (1990etik aurrera eraikiak dira); bestalde, bulego guztiek dituzte beira bikoitz aire-ganberaduneko arotzeriak. Argiztapen fluoreszentea eta LED argiztapena dira nagusi, baina bulego batzuek lanpara goriekin jarraitzen dute.

SPRILURek kudeatzen dituen bi eraikin garrantzitsuenak Azucarera eraikina eta Urdulizko Industrialdea –duela gutxi birgaitua– dira. Biek bero-ponpa geotermikoak dituzte eta, gainera, Urdulizko Industrialdeak 8 kWp-ko instalazio fotovoltaikoa du autokontsumorako.

SPRILURrek energetikoki ziurtatutako eraikinetatik, % 78k D edo E kalifikazio energetikoa dute, eta % 22k B kalifikazioa dute.

Ogasuna eta Ekonomia

Ekonomia eta Ogasun Saila honako eraikin hauetaz osatuta dago:

- Burtsaren eraikina (Bilbo)
- Lehiaren Euskal Agintaritza (Bilbo)
- Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa (Gasteiz).
- 26 eraikin edo lokal, hainbat erakunderi laga zaizkionak, hala nola hauei: udalak, foru-aldundiak, kirol-federazioak eta Gurutze Gorria. Horietako batzuk ez dira erabiltzen gaur egun. Lokal gehienak jabeen erkidegoetan daude.

Jarduketa-planean kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundeek kudeatutako eraikinak. Gainera, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) –Ogasun eta Ekonomia Sailari atxikitako erakunde autonomoak– 2 eraikin ditu. Lokal bat Maximo Agirre kalean (Bilbon), Eusko Jaurlaritzako Baliabide Orokorren Zuzendaritzak kudeatua; eta beste lokal bat, Okendon kokatua (Donostian), Espainiaren jabetzakoa.

Bilboko Burtsaren eraikinean, Ogasun Sailak 4. solairua hartzen du, eta gainerako solairuak Bilboko Burtsari alokatuta daude. 1905ean eraiki zen eta 4.000 m²-ko azalera erabilgarria du gutxi gorabehera, sotoko solairuaren, solairuarearen, beheko solairuaren eta beste 5 solairuren artean banatua. Hozte-makina bat eta nola berotzeko hala hozteko hainbat bero-ponpa ditu, airetiko banaketa-sistema batekin. Termo elektrikoak ere baditu UBSa ekoizteko. Argiztapenari dagokionez, luminaria dikroikoak eta LED luminariak dira nagusi.


Lehiaren Euskal Agintaritzak Bilboko etxebizitza-erakin bateko bigarren solairuan dago. Eraikinaren berokuntza zentralizatu erabiltzen du berokuntzarekin eta UBSarekin lotutako eskariei erantzuteko. Gainera, hozketarako hainbat ekipo zatitu ditu. Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak dira nagusi.

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa Gasteizko Gaztelako Ateko eraikin batean dago (1995ean eraiki zen eraikin hori). 2.350 m² inguruko azalera erabilgarria du, sotoko solairuaren, beheko solairuaren eta beste hiru solairuren artean banatua. 2019az geroztik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia ere eraikin berean instalatu da (Lehendakaritzaren eraikinean zegoen horren aurretik). Horrenbestez, eraikineko energia-kontsumoak gora egin du. Berokuntzarako gas-galdara bat du eta, hozkuntzarako, berriz, hozte-makina bat eta bero-ponpa bat, airetiko banaketa termikorako sistema batekin, aire-girogailuen eta *fan coilen* bitartez.

Energia-jarduketarako unitateak 723 MWh kontsumitzen ditu guztira, eta kontsumo horren % 65 energia elektrikoa da.

50. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	814.795	768.367	522.426	417.223	470.911
Gas Natural	164.955	137.999	164.600	135.704	252.386
Total	979.750	906.366	687.026	552.927	723.297



Ogasun eta Ekonomia energia-jarduketarako unitatearen 3 eraikinen (lagatakoak ez dira zenbatzen) kalifikazio energetikoak F eta G dira.

Ingurumena

Ingurumena energia-jarduketarako unitatea –Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari dagokiona– honako eraikin hauez osatuta dago:

- 4 Ingurugela (Bilbo, Donostia, Legazpi eta Gasteiz)
- Ekoetxeen 5 egoitza (Txingudi; Arribaltza eta Gallarta [Meatzaldea Ekoetxearen parte biak]; Azpeitia; eta Urdaibai)

Gainera, energia-jarduketarako unitateak airearen kalitatea neurtzeko 7 kabina ditu (unitatearen energia-kontsumoaren % 10 baino gehixeago horiei dagokie).

Ekoetxeek bi xede dituzte: batetik, ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko jomuga bultzatu eta sustatzea; bestetik, herritarrek ingurumen-gaietan modu aktibo eta arduratsuan parte-

hartzea; nolahi ere, inguruko ondare natural eta kulturalen balioa nabarmentzen lagunduko dute beti.

Ingurugelek ez bezala, ekoetxeek 3.500 m²-ko azalera erabilgarri aire-girogailuduna duten eraikin osoak dituzte. Urdaibaiko, Azpeitiko eta Txingudiko eraikinek geotermia-sistemak dituzte berotzeko eta hozteko, zoru bero-emailearen, *fan coilen* eta aire-girogailuen bidezko banaketekin. Arribaltzagako Ekoetxeak, alabaina, gas-galdarak baliatzen ditu zoru bero-emailearen bitartez, berokuntzarekin eta UBSarekin lotutako premiak asetzeko.

Eraikin gehienek aluminiozko arotzeriak eta beira bikoitzak dituzte, baita isolamendu termikoa estalkian eta fatxadetan ere. Azpeitiko eraikina da isolamendurik ez duen bakarra, egurrezko arotzeriak eta beira monolitikoak izanik. Argiztapenari dagokionez, ekipo LED teknologiadunak dira nagusi.

Energia berriztagarriei dagokienez, geotruke-instalazioak dituzte eraikinetako hiruk (Urdaibai, Azpeitia eta Txingudi), eta batek –Urdaibaiko ekoetxeak–, berriz, 50 kWp-ko instalazio fotovoltaiko bat autokontsumorako.


Ingurugelak irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko ekipamendu publikoen sarea dira. 160-450 m²-ko lokal txikiak dira, etxebizitza-blokeen etxabeetan daude gehienbat, Legazpiko zentroak izan ezik (solairu bakarreko eraikin batean dago hori).

Berokuntzarekin eta UBSarekin lotutako eskariak betetzeko, gas naturaleko eta PGLzko galdarak daude erradiadoreetara konektatuta. Donostiako Ingurugelak erradiadore elektrikoak baino ez ditu. Argiztapenari dagokionez, ekipo fluoreszenteak dira nagusi.

Energia berriztagarriak energia-jarduketarako unitatearen energia-kontsumoaren % 35 dira. Guztizko kontsumoa urtean 587 MWh da: horren % 54 elektrikoa da; % 7, gas naturaletik lortua; eta % 4, berriz, propanotik.

51. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	23.238	23.238	23.238	23.238	23.238
Electricidad	413.658	385.940	344.554	334.789	435.968
Gas Natural	23.590	27.291	32.977	31.442	40.114
Renovables	120.164	204.944	204.944	204.944	204.944
Total	580.650	641.413	605.713	594.413	704.264



Ingurumena energia-jarduketarako unitateak kudeatzen dituen 9 eraikinetatik 3k A edo B kalifikazioa dute energia-kontsumoari dagokionez. Batek C kalifikazioa du; gainerakoek, berriz, D eta G.

Portuak

Eusko Jaurlaritzaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Gipuzkoako eta Bizkaiko hamabost porturen gaineko eskumena du. Bere jarduerak berrorientatzen ari da; hala, ia arrantza-jarduera guztia lau portu garrantzitsuetan kontzentratzen du (Bermeo, Ondarroa, Getaria eta Hondarribia); gainerako portuek laketontziak babesteko funtzioa ere garatzen dute; halaber, merkataritza-jarduera Bermeoko portuan garatzen da.

Adierazi behar da EAEko kirol-portuak EKPk kudeatzen dituela, Ondarroakoa, Elantxobekoa eta Eakoa izan ezik.

Energia-jarduketarako unitateak Donostian, Bilbon eta Bermeon kokatutako 3 eraikin kudeatzen ditu, baita energia-kontsumoa dakarten beste instalazio batzuk ere, hala nola argiteria publikoa eta garrantzi txikiagoko beste azpiegitura batzuk, adibidez, altxatze-garabiak eta biltegiak. Administrazio-emakidaren eraginpeko higiezinak kanpoan geratzen dira, eta emakidaduna izango da emakidaren titularra, ondorio praktikoetarako.

250-400 m²-ko azalera aire-girogailudunak dituzten eraikinak dira, 1900 eta 1950 bitartean eraikiak, ingurutzailan isolamendu termikorik gabeak. Guztiek dituzte beira bikoitz aire-ganberaduneko arotzeriak, Bilboko bulegoetan izan ezik, horietan beira monolitikoa duten leihoak baitaude oraindik ere. Lanpara fluoreszenteak dira nagusi, baina lanpara halogenoak eta goi-presioko sodio-lurrunezkoak ere badituzte.

Donostiako bulego-eraikina 2016an birgaitu zen, ingurutzailan isolamendu termikoa jarriz eta dagoen argiztapenaren ordez LED teknologia instalatuz.


Berokuntza eta hozketa bero-ponparen eta *fan coil* motako barne-unitateen bidez sortzen da. Erradiadore elektrikoak ere badaude, lagungarri gisa, horietako batean, termo elektriko batez gainera UBSa ekoizteko. Gainera, Bermeoko portuko eraikinak gasolio-galdara bat eta erradiadoreak ditu behar duen berokuntzaz hornitzeko.

Argiztapen-instalazioak –batzuk oso zaharrak– aldatu eta eguneratu egin dira, azken esku-hartzeetan kontsumo txikiko LED argiak sartu baitira.

Energia-kontsumoa urtean 700 MWh ingurukoa da (gehiena elektrikoa da).

52. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	19.000	19.000	19.000	19.000	19.000
Electricidad	686.399	714.741	688.459	683.089	652.679
Total	705.399	733.741	707.459	702.089	671.679



Portuak energia-jarduketarako unitateak kudeatzen dituen 3 eraikinen kalifikazio energetikoak B, E eta F dira, energia-kontsumoari dagokionez.

Euskadiko Orkestra

Euskadiko Orkestraren egoitza Miramongo eraikin batean dago, Donostian. Eraikina 1989an eraiki zen eta 2.811 m²-ko azalera erabilgarria du, hiru solairutan banatua.


Berokuntzarako gasolio-galdara bat eta hozketarako hozte-makina bat ditu, airetiko banaketa termikorako sistema batekin, hiru aire-girogailuren bitartez. Erradiadore elektrikoak eta ekipo autonomo aerotermikoak ere baditu, eremu jakin batzuk berotzeko edo hozteko.

Energia-kontsumoa 369 MWh-koa da; % 60 gasoliotik dator, eta gainerakoa, berriz, energia elektrikoa da.

53. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh

ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Derivados del petróleo	129.970	159.970	165.000	160.000	220.000
Electricidad	150.874	166.467	148.904	172.964	149.909
Total	280.844	326.437	313.904	332.964	369.909



BIC Araba

Arabako Enpresen Berrikuntza Industrialdea SA (BIC Araba) 1997an eraikitako eraikin bakar batek osatzen du. Arabako Teknologia Parkean dago, Miñanon (Gasteiz).

Eraikinak 66 lokal ditu (bulegoak eta pabiloiak), enpresa berriei alokatzeko. Alokairuan honako zerbitzu hauek sartzen dira: berokuntza, aire girotua (kanpoko bulegoetan eta hainbat pabiloitan soilik dago eskuragarri aire girotua), jangela, Internet, bilera-gelak, komunak eta aldagelak. Eremu komunetan, BIC Arabak kudeatzen ditu berokuntzarako, aire giroturako eta eraikinean instalatutako enpresei zerbitzua emateko kontsumo energetiko guztiak.

Fatxaden analisi termografikoak isolamendu termikoa efikaza ez dela erakusten du. Eraikinaren berokuntza-iturri nagusia berokuntza zentraleko sistema bat da, gas naturaleko galdararekin, eta beroa ematen die bulego guztiei, lehen solairuko instalazio komunei eta beheko eta bigarren solairuko komun eta aldagelei. Gainera, gas naturalezko berokuntza-sistema independenteak daude, beheko solairuko pabiloiak berotzen dituztenak.


BIC Arabako bulegoak eta gainerako pabiloiak VRV motako bero-ponpa bidezko airea girotzeko sistemen bidez baino ez dira berotzen.

Barruko argiztapena LED teknologiatikoa da 2018ko apirilaz geroztik, bai bulego eta pabiloietan, bai instalazio komunetan. Aldiz, aparkalekuetan sodio lurrunaren deskarga eta LED teknologia erabiltzen dira.

BIC Arabaren kontsumoa 260 MWh ingurukoa da urtean, eta gas naturaletik dator horren % 66.

54. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	119.876	102.957	83.938	75.148	88.244
Gas Natural	329.573	184.183	193.209	167.788	170.254
Total	449.449	287.140	277.147	242.936	258.498



BIC Araba eraikinaren kalifikazio energetikoa D da energia-kontsumoari dagokionez.

Uraren Euskal Agentzia (URA)

URA Uraren Euskal Agentziaren helburua (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikita dago URA) EAEn uraren politika gauzatzea da.

2021aren amaierara arte, URAk 5 egoitza zituen, horietako 2 Eusko Jaurlaritzako Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumeneko eraikin zentralizatuetan. 2021ean, URAk Boulevard negozio-eraikineko egoitza berrira (Gamarrako Atea) transferitu zituen egoitza nagusia (Orio kalea) eta Mediterraneoko Arroen Bulegoa (Forondako Atea kalea); helbide horiek guztiak Gasteizen daude.


URAK laborategi bat du Errekalde Industrialdeko Irubide eraikinean (Lasarte-Oria), alokairuan. Halaber, bi bulego ditu, Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa zentralizatuko eraikin banatan daudenak: Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa Urkixo zumarkalean (Bilbo), eta Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa Intxaurren kalean (Donostia).

Gainera, URAk ur-emia neurtzeko 40 estazio ditu –ibaitik igarotzen den ur-emia eta beste parametro batzuk ebaluatzeko aukera ematen digutenak–, eta horietako zenbaitzuek sare elektrikorako konexioa dute.

URAK 253 MWh-ko kontsumoa du, eta horren % 59 elektrizitateari dagokio (gainerakoa gas naturalari).

55. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	238.085	149.573	157.476	131.584	150.267
Gas Natural	112.554	112.554	92.015	90.032	103.169
Total	350.639	262.127	249.491	221.616	253.436



Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa


Energia-jarduketarako unitatea Bilbon, Gasteizen eta Donostian kokatutako hiru lokalez osatuta dago. Lokal horietan prestakuntza-ekintzak gauzatzen dira batez ere. Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoak kudeatzen ditu 3 zentro horik, baina Gasteizko bulegoek EKPrekin partekatzen dute lekua.

300-450 m²-ko lokalak izanik, zuzeneko espantsiorako ekipoen eta erradiadore elektrikoek bidezko airea girotzeko sistemak dituzte nagusiki. UBSa termo elektrikoek bidez ekoizten da.

Argiztapenari dagokionez, lanpara fluoreszenteak eta *downlight*ak dira nagusi.

56. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	94.921	97.506	87.497	73.223	54.199
Total	94.921	97.506	87.497	73.223	54.199



IVAP

Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP), Eusko Jaurlaritzaren egungo Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikitako erakunde autonomoa da, eta EAEko administrazio publikoekin lankidetzan aritzea du xede, herritarrei zerbitzu efizienteak emateko. Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Oñatin ditu egoitzak, baina egoitza horiek EAEko sektore publikoko beste arlo batzuek partekatuak eta kudeatuak dira (Bilbokoak izan ezik).

Bilboko egoitza Errekalde zumarkalean dago. Eraikina 1982an eraiki zuten, eta bulegoak beheko solairuan, solairuartearen eta lehen solairuan daude, beste enpresa batzuekin partekatutako eraikin batean. Kalkulatzen da eraikinak ez duela isolamendu termikorik inguratzailean. Baoak beira bikoitzeko PVCzko leihoz osatuta daude betik bat, solairuarterako mendebaldeko fatxadaren izan ezik; izan ere, horko leihoak zurezkoak dira eta beira sinplea dute.


Berokuntzarako gasolio-galdara bat du eta, hozkuntzarako, berriz, hozte-makina bat, airetikoa banaketa termikorako sistema batekin, aire-girogailuen eta *fan coil*en bitartez. Argiztapena mistoa da, eta LED teknologiako lanparak eta fluoreszenteak nagusitzen dira.

Gutzizko kontsumoa 28 MWh-koa da, jabeen erkidegoko berokuntza-kontsumoen zati proportzionala kontuan hartu gabe.

57. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	23.923	20.382	13.930	17.309	28.409
Total	23.923	20.382	13.930	17.309	28.409

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh




Industria

Energiaren Euskal Erakundeak eraikin bat du Arabako Parke Teknologikoan, CICenergigune taldeari lagatakoa, bai eta kontsumo eskaseko bi lonja txiki ere. CICenergigunereren kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren esku ez dagoenez, eraikin horren kontsumoak ez dira inbentarioan sartu.

58. irudia. Energia-jarduketarako unitatean izandako energia-kontsumoen laburpena.

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh					
ENERGIA	2015	2017	2019	2020	2021
Electricidad	6.673	2.521	4.597	2.450	2.456
Total	6.673	2.521	4.597	2.450	2.456

Urteko kontsumoa / Consumo anual, kWh



Energia-jarduketarako unitateak garrantzi txikia du kontsumoari gagozkiola, baina ez, ordea, sorkuntza berriztagarriari dagokionez. Hala, Energiaren Euskal Erakundeak energia berriztagarriak ekoizteko hainbat instalazio kudeatzen ditu:

- Eraikinei lotutako 188 instalazio fotovoltaiko sarera saltzeko. Instalazio horietako batzuk Hezkuntza Sailarekin eta EAeko sektore publikoko beste arlo batzuekin partekatuta daude; izan ere, erakunde horien eraikinetan kokatuta daude. Instalazio horiek 5-100 kWp-koak dira. Guztira 2.757 kWp dira, eta urtean 2.390 kWh ekoizten dituzte.
- Sarera primekin saltzeko instalazio bat, eraikinei lotuta ez dagoena. Kontrastaren lantegia da (363 kWp), eta urtean 459.000 kWh ekoizten ditu.
- Olatu-energia ekoizteko instalazio bat Mutrikun, 296 kW-ko potentzia instalatua duena eta 290.000 kWh ekoizten dituena urtean.
- Kontrastaren ekoizpen minihidraulikoko instalazio bat, Harana udalerrian, 195 kW-ko potentzia duena eta urtean 240.000 kWh ekoizten dituena.
- Gainera, EEEK 1 MWp-ko partaidetzarekin parte hartzen du Erriberabeitiko EKIAN instalazio fotovoltaikoan, urtean 1.500.000 kWh inguruko ekoizpena izanik.

Alokabide

Alokabidek 234 eraikin eta 7.700 etxebizitza publiko kudeatzen ditu guztira. Kudeatzen dituen eraikinetako 136tan soilik du EAEko sektore publikoak % 50etik gorako titulartasuna. Askotariko ekipamenduak dituzten eraikinen ugari dira, hain zuzen ere, eta erabiltzaileei dagokienez, egoera desberdinetakoak dira. Gainera, EAEko sektore publikoak titulartasun pribatuko 5.900 etxebizitza kudeatzen ditu Bizigune programaren bidez. Etxebizitza publikoa hobetzeko ZERO Plana 2020an onartu zen, eta titulartasun publikoko etxebizitzak ditu ardatz.

Alokairuko parke publikoaren kontserbazio-egoera orokorra ona da, baina dagozkion analisiak egin ondoren, zuzendu beharreko zenbait patologia antzeman dira.

Alokairuko parke publikoa osatzen duten eraikinen batez besteko adina 15 urtekoa da. 40 urtetik gorako eraikin bakar bat dago, eta jada gauzatu da haren birgaitze integrala. Eraikinen % 43 EOA-KT-79 arauaren estandarren arabera eraiki dira, eta gainerakoak, berriz, EKTren arabera. 40 urtetik gorako eraikin bakar bat dago, baina jada ari da gauzatzen haren birgaitze integrala.

Eraikuntza-sistematik ohikoena orri bikoitzena da, aire- eta isolamendu-ganberarekin. Isolamenduaren lodiera arau-eskakizunen araberakoa da: normalak dira 4 cm-koak 1979-2007 aldian, eta 10 cm-rainokoak, ordea, 2007-2018 aldian. Kanpoko arotzeria aluminiozkoa izan ohi da, ubi termikoaren hausturarekin eta < 12 mm-ko ganbera duten beira bikoitzekin.


Berokuntza-sistema zentralizatuen eta UBSaren auditoria energetikoa egin zen. Eraikuntza-familiak identifikatu eta ikuskapenak eta saiakuntzak egin ziren laginketa adierazgarri baten bidez.

Sustapenetan galdara zentralizatuak erabiltzen dira berokuntza eta UBSa ekoizteko, bai eta galdara indibidualak ere (gas naturalekoak normalki). Eguzki-energia termikoko 65 instalazio daude UBSa ekoizteko, baita geotermiako 5 instalazio ere. Instalazio fotovoltaiko bat ere badago.

Egindako azterketetan, besteak beste, ate-haizagailu motako saiakuntzak, eraikinen modelizazioa eta etxebizitzaren monitorizazioa egin dira. Azalera-unitate bakoitzeko berokuntza-kontsumoa aztertuz eta EEZn adierazitako eskariarekin alderatuz gero, ikusiko dugu sustapenek ez dutela kontsumitzen konfort-baldintza egokietara iristeko adina energia. Eraikinen % 40k funtzionamendu ezin hobeko instalazio berriztagarriak dituzte (oro har, eguzki-instalazio termikoak), % 9k ez dute sistema hori zerbitzuan, eta eraikinen % 41ek, azkenik, ez dute energia berriztagarririk, halakoak instalatzeko lekua duten arren.

Etxebizitza-parke publikoa bereziki kontuan hartuta, haren energia-kontsumoak ez dira kontuan hartu EAEko sektore publikoaren balantzean.

59. irudia. Alokabideko eraikinetako gas naturalaren kontsumoak.



3. eranskina. Alokairuko etxebizitzaren parkeko hobekuntza konbinatuen deskribapena

Neurri konbinatuak honako talde hauetan daude kategorizatuta:

Neurri pasiboak

- CO1. Inguratzaile termikoaren gaineko oinarrizko jarduketa. Aire-ganbera intsuflatzea eta kanpoko arotzeria berritzea.
- CO2. Inguratzaile termiko osoa. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– kanpoko arotzariaren berrikuntzarekin konbinatzea.
- CO3. Inguratzaile termiko osoa eta aireztapena. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– kanpoko arotzariaren berrikuntzarekin konbinatzea. Halaber, aireztapen mekaniko kontrolaturako sistema gehitzen zaio.

Neurri aktiboak

- CO4. Instalazioak eta berriztagarriak: eguzki-energia termikoa. Berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioak berritzea eta eguzki-instalazio termikoa instalatu edo hobetzea.
- CO5. Instalazioak eta berriztagarriak: bero-ponpa. Eraikinean berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioak berritzea eta aeroterminoako bero-ponpa bat instalatzea, UBSaren eskariaren % 50 betetzeko.
- CO6. Instalazioak, aireztapena, eguzki-energia termikoa. Eraikinean berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioak berritzea eta eguzki-instalazio termikoa instalatu edo hobetzea. Halaber, aireztapen mekaniko kontrolaturako sistema gehitzen zaio.
- CO7. Instalazioak, aireztapena, BP eta panel fotovoltaikoak. Eraikinean berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioak berritzea eta aeroterminoako bero-ponpa bat instalatzea, UBSaren eskariaren % 50 betetzeko. Gainera, aireztapen mekaniko kontrolatuko sistema eta elektrizitatea sortzeko instalazioa gehitzen dira, estalkiko panel fotovoltaikoen bidez, autokontsumorako.

Birgaikuntza integrala

- CO8. Oinarrizko inguratzaile termikoa eta instalazioak. Aire-ganbera intsuflatzea, kanpoko arotzeria berritzea eta eraikineko berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioak berriztatzea.
- CO9. Inguratzaile termiko osoa eta instalazioak. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– hauekin konbinatzea: kanpoko arotzariaren berrikuntza, eta eraikinean berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioen berrikuntza.
- CO10. Inguratzaile termiko osoa, aireztapena eta instalazioak. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– hauekin konbinatzea: kanpoko arotzariaren berrikuntza, aireztapen mekaniko kontrolatuko sistemaren instalazioa eta eraikinean berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioen berrikuntza.

Deskarbonizazioa (*deep renovation*)

- CO11. Inguratzaile termiko osoa, instalazioak eta eguzki-energia termikoa. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– hauekin konbinatzea: kanpoko arotzeriaren berrikuntza, eraikinean berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioen berrikuntza eta eguzki-energia termikoko sistema baten instalazioa edo hobekuntza.
- CO12. Inguratzaile termiko osoa eta bero-ponpa. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– kanpoko arotzeriaren berrikuntzarekin konbinatzea. Bero-ponpa bat instalatzea proposatzen da, berokuntzarekin eta UBSarekin lotutako premiak asetzeko.
- CO13. Inguratzaile termiko osoa, bero-ponpa eta FV. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– kanpoko arotzeriaren berrikuntzarekin konbinatzea. Bero-ponpa bat instalatzea proposatzen da, berokuntzarekin eta UBSarekin lotutako premiak asetzeko. Gainera, teilatuan panel fotovoltaikoen bidez energia elektrikoa sortzeko instalazio bat planteatzen da.
- CO14. Inguratzaile termiko osoa, aireztapena, instalazioak eta eguzki-energia termikoa. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– hauekin konbinatzea: kanpoko arotzeriaren berrikuntza, aireztapen mekaniko kontrolatuko sistemaren instalazioa eta eraikinean berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioen berrikuntza. Eguzki-energia termikoko sistema bat instalatzea edo dagoena hobetzea ere proposatzen da.
- CO15. Inguratzaile termiko osoa, aireztapena eta bero-ponpa. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– hauekin konbinatzea: kanpoko arotzeriaren berrikuntza, aireztapen mekaniko kontrolatuko sistemaren instalazioa eta eraikinean berokuntza eta UBSa ekoizteko instalazioen berrikuntza. Eguzki-energia termikoko sistema bat instalatzea edo dagoena hobetzea ere proposatzen da.
- CO16. Inguratzaile termiko osoa, aireztapena, bero-ponpa eta FV. Fatxada berritzeko neurria –honako hauen bidezkoa: Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema (KITS) eta estalkiaren eta beheko forjaren isolamendua– hauekin konbinatzea: kanpoko arotzeriaren berrikuntza eta aireztapen mekaniko kontrolatuaren instalazioa. Bero-ponpa bat instalatzea proposatzen da, berokuntzarekin eta UBSarekin lotutako premiak asetzeko. Gainera, teilatuan panel fotovoltaikoen bidez energia elektrikoa sortzeko instalazio bat planteatzen da.

4. eranskina. Laburdurak

UBS	Ur bero sanitarioa
BP	Bero-ponpa
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EEZ	Efizientzia energetikoaren ziurtagiria
COP	<i>Coefficient of performance</i> edo errendimendu-koefizientea
HPKB	Hornidura-puntuaren kode bateratua
EKT HE	Eraikuntzako Kode Teknikoa, energia-aurrezpeneko oinarrizko dokumentua
JED	254/2020 Dekretua, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa
FV	Fotovoltaikoa
PGL	Petrolioaren gas likidotuak
kWp	<i>Peak</i> gaitasun fotovoltaikoa kW-tan
JEL	4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa:
EOA	Eraikuntzako Oinarrizko Araua
BAEB	Bezeroari Arreta Emateko Bulegoa
BBA	Beheko berotze-ahalmena
GBA	Goiko berotze-ahalmena
EITE	Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua
ZTH	Zubi termikoaren haustura
KITS	Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema
SCOP	<i>Seasonal coefficient of performance</i> edo urtaroren araberako errendimendu-koefizientea
(KES)	Kudeaketa energetikorako sistema
VRV	Hozgarri bolumen aldagarria

5. eranskina. Bihurketa-faktoreak

ENERGIA-ITURRIAK	BIHURKETA-FAKTOREA
Energia elektrikoa	1 kWh / kWh
Gas naturala	0,9 kWhPCI / kWhPCS
Petrolioaren gas likidotuak (PGL)	12,78 kWh/kg; 26,7 kWh/Nm ³
Gasolioa	11,75 kWh/kg; 10 kWh/litro
Biomasa	Kasu bakoitzean zehaztu beharrekoa